

Zu hemen zaude. goiena



ELORREGI, AUZO BAT HIRU HERRITAN

Eskualdeko hiru herri nagusien erdian dago Elorregi, eta auzoa aldarrikatu eta biziberritzeko ahaleginetan ari dira auzotarrak azken urteotan; San Prudentzio jaietan murgildu dira egunotan / 2

Elorregiko auzotar batzuk, bus geltokiaren ondoan, duela hilabete batzuk auzoa aldarrikatzeko jarri zuten ikurrina atzean dutela. XABIER URZELAI

Trantsizio energetikoa jomuga duen SHREC proiektuko kideak Arrasaten dira / 6

"Kezka, haserrea eta mina" eragin ditu Valogreeneri ingurumen baimena eman izanak / 24

SINADURAK

IKER AGIRRE / 8

ENERITZ URRUTIA / 12

ITSASO ERRARTE / 21

XABIER GESALAGA / 35

ANDER ETXEBERRIA / 48

Osinalde bertso sariketako garaikur nagusia irabazi du Ane Zuazubiskar arrasatearrak / 40



Pertsonen kudeaketa, erdigunean

Elhuyar Fundazioko Jon Abrili elkarrizketa



MIGUEL ALTUNA
Lanbide Heziketa

Goi eta Erdi mailetako zikloak & Espezializazioak

AURREMATRIKULAK: Maiatzaren 9tik 27ra

ESPEZIALIZA ZAITEZ!

- + Adimen Artifiziala & Big Data **BERRIA!**
- + Fabrikazio Adimenduna
- + Forjaketa Prozesuen Diseinua & Ekoizpena

www.maltuna.eus



Jone Olabarria ARRASATE

Martitzeneko egun eguzkitsua aprobetxatuz, GOIENAK Elorregiko jaien prestaketa lanean murgilduta harrapatu ditu bertako auzotarrak. Eguazteen eman zioten hasiera auzoko jaien egitarauari, eta hurrengo egunean jasoko duten txopoa moztu eta prestatzetik zuzenean iritsi dira hitzordura auzotar asko. Sanprubusaren bueltan elkartzeko ohitura dute, eta, bertan jarrita, egunero egin ohi duten moduan, azaldu dituzte euren kezka eta auzoari buruzko inpresioak.

Elorregi, "xelebrea"

Haien auzoa deskribatzeko eskatuta, azkar erantzun dute: "Xelebrea". Zalantza barik, eta izaera aldetik, behintzat, Debagoieneko auzo kuriosoenetakoa da: denak dira Elorregikoak, baina bakoitzak badu erreferentziako herri bat.

Bertan elkartu diren hamar auzotarretatik, gehienek Bergara edo Oñati dute erreferentziako herri. Zergatiaz galdetuta, baserriaren kokapena edo eskolara nora joan ziren aipatu dituzte: "1969. urtera arte, zabalik egon zen Elorregiko eskola eta haur guztiak bertara joaten ziren. Ume gutxi zeudela-eta itxi zutenetik, bakoitzak herri baterako bidea hartu zuen eta horrek ere badu isla gaur egun".

Hiru herri, izaera bereziko auzoan

Bailarako elkargune garrantzitsuenetakoa da Elorregi. Bergara, Arrasate eta Oñatiren arteko muga izatek harago, izaera "propio" eta "xelebrea" duen auzoa da. Jaietan murgilduta daudela, auzoaren behar eta aldarrikapenen berri eman dute

Erreleboa, "zaila"

Elkartu diren auzotarren artean, adinekoak dira nagusi. Auzoak bizitako aldaketei dagokienez, barre artean diote trafikoa asko handitu dela, baina baita egunero bizitzan giroa galdu duela Elorregik: "Lehen, etxe bakoitzean ume pila bat zeuden, eskola itxi zutenean ere asko igarri zen, baita elkartaren bueltan ere". Auzoaren erreleboaz galdetuta, haurrik apenas dagoela aitortu dute auzotarrek, eta gazteek geroz eta gehiago herrigunera joateko ohitura dutela diote.

"SANPRUBUSA OSO GARRANTZITSUA IZAN DA; AUZOTARRAK ELKARTZEKO GUNE BILAKATU DA"

Horren adierazle, duela urte batzuk arte, Elorregiko elkarte-kide izateko bertan jaioa edo bertara ezkondu izan beharra zegoen. Egun, nahi duten guztiak dute bertako kide izateko aukera, Arrasatekoa, Oñatikoa edo Bergarakoa izan.

Hala ere, "itxaropentsu" daude, eta, beste kontu askori buelta ematea lortu duten bezala, auzoa gaztetu eta biziberritzea posible dela uste dute Elorregiko herritarrek.

Eredu aldaketaren beharra

Azken urteetako bizitza eredia "agortuta" dagoela argi geratu dela uste dute auzotarrek, eta zero kilometroko nekazaritza eta produktuetan ikusten dute auzoari buelta emateko aukera on bat: "Orain arte, industria potentziatu eta nagusitasuna horrek

izan du. Azkenaldian, bagabiltza gizarte moduan ekologia eta nekazaritza baloratzen, eta baliteke hemendik hamar urtera eredu aldaketa egotea. Hozkailuak ekoiztu, soldata on bat izan, zortzi orduko jarduna egitea izan da orain arte eredia, erosora jo dugu".

Adibide moduan, Elorregin zegoen Tavex enpresaren eredia jarri dute auzotarrek: "Hemen zegoen zelairik onenetakoa zen Tavex enpresarena. Urte on batzuk bai, baina begira nola dagoen orain, ekoizpena kanpora era-

"UDALEK ETA FORU ALDUNDIAK EZ DITUZTE AINTZAT HARTZEN GURE BETIKO ESKAERAK"

man, eraikina hemen hutsik eta ingurua txikituta".

Ildo horri jarraiki, irailean tokiko produktuen lehen azoka egin zuten Elorregin, auzoari merezi duen garrantzia emateko: "Askotarikoa izatea gura genuen, eta, azken batean, aniztasun horren isla ere bada Elorregi. Topagune bilakatu nahi da, eta gune honi mugimendu apur bat eman".

Sanprubusaren eragina

Lehen, pilotalekua eta elkarte ingurua ziren auzotarren erreferentziako guneak, baina, 2019ko maiatzean Jon Mujikak Sanprubusa martxan jarri zuenetik, bertan elkartzeko dira egunero. Auzotarrek azaldu dute herritarrek batzeko gakoa izan dela: "Guretzat oso praktikoa da. Zerbait hartzerat etorri eta denok hemen batzeko balio izan du, baita paseoa datorren jendearekin harremanetzeko eta, orokorrean, herritarrek erakartzeko".

Azokak eta beste

Lehenengoz egin zuten 2021eko urrian Elorregiko sagardo azoka, "auzoa eta ingurua dinamizatze" helburuarekin, eta benetan arrakastatsua izan zen, hainbat herritar batu baitziren eguerdi partean sagarraren bueltan: "Auzotar baten ideiatik abiatuta egin genuen, eta, egia esanda, oso harrera ona izan zuen. Hemendik aurrera, eta oraindik formatua guztiz zehaz-

Prekarietatea izango da jo-puntu aurtengo Maiatzaren Lehenean

Sindikatuak hiriburuetan deitu dituzte manifestazioak eta Deba eskualdeko Kontseilu Sozialistak, Arrasaten

Uxue Igarza Loiola DEBAGOIENA

LABek eta ELAk prekarietatea salatze baliatuko dute Maiatzaren Lehena. Zehatzago esanda, LAB sindikatuek "enplegua eta zaintzak banatzeko" eta "aberastasuna birbanatzeko politiketan" egingo du azpimarra, eta ELAk "botere sindikala" jarriko du aldarrikapenen erdigunean. CCOO eta UGT sindikatuek, bestalde, batera egin dituzte deialdiak EAeko hiriburuetan; *Konponbidea: soldatako igo, prezioei eutsi, berdintasuna* izan da aukeratu duten leloa.

Aurten, sindikatuek eta eragileek pandemia eta Ukrainako gerra izan dituzte abiapuntu deialdiak egiteko orduan; beste modu batera esanda, COVID-19ak eragindako ekonomia krisiak eta argiaren prezioaren gorakadak markatu dute Maiatzaren Leheneko testuingurua. "Ura, eguzkia eta haizea gasaren prezioan ordainarazten dizkigute (...) Energia enpresak etekin historikoak lortzen ari dira eta gobernuek ez dute neurrik hartu espekulazioa edo energia enpresen mozkin lotsagarria



Maiatzaren Leheneko mobilizazioa, iaz, Bergaran. GOIENA

amaitzeko", salatu du ELAk. "Energiaren publikazioa defendatzen dugu, haren gaineko kontrol politiko eta sozial handiagoa (...) Trantsizio ekologikoa eta feministari heldu behar diogu", esan du LABek. CCOO

eta UGTk ere "langile klasea pobretzen duen prezioen igoera" salatu dute.

Sindikatuaren aldarrikapenak

Banaketa hirukoitza aldarrikatuko du LABek domekan: "Lan

guztiak aitortu, banatu eta dundu behar dira; banatu eta dundu, lanaldia murriztuz. Eta aberastasuna birbanatzeko politiken alde eginen dugu". Soldata eta zerbitzu publikoak "hobetzea" proposatzen dute aberastasuna birbanatzeko eta baita erreforma fiskalaren bitartez kapitalaren errentei eta enpresen irabaziei zergak igotzea. Mobilizazioak 12:00etan izango dira Bilbo, Donostia, Gasteiz eta Iruñean eta 11:00etan Baionan. Bestetik, zenbait herritan ere egingo dira; bailaratik gertuen, Eibarren, 12:00etan.

ELAk, bestetik, Hego Euskal Herriko lau hiriburuetan egingo ditu manifestazioak, eguerdian: 11:30ean Bilbon, Iruñean eta Donostian eta 12:00etan Gasteizen. "Enplegu prekarioak amaitzea da sindikatuaren ze-



Elorregiko auzotar batzuk Sanprubusean, oraingo martitzenean. XABIER URZELAI

teke, halakoak egiten jarraitzea da asmoa".

Orduan aitortu zuten ere, Sanprubusak lortu du inguruarri bizia ematea. Sagardoaren Egunaren helburua, baina, auzoa are gehiago dinamizatzea dela azaldu zuten. Hala, orduan batutako dirua Elorregiko auzoarentzat geratu zen.

Aurten ere Korrikan parte hartu dutela ere gogorarazi dute, auzotarren artean erosi zuten kilometroan, eta oso era berezian hartu zuten parte, gainera: "Adineko auzotar batek

eraman zuen lekukoa, bizikletan, eta guretzat oso hunkigarria izan zen".

"Gutziz abandonatuta"

Auzotarrek egiten duten esfortzuetik harago, zerbitzu asko falta zaizkiela salatu dute, eta bai udalen aldetik baita Gipuzkoako Foru Aldundiaren aldetik "gutziz abandonatuta" sentitzen direla aitortu dute: "Urteak daramatzagu aldarrikapen berberak egiten. Ez da hainbeste arazo eskatzen duguna. Herri-gunean gutxieneko bezala iku-

siak dauden zerbitzu eta azpiegiturak ez ditugu Elorregin. Hori da eskatzen duguna, herri-gunean minimoak diren zerbitzuak auzoetara ere zabaltzea. Udalek ez dituzte gure eskaerak aintzat hartzen eta elkarri pasatzen diote erantzukizuna".

Foru Aldundiarekin ere askotan saiatu direla diote, baina horiek ere udaletara bideratzen dituztela. Behin eta berriz azpimarratu dituzte behar nagusiak hitzorduan zehar: komuna, edateko ura eta bidea gurutzatzeko modu segurua.

Zaborrekin arazoak

Auzoan ohikoak diren uraren eta komunaren eskaerekin batera, zaborra jasotzeko zerbitzu hobea ere behar dutela azaldu dute auzotarrek: "Elorregi biribilgune eta aparkaleku inguruko zaborra auzotarrok jasotzen dugu. Auto batek zaborra bota nahi badu edo autobusean etorri denak zerbait bota nahi badu, Sanprubusera ekarri edo lurrean botata utzi behar du. Eta ondoren, auzotarrok jasotzen dugu zikin hori guztia ostean".

Jaietan murgilduta

Eguaztenean hasi eta asteburuan zehar auzoko jaiak ospatuko dituzte Elorregin, San Prudentzio egunarekin bat eginda. "Gogoz" azaldu dira auzotarrak, eta gustu guztietarako eskaintza prestatzen saiatu direla azaldu dute, "aurrekontuak ematen dituen aukeren artean. Auzotarren bazkaria, haurrentzako jolasak, gaztetxoendako kontzertuak... Apur bat denetik antolatzen saiatu gara". (Ikus 24. orria; bertan egitarau osoa)

"Herriko zerbitzuak, hemen ere bai"

Behar nagusien artean, beste hainbatekin batera, edateko ura izatea, Elorregiko biribilgune eta autobus geltokiaren inguruan komun bat jartzea, makaldia garbitzea eta pilotaleku gunerako zebra-bide seguru bat azpimarratu dituzte Elorregiko auzotarrek. Azaldu dutenez, duela bederatzita urte egin zuten lehenengoz komunaren eskaera, eta ordutik hona "borrokan" jarraitu duten arren, ez dute "ezer" lortu. Edateko urari dagokionez, diote badakitela "oso zaila" dela baserri guztietara ura eramatea, baina, gutxienez, pilotaleku eta elkarte ingurura eramatea exijitu dute. "Elkartean afaltzen egon bazara, eta zerbait edan, legalki autoan baino ezin zara handik irten. Oinezkoendako leku bat beharko genuke". Beste behin ere, herriguneetan gutxienekoak diren zerbitzuak auzoetan ere merezi dituztela aldarrikatu dute.



Elorregiko geltokia. GOIENA

regin nagusia, eta errealitateak erakusten digu borroka sindikala dela biderik eraginkorrena", aldarrikatu dute, eta horretarako gakoetako bat "botere sindikala" sortzea dela ere bai: "Maiatzaren Lehenean gogorazi nahi dugu botere sindikala sortzeko antolatzea dela edozein militante sindikalen zeregin nagusia eta ekarpenik onena".

Bestalde, CCOO eta UGT sindikatuek aurreratu dutenez, soldatak igotzea, prezioei eustea eta berdintasuna areagotzea izango dira eskaera nagusiak aurten. "Garrantzitsua da negoziazio kolektiboa garatzea, soldaten erosteko ahalmenaren galeraren dinamika geldiarazteko, bolborategi soziala sortzea saihesteko eta susperraldi ekonomikoa arriskuan ez jartzeko", azaldu dute.

Sozialistak, Arrasaten

Deba eskualdeko Kontseilu sozialistak Arrasaten egingo du manifestazioa, domekan 18:30ean, Herriko Plazatik abiatuta.

Besteak beste, azken hilabeteetako prezioen gorakada salatu dute sozialistek ere: "Otsaileko datuen arabera, elektrizitatea %80,5 igo da eta gasolina %25,1, eta 2022ak %7,5eko inflazioa edukiko duela estimatzen da, gizarteko pobrezia estrukturala izugarri handituz". Bestetik, krisiak "hamaika aurpegi" dituela ere gaineratuko dute eta horren guztiaren aurrean "antolakuntzaren beharra" aldarrikatuko dute. "XIX. eta XX. mendeetako esperientzia iraultzaileek argi utzi zuten sozialismoaren aldeko borroka soilik sor ditzakeela ongizate erreala batera baldintzak", diote.

Gipuzkoako errepide sarea, Europako politiketatik "gertu"

Aintzane Oiarbide Bide Azpiegiturako foru diputatuak errepideen gaineko hitzaldia egin zuen Bergaran

U.I.L. BERGARA

Eguaztenean, Gipuzkoako errepideei buruzko hitzaldia egin zuen Aintzane Oiarbide diputatuak Bergaran. Besteak beste, errepideen gaineko eskumenen historia azaldu zuen, eta baita Gipuzkoako sarearen finantzaketa ereduaren zein den ere.

Horrez gain, Debagoieneko bide eta azpiegitura batzuk ere aztertu zituzten, eta azken egunetan pil-pilean dauden eztabaidak argitzeko ere baliatu zuen momentua Oiarbidek. Arrasateko biribilgune zapalgarria



Oiarbide, hitzaldiaren ostean. U.I.L.

konpontzen ari direla azaldu zuen: "Zapaltzearen ondorioz pintura joaten ari da eta beste material bat jartzen ari gara. Gauzak frogatzen joan behar da, eta teknikariak ikusten ari dira zein den aukerarik onena (...). Leku gutxi dago hor eta horrela egin behar da".

Europara gerturatzen

Oiarbideren esanetan, Gipuzkoako errepideen eredu Europako politiketatik gertu dago. "Filosofia da erabiltzaileek -eta kutsatzen dutenak- ordaindu egin behar dutela", zehaztu du. 2024a Europako Komisioak horretarako jarri duen epemuga; ordurako autobide guztietan ezarri beharko da ordainsaria. Diputatuaren ustez, hori da errepideak "behar bezala mantentzeko" aukera.

Haginak bistan batzuk, estutzen beste asko

Apirilaren 20an gelditu zen bertan behera maskara erabiltzearen derrigortasuna barrualde gehienetan. Erietxeetako presioa, baina, arintzetik urrun da; domekan, 360 herritar zeuden ospitaleratuta Hego Euskal Herrian; atzo, bost Arrasteko Ospitalean

Jon Irizar Aranguren DEBAGOIENA
646 egun. Salbuespenak salbuespen, ia 22 hilabetez nahitaezkoa izan da barrualdeetan maskara bidez ahoa eta sudurra estaltzea Debagoiengan. 2020ko uztailean lehen hamabostaldian sartu zen araua indarrean.

Egoera epidemiologikoaren bilakaera tarteko, neurriak malgutzen edo gogortzen joan dira geroztik; tartean, maskara aire zabalean erabiltzeko araua. Ez, ordea, espazio itxietakoa.

Derrigortasunetik gomendiora
Apirilaren 6an eman zuen Espainiako Gobernuak araua bertan behera uzteko asmoen berri,



Arizmendi Ikastolako hainbat ikasle lanean, astelehenean. HASIER LARREA

eta 19an hartu zuen behin betiko erabakia Ministroen Kontseiluak. Hurrengo egunean sartu zen indarrean neurria.

Pazko asteko eguaztena ezker, beraz, ez da nahitaezkoa maskara erabiltzea barrualde gehienetan. Hala itzuli ziren astelehenean ikasleak ikasgeletara. Gainera, ikasturte desberdinetako neska-mutilak elkarrekin nahastu ahal izan ziren, burbuila-taldeak ere desagertu baitira. Lan eremuan ere bertan behera gelditu zen derrigortasuna, Gobernuak azken erabakia enpresetako lan-arriskuen prebentzioko arduradunen esku utzi arren.

Badira, baina, maskararen erabilerak beharrezkoa izaten jarraitzen duen hainbat espazio. Ospitaleetan, osasun etxeetan, odola emateko zentroetan eta farmazietan langile zein bisitariak erabili behar dute; baita zentro soziosanitarioetan eta garraio publikoan ere. Eta derrigortasunik ez izan arren, pertsonen arteko distantzia 1,5 metro baino gutxiagokoa denean zein aireztatze egokia bermatu ezin denean sudurra eta ahoa estaltzeko gomendioa egin dute.

Ospitaleratuak, gora

Erabakiak egoera epidemiologikoan izan duen eragina aztertzeko behar beste denbora igaro ez den arren, Aste Santuko eta Pazko asteko datuetatik ondorio adierazgarri bat atera liteke: goranzko joeran dira berriz bialarako balioak. (Ikus 5. orria)

Hego Euskal Herriko erietxeetako egoera da horren adibide. Apirileko lehen bi asteetan eguneko 200 ospitaleratutik behera izan osten, azken astean egunero 350 herritar inguruk behar izan dute arreta; 360 ziren, zehazki, joan den domekan. Eta Arrasteko Ospitalea ez da salbuespena. Pazko astean bete egin dira gaitzak jota dauden herritarrentzako prestatutako oheak bi-hiru egunez. Atzo, berriz, bost ospitaleratu zeuden, apirilaren 13an baino bi gehiago.

ZIUetan, aldiz, oraindik ez da aldaketa handirik nabaritu. Domekan, hamasei herritarrek behar zuten zainketa intentsiboa Hego Euskal Herrian, apirileko batez bestekotik gertu -13,9-32,2koa zen batez bestekoa martxoan; 92koa otsailean; eta 154,5ekoa, aldiz, urtarrilean.

SAN ANDRES HOMES • ARRASATE

 **Neinor** HOMES

Bizi nahi
dugun
etorkizuna

Gimnasioa
Gourmet aretoa
Terraza zabalak


ERAIKITZEN



900 11 00 22 • neinorhomes.com

Intzidentzia-tasaren eboluzioa

DATUEN ITURRIA: EUSKO JAURLARITZA ETA NAFARROAKO GOBERNUA



Positibo kasuak eta intzidentzia

	Positiboak aste honetan	Positiboak aurreko astean	Positibo metatuak	Positiboak biztanleekiko	Intzidentzia tasa 14 eguneko, 100.000 biztanleko
Arrasate	55	40	8.784	%40,17	437
Bergara	43	35	5.607	%38,45	526
Oñati	19	17	4.640	%40,60	316
Aretxabaleta	17	22	2.670	%37,56	547
Eskoriatza	7	0	1.583	%38,32	169
Antzuola	4	6	846	%40,65	465
Elgeta	2	2	315	%27,61	356
Aramaio	2	0	564	%38,74	133
Gatzaga	2	0	75	%35,55	884
DEBAGOIENA	151	122	25.084	%39,19	426

OHARRA: ASTELEHENERA ARTEKO DATUAK

ITURRIA: OSASUN SAILA

Gora egin dute positiboek bailaran Aste Santuan eta Pazko astean

122 eta 151 kasu berrirekin, intzidentzia 426ra igo da bi astean; azken bi hilabeteetako baliorik altuenak dira

Jon Irizar Aranguren DEBAGOIENA Otsailaren 24a ezker, 150 positibotik behera izan dira astero; intzidentzia-tasa 400etik behera egon da. Aste Santua eta Pazko astea heldu diren arte: kasuak gora doaz berriz Debagoiengan.

151 positibo zenbatu ziren joan den astean, eta hautemandako kasu berrien kopurua ia bikoiztu egin da bi astean -81 ziren apirilaren 10ean-. Hiru kutsatutik bi Arrasaten edo Bergaran atzeman dira.

Intzidentzia-tasa: 426
Hala, intzidentzia-tasa 189 puntu igo da azken hamabost egunetan; 426an zen domekan. Nafarroakoa salbu -787-, Araba -413-, Bizkaia -343- eta Gipuzkoako -340- balioak gainditu ditu bailarakoak.



ekiola Leintz Bailarako Ekiola Kooperatiba

Eguzkia berdea da

Zatoz aurkezpen-hitzaldira

Eman izena bazkietzan lehentasuna izateko

Zure energia, sortu, kontsumitu eta kudeatzeko aukera

- Eguzki energia kontsumitu
- Kooperatibako bazkide izan
- Erosoa, obrarik egin gabe

Herritarrei zuzendutako hitzaldi informatiboa

ARRASATE
Maiatzaren 3an, 18:30ean,
Amaia Antzokian

ITZULPEN-ZERBITZUA EGONGO DA.

ARRASATEKO USTIA (Arrasateko Ustia - Arrasate's Energy)

FAGOR

www.ekiola.eus

goiena



Ingurumen zuzendari Pedreira, Ubarretxena alkatea eta EEEko zuzendari Ansola, topaketako beste parte-hartzaileekin. J.I.

Energia arloko ekimenen berri Europako kideei

Trantsizio energetikoa jomuga duen SHREC proiektuko kideak Arrasaten dira eguaztenetik gaur –egubakoitza– arte. Bertako Udalarekin batera etorkizun iraunkorrako baterako elkarlanean diharduten zazpi herrialdetako ordezkariak dira

Julen Iriondo M. de Zuazo ARRASATE "Ekologiari begira denok daukagun betebeharra da; erronka oso garrantzitsua dugu hor. Eta Arrasateko Udalak, nola ez, erronka horri ekin egin nahi dio, eta horretaz hitz egitera gatz gaur. Beste herrialde batzuetako esperientziak ezagutzeko aukera izan dugu, eta, hiru egun hauetan, gure esperientziak ezagutzera eta bertatik ikastera etorri dira", zioen Maria Ubarretxena alkateak, Arrasateko Udalarekin batera SHREC proiektu europarreko kide diren eragileetako ordezkariekin, Garaian, hiru eguneko topaketa hasi aurretikoan.

Izan ere, proiektuaren helburuak dira: energia berriztagarrien ekoizpena eta kontsumoa sustatzea; tokiko politikak hobetzea; enpresen inbertsioa sustatzea berriztagarrietan eta teknologia berrietan; eta kontsumitzaileen inplikazioa areagotzea.

Arrasaterekin batera, Herbehereetako, Eslovakiako, Li-

tuniako, Italiako, Frantziako, Suediako eta Errumaniako eragileak –agentziak, unibertsitateak eta erakundeak– ari dira SHREC proiektuan; herrialde bakoitzeko jardunbide egokiak identifikatu eta taldeko kideen artean partekatzen dituzte. Arrasateko jardunaldiaren ostean, "datozen hilabeteetan, tokiko ekintza-plan bat" jarriko dute abian, jardunbide egoki horietan oinarrituta, Udalak adierazi duenez. Proiektu europarrak 1,8 milioi euroko aurrekontua du, eta Arrasateko Udalak ia 165.000 euro bideratuko ditu ekimenera lau urtean.

Gobernantza ereduak hizpide SHREC proiektuari esker Udalaren ordenantzetan egindako

"OBREN GAINENKOTZ, HOBARI OSO POTENTEAK JARRI DITUGU"

M.UBARRETXENA, ARRASATEKO ALKATEA

zenbait aldatetaz jardun zuen alkateak eguaztenean topaketa ireki zuen gobernantza ereduaren inguruko saioan: "Orain arte ez zen posible baserrietan plaka fotovoltaikoak instalatzea teila-tuetan, ordenantzak ez zuten hori baimentzen, eta, adibidez, aldaketa hori egin dugu, baimentzeko; beste adibide bat, esate baterako, obren gaineko zergeetan-eta, hobari oso potenteak jarri ditugu, baldin eta berriztagarrien arloko osagaiak instalatzen badituzte".

Aldundiko Ingurumeneko zuzendari Monica Pedreirak, berriz, berriki onartutako 2050era begirako Gipuzkoako Jasangarritasun Energetikoaren Estrategia izan zuen hizpide; eta, tartean,

"AUTOKONTSUMOAZ, BIDESARIAK DESAGERTU EGITEN DIRA"

M.PEDREIRA, INGURUMEN ZUZENDARIA

herritarrentzako komunitate eta kooperatiba energetikoak. Gaur egun, bi daude martxan, Zumarragan eta Larraulen, eta Aldundiak aurreikusten du, ingurumen onuraz gain, herritarrek, batez beste, urtean 590 euro aurrezteko argindar fakturretan: "Energia berriztagarriaren eta autokontsumoaren bidez lortzen da hori. Oso instalazio sinpleak dira, udalekin lankidetzan egiten ditugunak; sabai publikoak laga eta herritarren esku uzten dituzte, eta komunitate energetiko bat sortzen da horrela. Herritarrek ordaintzen duten fakturaren zati handi bat bidesari deritzenak dira; autokontsumoarekin, kontzeptu hori desagertu egiten da".

Energiaren Euskal Erakunde-ko zuzendari Iñigo Ansolak, azkenik, gero eta aerosorgailu eta eguzki plaka gehiago jarri beharrez jardun zuen. Horiek ingurumenean duten inpaktua onartuta, onura ere aintzat hartu beharra nabarmendu zuen, eta berriztagarrien azpiegiturak nekazaritzarekin eta abeltzaintzarekin bateragarri egin ahal izateko erronka aipatu. Izapide administratiboak arindu beharrez ere baziharduen: "Europatik bertatik datorkigun agindua da ahalegin berezia egin behar dela prozedura administratiboak murrizteko. Zergatik? Helburu oso garrantzitsuak jarri dira, epe motz batean. Ikusi besterik ez dago Europa osoan nolako menpekotasuna dugu, energia arloan, beste herrialde batzuekiko, Ukrainako inbasioaren ondoren agerian geratu den modura".

Lehen bi egunetako askotariko saioen ostean –Ekiola ekimena ere izan zuten hizpide, besteak beste–, azpiegitura energetikoak ezagutzera ziren joatekoak gaur topaketako parte-hartzaileak.

Arrasateko Udalarekin batera, gaia lantzeko hark sortutako taldean dihardute Debagoiena 2030 ekimenak, Mankomunitateak, Fagor Taldeak, Goienerekin, H-enea Living Labek, Ikerlanek eta Mondragon Unibertsitateak ere.

"AHALEGINDU BEHAR DUGU PROZEDURA ADMINISTRATIBOAK MURRIZTEN"

IÑIGO ANSOLA, EEE-KO ZUZENDARIA

Beste bost greba egun egin dituzte Aita Menniko langileek

Apirilaren 21a eta 25a artekoekin, 28 greba egun dituzte dagoeneko, ELAk deituta: "Lanaldi partziala duten langile ugari, lan kargak gero eta handiagoak dira eta errotazio handia dago, langileek eurek Osakidetza jotzea erabakitzen dutelako lan baldintza hobeen bila". Horrek guztiak pazienteen arretan eragina daukala diote.

Hazilan-en izena emateko aukera badago oraindik

Goi mailako heziketa ziklo bat edo unibertsitate ikasketak dituzten eta lan esperientzia esanguratsurik ez duten 20 eta 44 urte bitarteko pertsonen zuzendutako laneratze programa da. Tailer teoriko-praktikoa (80 ordu) du, batetik, eta praktikaldia, bestetik. Maiatzean da hastekoa edizio berria. Informazioa: hazilan@debagoiena.eus.

MUKo, InGroupeko eta Ulmako hizlariak ISEaren jardunaldian

Enpresa-zerbitzu aurreratueta-ko berrikuntzan diharduen ISEA kooperatibak *Digitalizazioa, pertsonen kudeaketa estrategikoaren esparruan* jardunaldia egingo du eguaztenean Garaiko egoitzan, 10:30ean. Enpresagintzako ikerlari Begoña Etxaburu, InGroupeko Pilar Romero eta Ulma Packagingeko Iratxe Lezeta izango dira hizlariak.

Elikagai bilketa egingo du Gipuzkoako Elikagaien Bankuak

Gipuzkoako Elikagaien Bankuaren bilketa hurrengo astean izango da, hilak 6 eta 7, egubakoitz eta zapatuz. Ohi bezala, "behar handiena duten pertsonen laguntzera" bideratuko dute jasotakoa. Oinarritzko elikagaien bilketa ez ezik, laguntza bonoak ere izango dira aukeran. Eroski, Super Amara eta BM supermerkatuetan egingo da kanpaina.

MGEP

MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA
JOSE MARIA ARIZMENDIARRIETA 5.COOP

Goi Mailako HEZIKETA ZIKLOAK 2022-2023



Aritz Agirre Galdos (Oñati)

Eskaintza akademikoa

Ate irekien jardunaldia

- Automatizazioa eta Robotika Industrialia
- Sareko Informatika Sistemen Administrazioa
- Fabrikazio Mekanikoko Diseinua
- Fabrikazio Mekanikoko Produktzioaren Programazioa
- Mekatronika Industrialia

Maiatzak 7 11:00

www.mondragon.edu/lanbideheziketa • onarpena.lhm@mondragon.edu
664 298 704 • 664 298 683

Zergatik animatu zinen goi mailako heziketa ziklo bat egitera?

Industria munduan sartu nahi nuen, baina hasieran ez neukan garbi zer ikasi. Ingeniaritzak eta goi mailako zikloak begiratzen hasi nintzen, eta, MGEPko goi mailako heziketa zikloko ate irekietara joan ondoren, argi ikusi nuen Automatizazio eta Robotika Industrialeko goi mailako zikloa ikasi nahi nuela.

Bertan ikusi nuenaren arabera, goi mailako zikloek ni bilatzen ari nintzen praktikasun dimentsio handiagoa eskaintzen zidaten, eta hori zen momentu hartan nik behar nuena. Automatizazio eta Robotika Industrialeko goi mailako zikloa bukatu ondoren, goi mailako beste ziklo bat egitea erabaki nuen, Mekatronika Industrialia; orain ikasten ari naizen titulua, hain zuzen ere.

Zergatik MGEP?

MGEP gomendatu zidaten, familian eta lagun artean, enprekin duten loturagatik, bereziki. Nik, berriz, argi neukan DUAL aukera nahi nuela.

Heziketa ziklo hauetan ETHAZI metodologia aktiboarekin lan egiten duzue; hau da, talde-lanean erronkak eginez funtzio profesionalak lantzen dituzue. Zer-nolako erronkak egin dituzue?

Taldeetan hainbat erronka egin ditugu. Makina muntatzea eta desmuntatzea, robota, zulagailua eta abar, teorian ikasitakoa praktikan jarritz. Esperientzia oso ona izan da, eta, atzera begira, ez naiz damutzen hartutako erabakiez.

DUALa egiten ari zara? Non?

ULMA Packagingen nabil, DUALean. Muntaketa lanak egiten ditut bertan, eta oso gustura nabil. Lankideek oso ondo hartu naute. Normalean, nire kabuz ibiltzen naiz lanean, baina edozein zalantza edo laguntza behar dudanean beti daude laguntzeko prest. Lehenengo egunetan, erabiliko ditugun NBEak banatu zizkiguten eta LAPari buruzko eta orgei buruzko prestakuntza saioak jaso ditut bertan.

ULMA Packagingen makinak muntaketak egiten dira. Gure arloan, proiektuaren arabera, makinak muntaketa desberdinak egiten dira. Instruktoarek lana banatzen du, eta lan banaketaren arabera muntaketa bat edo beste bat egiten dugu. Ez baduzu egunean bukatzen, hurrengo egunean jarraitzen duzu.

Enpresan beti ikasten da gehiago, baita lan munduak nola funtzionatzen duen ere. Egiten duzun guztiak du garrantzia, baina onena lasai hartzea da, eta zeure burua presiopean ez jartzea.

Klasean ikasitakoa erabili duzu enpresan?

Bai; zeregin batzuetan, zikloan ikasitakoa praktikan ipini dut, baina beste gauza asko lanean ikasi ditut, lan munduan industria aukerak ugaritu egiten dira eta. Baina daukazu oinarriarekin eta jarrera ona izanda, egoera berrietara moldatzen ikasten da. DUALa oso esperientzia ona izan da. Ez da nire lehenengo lan esperientzia izan, eta aurretik izandakoa baino askoz hobea izan da. Diru sarrera bat izateaz gain, asko ikasten da. Guztiz gomendagarria!

Orain, etorkizun hurbilean, lan munduan murgildu nahi dut, dagoeneko bi ziklo ditut eta.

GEROA  EREIN





ZABALIK

IKER AGIRRE

60 euro

Joan den apirilaren 20an, pandemia bizirik edota ikusgarri mantentzen zuen neurria baliogabetu zuten: musukoaren erabilera barrualdeetan –ez espazio guztietan–. Baina honen eraginak gure barnean errotuta daudela begi-bistakoa da: jendearen sentimenduetan, nekean...

Udaberria iritsi berria da urteko bigarren elurtearekin batera eta jada bitxilorez beteta ditugu inguruko larre eta zelaiak. Udaberriarekin batera bete ditu Korrikak Euskal Herri luze zabaleko errepide zein kaleak. Udaberriko opor txoek ere eguneroko dinamikatik atera eta beste errealitate batzuetan murgiltzeko aukera eskaini digute.

Horren beharra maiz azaltzen da egunerokotasunean topo egiten dugunekin izaten ditugun elkarrizketetan. Topo egin eta gelditzeko tartea hartzen dugunetan, batez ere; hain goaz azkar egunerokoan, parekoa edota ondokoa nola dagoen jakiteko denborarik ere ez dugu ateratzen. Errutinaren

GURE AISIALDIA KANPORA BEGIRAKOA ETA KONTSUMOAN ETA ITXURAKERIAN OINARRITUA DA

erruberak bira ugari ziztu bizian ematen ditu, eta, gure gzorputzak itolarria sentitu arren, errobera horretatik ateratzeko beldur gara, gelditzeko beldur gara, ekoizteari uzteko beldur gara.

Horrela goaz bidean, barneak esaten digunari kasurik egin gabe, gure barruan zer gertatzen ari den jakin gabe, aurrera egitean indarra jarriz, bide horren nolokotasuna zokoratuz. Azken hilabeteetan osasun mentalaz ere hitz egin izan da; bazirudien, pandemia hasieran bezalaxe, kontu honekin ere gauzak aldatzera zihoazela. Baina jendartean oraindik ere oso zabaldua dago depresioa, antsietatea edota bestelako gaixotasun mentalak dituztenak soilik doazela psikologoarenera, garapen pertsonalerako ere aukera paregabe izan daitekeela ahaztuta.

Askotan entzun izan ohi dut psikologoarenera joatea garestia dela, baina goitik behera begiratuta gure *outfit*-aren kontua horren hirukoitza edo laukoitza da eta gure aisialdia kanpora begirakoa eta kontsumoan eta itxurakerian oinarritua da.

60 euro, barrura begira jartzeko.

MARRAZKIZ

ALEX UGALDE



HANDIK ETA HEMENDIK

Belarrondokoa

ARANTXA URRETABIZKAIA

'TTAP'-EN ARGITARATUA

Gure ekintza izan dadila gure hitzaren alaba, idatzi zuen aspaldian Gabriel Arestik eta Oskorrik kantatu.

Asmo zintzoa, txalagarria, baina zaila, guztiz, ahalegin sendo eta luzeak eskatzen dituena.

Hamar aldiz errazago aldatzen ditugu hitzak ekintzak baino. Gutako edonork daki zer egin behar lukeen egoera zehatz baten aurrean; zer egingo dugun, ordea, ez dago hain argi.

Batzuetan, onartzen dugun dotrinaren aurretik

pentsatzen genuen horrek gobernatzen ditu gure ekintzak, errotuagoa dagoelako.

Azken asteotan etengabe aipatu da Will Smithek Oscarren ospakizunean aurkezleari eman zion zaplaztekoa.

Belarrondokoa esaten ziztaion gure etxean.

Askotan entzundako mehatxua, baina memoriak adibide bakarra eskaintzen dit, berandu etxeratzeagatik aitaren eskutik jaso nuen belarrondokoa.

Dударik gabe, aurkezleak nahiz aktoreak, biek ala biek, ezagutzen dute gizonen eta emakumeon arteko eskubide berdintasunaren

dotrinak dioena, ez lukete huts egingo azterketa batean.

Aurkezleak, ordea, txiste matxistak egiten ditu eta aktoreak joera berari ematen dio amore emaztea defenditu behar duela erabakitzen duenean.

Ez dio emazteari bere buruaren defentsa uzten, berdintasunarena ikasi aurretik pentsatzen zuelako emakumeak ahulak garela, geure burua defenditzeko ezgauza, herren gaudela aldamenean gizon bat ez dugunean. Ustezko ahulezia horren alaba da zaplaztekoa.

Ez dugu gizonen defentsarik behar. Aski litzateke gizonen erasoak bukatzea.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Argitaratzailea

Goiena Komunikazio Taldea
Kooparatiba Elkarte
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria

Monika Belastegi.
Zuzendari nagusia
Iban Arantzabal.
Eduki zuzendaria
Eneko Azkarate.

Erredakzio batzordea

Eneko Azkarate, Monika Belastegi, Mirari Altube.

Zuzendari komertziala

Mireia Larrañaga.
Administrazio zuzendaria
Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna

Iñaki Iturbe.

Hizkuntza arduraduna

Sergio Azkarate.

Harpidetza eta banaketa arduraduna

Igone Osinaga.

Sailletako arduradunak

Xabi Urtzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).
Maketazioa
Imanol Soriano, Aitor Lagoma,
Amaia Martinez de Arenaza,
Edurne Arenaza.
Publizitatea
Mireia Larrañaga, Ziortza Martin,
Amaia Mundiñano.

Administrazioa

Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,
Nerea Artola.

HARPIDETZA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
publi@goiena.eus
EGOITZA NAGUSIA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014

ISSN: 2174-369X
Tirada: 19.000 ale
Difusioa: 18.723 ale

Inprimategia:

Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatikoko Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

BERBAGAI

"Harrera etxean askatasuna ematen diegu errefuxiatuei"

AINHOA MURUA GALDAKAOKO BOLUNTARIOEN GIZARTE ELKARTEKO KIDEA

Idoia Aranbarri Arzuaga OÑATI Ukrainako gerrak albiste izaten jarraitzen du, eta, oraindik, asko eta asko dira ihesi datozen ukrainar errefuxiatuak. Euskal Herrira iritsi nahian ari diren horiei harrera egiteko boluntario lanetan ari da Katowicen (Polonia) Ainhoa Murua oñatiarra.

Polonian zaude, Katowice herrian, zuen elkarteak bertan jarri baitu harrera etxea. Zein da zuen egitekoa?

Ostatua eta janaria ematen dizkiegu bertaratzen direnei. Hemen egoten dira lekualdatzeko garraioaren zain. Errefuxiatuei jartzen diegun baldintza bakarra Euskal Herrian kontaktua izatea da: bai harrera familia, baita hemen bizi den euren familiako norbait ere. Hortik aurrera, harrera ematea eta zuzenean Euskal Herrira doan garraioa jartzea da gure lana. Biktimak lasaitzen ere saiatzen gara, bidaiari lasaitasunez egin dezaten.



Ainhoa Murua, Katowiceko harrera etxean. AINHOA MURUA

Euskal Herriko hainbat elkarterekin elkarlanean ari zarete, zubi lana egiten duzue, eta hemengo harrera familiek badute euren senitartekoen berri. Hain zuzen ere, nola egiten duzue kontaktu hori?

Hasieran, elkarteari eskatu genion harrera familien eta errefuxiatuen artean informazioa zabaltzeko. Ukrainako familiei bidali genien gure inguruko informazioa, non geunden eta

nola iritsi zitezkeen jakiteko. Hortaz, familia batzuk zuzenean gurekin jarri dira harremanetan, badakitelako ze lan egiten dugun.

Telefonoak ihesi dabilzanekin zuzenean harremanetan jartzeko aukera ematen dizue.

Bai. Azkeneko, etxetik ateratzen diren unetik eurek dakite euren bidaiaren berri. Esaterako, trena zein ordutan helden den edo noiz iritsiko diren guregana. Horrela, hona heldzeko zehaztapen gehiago emateko aukera daukat, eta arazoak saihesten dira. Nahiz eta nik ukrainar itzultzaile baten laguntza behar izan, lan asko kentzen dit. Bidean jende gehiago badago, zailagoa da.

Nola zeharkatzen dute muga? Zenbat denbora behar izaten dute horra iristeko? Emozionalki, berriz, nola helden dira?

Normalean, autobusez eta trenez datoz. Autobusez etorri gero, guri kontatu digutenez, muga bertan bost ordu eman ditzakete. Badago muga oinez zeharkatu duenik ere. Umeak hona helden direnean, beste haur batzuk ezagutzen dituzte eta jolasean hasten dira, baina helduen kasua ezberdina da. Orain, ez hainbeste, baina hasieran, psikologikoki ukituago helden ziren, familia Ukrainan uzten zutelako.

Badakizu erreperatzea kostatuko zaiela, nahiz eta Euskal Herrian harrera familia eduki.

Sumatu al duzu aldaketarik jaso duzuen errefuxiatu kopuruan Katowicen zaudenetik?

Ni iritsi nintzenean errusiarrak Txernobylen zeuden, eta familian etortzen ziren errefuxiatuak, baina ez asko. Lekua gunean. Baina errusiarrak joan eta astebetara, boom-a izan zen, taldeka etortzen hasi ziren, tropak itzultzeko beldurra baitzeukaten. Neska-mutiko batzuk bakarrik ere helden dira; gehienak, Chernobil elkartetik. Guraso askok ez dute alde egin nahi, eta elkarteak lortu du notario-ahalorde bidez adingabeak taldeetan ateratzea bertatik monitorea batekin.

Harrera gunean zer topatzen dute?

Komun pribatua duen logela eskaintzen diegu, baita lorategia eta animaliak ere. Gehienbat, ordea, askatasuna ematen diegu. Azken finean, zulo batean sartuta egon dira denak gerrarengatik.

Zuek ere harrera familia zarete Oñatin. Zer dakizue zuen Ukrainako seme-alabez?

Mugimenduak egin ditut elkartearekin hitz eginda, eta itxaropentsu nago.

ITURRI ONETIK

Patin hockey talderik onenak Bergaran

20 urtez azpiko nesken Espainiako Patin Hockey Txapelketa jokatu da ekainaren 24an, 25ean eta 26an Bergarako Labegaraieta kiroldegian. Zortzi talde lehiatu dira, Kataluniako, Madrilgo, Valentziako eta Gaztela Leongo talderik onenak, Bergarako Burdinolarekin batera. Burdinola kirol elkarteak antolatu du txapelketa, Bergarako Udalaren laguntzarekin. Jarri eta kentzeko lur-zoru berezia erosi dute -43.000 euroko inbertsioa-.

ALBISTE IZAN ZEN

2013-04-28

Gertatutakoa oroitzeko ekimenak

Asteburuan omendu zituzten, Elgetan, 1937ko apirillean tropa frankisten sarraskiak sufritu zituztenak eta haien senideak. Urteak daroztate Elgetan, Intxorta 1937 elkartearen laguntzarekin, oroimen historikoa berreskuratzeko ekimenak antolatzen. Horietako bat da irudian ikusten den 2013koa: Intxortako frontean, 1936ko gerran gertatutakoaren errekreazio ikusgarria, pirotekniaren laguntzarekin ederto jantzita.



HAU BE BADOGU!

Twitter erosi du Elon Musk aberatsak

Munduko pertsonarik aberatsenak sare soziala erosi du, 40.500 milioi euroren truke:

@gregbensinger: "Elon Muskekin toki beldurgarria izango da Twitter". (Itzulita)

@inkoirarte: "Sare sozial hau Bolibiako estatu kolpea babestu zuen magnateak erosi du. Eta horrela dena..."

@iPatxi: "Twitterretik ateratzea, sortzen dituen harreman sareetatik ateratzea da, sortzen dituen loturetatik. Horra gogoeta interesgarria".

@AneIrazabal: "Egin beharreko lehen gauza Elon Musk, jarri editatzeko botoia!"

Errealitate ilunak argiztatu dituzte

Atzo, eguena, ireki zuten 'Lumineszenteak' erakusketa Kulturateko klaustroan, eta bi astez egongo da ikusgai; munduko hainbat txokotako 63 emakumeren istorioak eta bizipenak jaso dituzte Irantzu Pastor argazkilariak eta Igone Mariezkurrena kazetariak

Eneko Azurmendi ARRASATE

Emakume Txokoak, Arrasateko Udaleko Kultura Sailaren laguntzarekin, *Lumineszenteak* erakusketa ireki du Kulturateko klaustroan. "Emakumeen aurkako indarkeria ikusezinak eta zenbait erresilientzia istorio" jaso dituzte argazkilariak eta kazetariak, izen bereko liburuan: "Hau da, diskurtso nagusietan lekuri ez duten emakumeen bizitza-istorioak eta irudiak".

Azken lau urteotan Palestinan, Indian, Lakota nazioan eta Euskal Herrian bertatik bertara dokumentatutako narrazioak eta material grafikoa dakartza erakusketak. Izan ere, Palestinan egin zuten lehenengo geltokia, eta gero, Indiara egin zuten jauzi. Hirugarren geldialdia Lakota nazioan egin zuten, Ipar Amerikan, eta laugarren eta azken geltokia Euskal Herrian izan da. "Pobretze egoeretan, indarrezko lekualdatze egoeretan, okupazio egoeretan, gerra testuinguru horietan, badira indarkeria mota batzuk. Guk, gainera, ikusezin izendatu ditugun indarkeria horiei, zeharkakoak edo *mikro* izena ere jarri diegu batzuetan, nahiz eta ondorioak lazgarriak izan. Eta, esan bezala, emakumeei eragiten diete, hain justu, emakume izate hutsagatik, emakume izate horrek bere baitan inplikatzan dituen rolagatik, betebeharragatik eta gizarte arau horiengatik", adierazi du Mariezkurrenak.

Ahalik eta argazki osoena erakustea izan da egileen helburuetako bat, "ahalik eta errealitate mosaiko aberatsena osatzea", eta horregatik jo dute lau puntu horietara. "Bagenekielako kontraste handia eragingo zigula lan egiteko moduan, jasoko genuen materialean, isto-



Irantzu Pastor eta Igone Mariezkurrena, liburuarekin, erakusketan.

rioetan eta erretratuetan", gaineratu du kazetariak.

Datuak eta testuinguru osatua

Mariezkurrenak onartu du "hitzez hitz" jaso nahi zuela emakumeek kontatutakoa. "Bestetik, bazeuden baita ere hutsune asko. Banekien emakume hauek kontatutakoa osatu behar nuela datuekin, erreferentzia bibliografikoekin eta abarrekin, askok ez daukatelako diskurtso egituraturik, politikorik eta era kontziente eta ahaldundurik. Hori jantzi behar nuen, eta, bestetik,

zeuden gure bizipenak, gure hausnarketak, gure eztabaidak, gure negarrak, irriak. Inoren ahotan entzun ez genituen gauzak, baina bai ikusi, usaindu, sumatu genituenak. Horiei guztiei ere egin nahi nien erreferentzia. Hiru narratiba desberdin antzematen dira liburuan, hain justu, alde horiek guztiak osatzeko", zehaztu du.

Bidaia "fisikoa eta pertsonala"

Liburuko argazki gutxi batzuetan bi egileak ere agertzen dira, Pastorren esanetan, bientzat



Mariezkurrena eta Pastor, Hija kolektiboko kide batekin, Indian.



Lakota Nazioan lanean (Hego Dakota, AEB), Crazy Horse Memorialaren aurrean.

bidaia "fisikoa zein pertsonala" izan baita. "Gu hor egon gara, gu ginen aditzen ari ginenak eta emakume hauekin hartu-eman hori genuenak. Subjektibotasun hori bera testuan ageri da, eta irudietan ere bildu nahi genuen. Bidaia liburu bat izanik, esperientzia oso bat da; gurea, pertsonala".

Istorio "gogorak eta intimoak"

Mariezkurrenak aitortu du istorio "gogorak" jaso dituztela eta neurtu egin behar izan duela hori. "Esate baterako, kontakizuna iristen zenean oso mutur intimoetara, batez ere sexu gehiegikeriekin zerikusia zuten istorioetan, pentsatu dudanean ez diola ekarpenik egiten kontakizunari eta ideia orokorrari, kanpoan geratu dira parte horiek. Saiatu nintzen, gainera, elkarrizketa egiten nuen bitartean ere hori helarazten

eta ulertarazten solaskideari. Elkarrizketa eta bisitaldi asko itzultzaileen laguntzarekin egin genituen. Hizkuntza falta zitzaidan, eta beste baliabide batzuk erabili behar izan ditut. Niretzat baliagarria izan da koaderno eta boligrafoa erabiltzea, apunteak hartuz adierazten niolako aurrean nuen emakumeari esaten zidan hura ondo apuntatzen ari nintzela. Gehiegizkoa zen mutur batera iritsita, apuntatzeari uzten nion eta hori berehala ulertzen zuten parean nuenak", dio kazetariak.

Pastorrek gaineratu du kontatu dizkieten istorioak, kasu askotan, haien familiakoek eta ingurukoek ere ez zekizkitela. "Bizi izan duten hori lehenengo aldiz berbalizatu dutenean, negarrez aritu dira gehienetan. Bestalde, hori aditzen ari zarenearan errespetuz ari zara eta duintasun hori mantentzea izan

**'LUMINESZENTEAK'
ERAKUSKETA
MAIATZAREN 13RA
ARTE EGONGO DA
IKUSGAI KULTURATEN**

**PALESTINAN, LAKOTA
NAZIOAN, INDIAN ETA
EUSKAL HERRIAN
JASOTAKO BIZIPENAK
DAKARTZA LIBURUAK**



Islam, semea zaintzen, Aida Camp errefuxiatu eremuan (Palestina).



Hijra kolektiboko kide bat, Indian. ARGAZKIAK: IRANTZU PASTOR

da egin behar genuen zerbait. Kontakizunarekin bezala, argazkiekin ere jokabidea berbera izan da. Negarrez hasten zirenean ez nituen argazkiak egiten".

Etxeko errealitatea ere bai

Nabarmendu dute munduko hainbat txokotako errealitateak bai, baina Euskal Herrikoa erakustea ere argi izan dutela hasieratik. "Ez genuen mundua zein gaizki zegoen adierazi nahi, hemen ezer gertatuko ez balitz bezala. Bagenekielako bazeudela ikusezin ziren hainbat emakume eta hainbat egoera. Eta horietako batzuk aipatu ditugu".

Ingurukoentzat argia dira

Proiektuaren izenari dagokionez, azken buruan etorri den zerbait izan dela adierazi dute bi egileek. "Emakume hauek guztiek badute zerbait berdintzen dituen eta, hain justu, da testuinguru, leku, familia eta egoera oso ilunetan jaio eta hazi direla, baina, hala ere, gai izan direla aurre egiteko horri. Eta, gainera, badirela argia ingurukoentzat. Erreferentzia, zentzu batean, eta kemena kutsatzeko gai. Eta hortaz, gustatzen zaigu esatea proiektu hau, izena bera bezala, anibalentea dela", nabarmendu dute. "Testigantza, irudi eta istorio oso gogorak jasotzen ditugu, indarkeriazkoak. Emakumeak biktimak dira, zentzu horretan, baina, batez ere, emakume borrokalaria dira eta beren patua aldatzeko determinazioa duten emakumeak dira. Iluntasunean argia dira".

Esan moduan, bi astez egongo da ikusgai erakusketa, maiatzaren 13ra arte, Kulturateko klastroan. Ordu-tegiari dagokionez, astelehenean zapatura egongo da irekita, 17:30etik 20:30era.

Ekiola kooperatibaren inguruko saio informatiboa martitzenean

Amaia antzokian egingo dute, 18:30ean hasita; izena ere eman ahalko da, bazkietzan lehentasuna izateko

E.A. ARRASATE

Maiatzaren 3an, Ekiola kooperatibaren inguruko hitzaldi informatiboa egingo dute Amaia antzokian, 18:30ean hasita. Kooperatiba horren bitartez, herritarrek eguzki-parke txikien bidez hornituko dira eta kooperatiban parte hartuko dute energia sortzeko eta kudeatzeko.

Arrasateko, Aretxabaletako, Eskoriatzako eta Leintz Gatzagako udalez gain, Fagor Taldearen, Mondragon Taldearen, Debagoiena 2030 sarearen eta Energiaren Euskal Erakundearen

ren babesa du Leintz Bailarako Ekiola Kooperatibak, besteak beste. Hainbat ordezkari proiektuaren inguruko xehetasunak emango dituzte, herritarren zalantzak argitzeaz gain.

Saioa bukatzearekin batera, kooperatiban izena emateko aukera irekiko dute han bertan, izena ematen dutenek lehentasuna izan dezaten irail inguruan zabalduko duten bazkietza kanpainan. Halaber, ohartarazi dute orain izena emateak ez dakarrela inongo konpromisorik; hau da, ez duela ezertara lotzen.

Sei proiektu lehenetsi dituzte arrasatearrek bozketa fasean

Aurrekontu parte-hartzaileetan, hamasei proiekturen artean aukeratu behar zuten herritarrek, eta sei lehenetsi dituzte: Zigarrolako balkoia egokitzea, Santa Barbara parkea hobetzea, *pumptrack* parkea egitea, Aramaio errekararen ondoko bidegorria argizatzea –Alecopetik Markuletera–, bizikletentzako aparkaleku seguruak egitea eta Gipuzkoa etorbideko zebra-bideak argizatzea eta egokitzea.

Orain, proiektuak aukeratu ondoren, horiek gauzatzeko behar diren proiektuak idazteari ekingo dio Udala Gobernuak. "Asmoa da behar diren lan eta obra guztiak aurtan bertan hasia", azaldu du Gobernuak.

OHARRAK

25 dirulaguntza

Udalak deialdia ireki du. *Goiena.eus*-en daude ikusgai.

Ekin Emakumeak

Ikastaroetan izena eman daiteke. *Goiena.eus*-en ikusgai.

Haurren danborrada

Astelehenean egubakoitzera eman ahalko da izena, Kulturoan, SUDCen lokalean.

Musakolako poloak

Datorren astean eskuratu ahal izango dira, Erretiratuen plazan jarriko duten postuan.

Literatura lehiaketa

Maiatzaren 8an bukatuko da lanak aurkezteko epea.

Matrikulazio epea zabalik!

2021-2022 JAIOAKOENTZAT

IZEN EMATEA

Apirilaren 11tik maiatzaren 9ra

ON LINE

www.haureskolak.eus

Zatoz gu ezagutzera
Eskola txikiak,
familia giroan

Arrasateko
Haureskolak



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

EUSKO JAURLARITZA
DEPARTAMENTU BILA

GOBIERNO VASCO
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

MUSAKOLA haureskola
Elkano 8 • Tel.: 943 79 13 03

BEDOÑABE haureskola
Alfontso VIII 1 • Tel.: 943 79 76 86



Arrasateko Nagusien Kontseiluko kideak, eguazteneko ekitaldian. HASIER LARREA

Nagusien ongizatearen aldeko lanean gogotsu

Indartsu jarraitzen du Arrasateko Nagusien Kontseiluak, eta esku artean dituen proiektuak dira horren adibide: nagusiendako eskusiboa litzakeen informazio-gunea eta bizikletan ibiltzen ikasteko ikastaroak. Hitzaldiak ere egingo dituzte

Hasier L./Mireia B. ARRASATE

Arrasateko Nagusien Kontseiluko kideek eten barik dihardute lanean. 2022ko lehen lauhilekoa bukatzean dago, eta aurrerantzean egingo dituzten ekintzen nondik norakoak kontatu dituzte. Adinekoen ongizatea bermadain, haien integrazioa eta eskubideak sustatzeko bidean, askotariko eragileekin elkarlanean jorratuko dituzte aurrera begirakoak.

Bizikletaren garrantzia

Hurrenez hurren, maiatzaren 4an, Real Sociedad Fundazioak babesten duen *Bizikletan adinik ez* proiektuan parte hartuko dute. Bi gurgipen gaineko ibilaldia Aretxabaletatik abiatuko da, eta Arrasateko Nagusien Kontseiluko kideek eguerdian jasoko dute lekukoa, Biteri plazan. Arratsaldean gaiari buruzko hitzaldia egongo da Kulturaten. Ekimenaren filosofia interesgarria irudituta, herrian jarraipena izatea gustatuko li-

tzaieke. "Bat egiten dugu Real Sociedad Fundazioaren ekimenarekin. Askotariko belaunaldiek bat egiteko modua da, gazteenek bultzatzen dituzte-eta trizikloak", esan zuen Pili Aranguren presidentea. Bizikleta baztertu barik, pertsona nagusien bizikletan ibiltzen ikas dezaten ikastaroak ere egin gura dituzte, Arizmendi Ikastolarekin elkarlanean.

Desfibriladoreak, udazkenerako

Ekainetik abendura bitartekoak prestatzen dabilta elkarteko kideak. Irail bukaerarako adineko pertsonen astea antolatuko dutela iragarri dute, iazko esperientzia eta balorazio positiboa lagun. Gainera, 60 urtetik

**IAZKOAK IZANDAKO
ARRAKASTAREN
OSTEAN, IRAILEAN
NAGUSIEN ASTEA
EGITEKO ASMOA DUTE**

gorakoen bizi-kalitatea hobetzeko proposamen ugari egin dizkiote Arrasateko Udalarari. Kalean desfibriladoreak jartzea da horietako bat. Udalaren oniritziarekin, espero dute udazkenerako erabilgarri egongo direla. Egin duten beste eskaera bat nagusiei zuzendutako arreta zerbitzu bat jartzea da. Gaur egun, Biztanleen Arreta Zerbitzura joan ohi dira, baina, diotenez, teknologia berriekin trebatzen laguntzeko bulego espezializatuagoa behar dute, nagusiendako eskusiboa izango zena.

Hiru urte, eta aurrera begira

Aurten, hiru urte beteko ditu Arrasateko Nagusien Kontseiluak. Elkartea sasoitsu dagoela diote, programatzen dituzten ekintzek erantzun ona jasotzen dutelako herritarren partetik. Adinekoek gizarteari egin diezaioketen ekarpena handia eta baliagarria izan daitekeela sinisten dute, eta horretan eragiten jarraitzea da asmoa.

NIRE USTEZ



ENERITZ URRUTIA

Izar berri bat

Bizitzeko jaio gara, amaiera eguna izanik. Hutsune bat inoiz ez da egokia, inoiz ez datorkigu ongi, inoiz ez da atsegin. Ez da atsegina, sentitzen dugunondako eta bizitzen dugunondako. Gutxi hitz egiten da heriotzaren inguruan, zaila da, baina denok biziko dugun zerbait ere bada.

Ereindako landareak, jasotako uztak. Utzitako aletxoak, erakutsitako lanak, sortutako bizipoz guztiak, bizitzeko moduak. Aurrera jarraituko duenak, eta zure hazitik hezitakoak loratzen jarraituko duenak. Gogorra da heriotza, gogorra da bizitza eta gogorra falta eta hutsunea. Langile zorrotz, metodiko, sortzaile, burugogor, errietak eta zure kaxkarkeriak eta petralkeriak. Beti irribarre batekin oroituak ditugu. Zuk hazitako bizi bakoitzak gurekin jarraituko duelako. Orduan konturatzen zara inguruan dituzun arazoak ez direla arazo. Buruko buruhausteen korapiloak desegiten hasi eta eguneko egunean bizitzearen garrantziak. Eskerrik asko guztiarengatik, zure lanarengatik, zure biziraun behararengatik, zure indararengatik... Zure usaina, gure traba.

Hamar hektareako lursaila Bastida akademiarendako

Arrasateko Udalarekin sinatu du hitzarmena, enplegurako prestakuntza ikastaroak antolatu ahal izateko

M.B.M. ARRASATE

Arrasateko Udalak eta Bastida akademiak hiru urterako hitzarmena sinatu dute, eta horri esker, enplegurako prestakuntza ikastaroak antolatuko dituzte. Besteak beste, formakuntza ikastaro berri bi eskainiko ditu: basoen ustiapeneko jarduera osagarriak eta mendiak kontserbatzeko eta berreskuratzeko jarduera osagarriak. Horiek garatu ahal izateko, udalerriko baso-lursailen hamar hektareako azalera utzi dio Udalak; honako eremu hauek: Kurtzetxiki,

Uribitarte, Akegi-San Balerio, Hildagobaso-Antoniña, San Kristobal-Monterron, Anporreta, Lete eta Arteagako lursailak (Garagartza) eta Etzezarreta parkea (Musakola).

Hiru urterako hitzarmen-lagapena Arrasateko Udalaren enplegu eta sustapen ekonomiko estrategiarekin bat egiten duela adierazi dute Udaletik bidalitako oharrean: "Bere eragin eremuan langabeziak duen intzidentzia gutxitzeko ekimen desberdinak sustatzeko aukera ematen digu".

Zuztarrak Errotuz taldearen bi hitzaldi gehiago maiatzean

Idoia Arrietak hasitako Udalerriko Zikloak beste bi geldialdi izango ditu: alde batetik, maiatzaren 4an, Axier Lopezek Elkanoren mundu bira oinarri duen *Ez naiz kolonialista baina...* hitzaldia egingo du; beste alde batetik, maiatzaren 11n, Aitor Pescadorrek *Amaiur 1522-2022* berbaldea egingo du. Biak ala biak, Kulturaten, 19:00etan.

'Tertulixan' hitzaldi eta tailer zikloa Belunen eskutik

Azkenaldian herrian "jende mugimendu txikia" dagoela ohar-tuta, "bai kalean eta baita komertzioetan ere", arrasatearrei zerbait ezberdina eskaini gura die Belunek. Psikologia, autoestimua, ordena eta txukuntasuna, irudia eta nutrizioa izango dituzte hizpide hitzaldietan eta tailerretan. Aurrez eman behar da izena: 943-04 03 20.

Udala jendearen alboan egoteko laguntzaileak

Pandemia garaian sortutako lanpostua da 'herritarren laguntzaile' deritzona, hirietako eredueta oinarritutakoa. Zirkulazioa, kaleko altzarien egoera eta BAZeko zereginak dituzte arduragai nagusi: "Gure ekarpenek kaleen itxura hobetzeko balio dute"

Hasier Larrea ARRASATE

2021eko lehen deialdiari jarraipena emanda, bigarren urtea betetzen ari dira aurten herritarren laguntzaileak. Zehazki, sei arrasatear kontratatu ditu Arrasateko Udalak, urtariletik maiatzera arte. Maria Ubarretxena alkatearen hitzetan, "lana topatzeko zailtasunak dituen kolektiboari aukera emateko" sortu zuten lanpostua, eta balorazio ona egin zuten joan den urteko udan: "Udaleko langileak gustura azaldu ziren, oro har, eta Arrasate Herri Eskolako arduradunak, bereziki, oso eskertuta agertu ziren, eskolan sartu eta irtererako orduan zebra-bideetan zirkulazioa zuzentzen eman zuten zerbitzuagatik".



Leire Barrosok eta Pili Negro, herritarren laguntzaileak, herritar bati entzuten. H.L.

Kalean eta BAZen

Horixe baita lanbide horren eginkizunetako bat, baina ez bakarria. Gehienbat, hiri-altzarien egoera ikuskatzen aritzen dira erdiguneko eta auzoetako kaleetan. "Ea farolaren bat puskatu den edo edukiontzien kanpoaldean zaborrik pilatuta dagoen aztertzen dugu. Batez ere, jendeak etxeko altzariak edukiontzietara eramatean denbora asko igaro daiteke, normalean ez diotelako telefonoz abisatzen brigadari; ba, kasu horietan, guk ematen diogu udal brigadari abisua", azaldu du herritarren laguntzaile Pili Negrok.

Eguraldi kaskarra egiten duenean, lehen ordutik egoten dira adi, gerta daitezkeen arriskuak saihesteko. Euri-zaparrada handiak izaten badira, ibaien ur-emariari begiratzen diote, "ea zenbat zabor jaisten den eta ea uraren joan-etorria tratatzen duen enborrik ba ote dagoen" kontrolatzeko. Izotza egiten duenean, bestalde, tokirik irristakorrenetan gatz pasatzen abisatzen diote udal brigadari.

Biztanleen Arreta Zerbitzuko sarreran ere egoten dira sarri,

2023AN BESTE DEIALDI BAT EGITEKO ASMOA DU UDALAK: "LANPOSTU BALIAGARRIA DA"

jendeari bertan jarri duten makina berri baten funtzionamendua azaltzeko: "Udaletik jasotako fakturen ordainketak egiteko balio du. Askok helbideratuta daukate euren kontu korrantea, baina bada jende nagusia edota atzerritarra ordainketak BAZeko leihatilan egiten dituenak. Ondorioz, ilara luzeak ez sortzeko helburua betetzen du makina honek".

Adineko jendeari fabore

Negroren esanetan, jende nagusia joaten zaie gehien, eta horrek badu zerikusia pandemian bizi izan dutenarekin: "Orain kalera irteteko beldur gutxiago dutenez, nabari dugu entzunak izan nahi dutela, eta arreta eskatzen digute. Funtsean, ondo eta seguru sentitu nahi dute kalean, eta edozein konponketa egiteko gomendioak ematen dizkigute".

Haren lankide Leire Barrosok gehitu du auzoetako bizilagunen eskaera dezente hartzen dituztela aintzat, "pentsatzen dutelako laguntza handiagoa behar dutela auzoetako kaleek, ondo egon daitezen".

Izena emateko baldintzak

Biak bat datoz "esperientzia ona" izaten ari dela baieztatzeke garaian, ikusten baitute euren ekarpenek isla izaten dutela herriko hobekuntzetan. Lanbidea gomendagarria iruditzen zaie, batez ere, "aurrez aurreko tratua ematen ohituta dauden pertsonendako". Uda ostean hirugarren deialdi bat egonez gero, hautagai posibleek Arrasaten sei hilabete baino gehiagor errolatuta, langabezia-egoeran eta Lanbiden izena emanda egon beharko dute, oinarritzko baldintzen artean. Gero, kaleko legediari buruzko azterketa teoriko bat eta elkarrizketa bat egin beharko dute, eta "merituek" ere emango dizkiete puntu gehigarriak; euskara jakiteak eta emakumea izateak, adibidez. Azkenik, lanposturako izendatuek formakuntza jaso beharko dute udaltzainburuaren eskutik.

AGAKO Eguna bihar, hil osoko egitaraua borobiltzeko

Apirilean zehar zazpi egunetan antolatu dute egitaraua gaztetxeko kideek, asanblada-taldeen 31. urteurrena ospatzeko. Joan den zapatu goizean, esaterako, eraikin autogestionatua txukuntzeko auzo-lana egin zuten herriko hainbat eragileekin, eta gauerako, berriz, Aturri, Txakurrak eta Tatzers taldeen kontzertua antolatu zuten.

Gaur, hileko azken ostirala dela kontuan hartuta, Herriko Plazako elkarretaratze batuko dira, 19:30ean, eta 22:00etan, berriz, bertso saio jostaria egingo dute gaztetxean.

Bihar, zapatua, izango da aurten urtemugako egunik bereziena. Murala margotuko dute, 10:30ean, herri bazkari *gaztetxeroa* egingo dute eguerdian –sarrerak *agako.eus*-en-, *karropoteoa* 19:30ean eta Virgin Mary eta Bakailaua Saltsan musikariek girotuko dute gaua.

'Txaski' hedabidearen lehen zenbakia atera du Amerika elkarteak

Triptiko itxurakoa da, hileroko aterako dute eta, oro har, Hego Amerikako etorkinez osatutako komunitateak bizi duen errealitatea lau haizeetara zabaltzea du helburu. Gainera, San Andresko jaiak dira aprobetxatuz, Gudari plazan postu bat jarriko dute asteburuan, hango jakiez, edariez eta dantza egiteko musikaz goza dezaten jendeak.

Sanjuanetako kartel eta lelo lehiaketak, maiatzaren 10era arte

Arrasateko Udalak herriko jai nagusien aurtengo kartel lehiaketan parte hartzeko deialdia ireki du. Debagoieneko edozein herritan errolatutakoek aurkeztu ditzakete lan artistikoak, "teknika librean eta formatu bertikalean". Lanak BAZen entregatu behar dira; lelo lehiaketako proposamenak, berriz, *aed@aedelkarrea.eus* helbidean.

Tailaginen elkarteak ikastaro bat hasiko du martitzenean

Egurra lantzeko oinarritzko eza-gutzak dituztenei zuzenduta dago tailerra. Gehienez, hamar pertsonak eman dezakete izena, eta elkartetik adierazi dute dagoeneko zortzi apuntatu direla: "Horietako bost bazkide berriak dira, duela aste batzuetako has-tapen-ikastaroan aritutakoak". Interesa duenak 628 05 50 84 telefonora de egin dezake.

Festa-giroan murgildu dira San Andresko auzokideak

Atzoko poteo musikatuaren ostean, ekintza ugari izango dituzte gaur arratsaldean Gudari Plazan, eta gauean kontzertuek hartuko dute protagonismoa. Bihar, berriz, puzgarriek, erakustaldiek, tailerrek, herri bazkariak eta zuzeneko musikak girotuko dute eguna eta gaua. Domekan ere egongo da zer egin, txalaparta-tailerra tarteko.



Santiagora, baina ez bidea oinez egitera

Zapatuko garaipenari esker, EBAko multzoan bigarren sailkatu da MU, eta igoera faserako sailkatzeko bidean Galizian dute hurrengo geltokia: lauko finala. Zapatuan (17:30), Leclerc taldearen kontra dute lehen kanporaketa

Xabier Urtzelai ARRASATE

Santiagoko Obradoiro plazara iristea izaten da bidea hasten duten erromesen helburua. Mondragon Unibertsitateko jokalaririk ere Santiagora doaz asteburuan, eta izen bera duen taldea izango dute zain, Obradoiro. Ez da kontrario bakarrik izango, Galiziako multzoko onenarekin batera egongo dira eta Gaztela eta Leongo onenak ere, Leclerc Caja Rural, eta laukoa osatzeko aspaldiko ezagun bat, zapatuan Iturripen 82-77 galdu zuen Baskonia.

Lau talde horien artean onenak -finala domeka eguerdian jokatuko dute- igoera faserako txartela eskuratuko du. Iaz, Saloun jokatu zuten fase hori, eta MU zuzenean sailkatu zen harako. Aurten, baina, erromes bide luzeagoa egin behar dute horra iristeko; esandakoa, Santiagon dute txartela zain.

Zapatuan, Leclerc

Lehenengo kanporaketa Leongo taldearen kontra jokatuko dute moreek (zapatua, 19:30). "Badakit Eneko [Mata] euren partiduren bat edo beste ikusten ibili dela aste barruan. Baina uste dut guk gure partidua egiten badugu ez dugula zertan kontrarioengatik arduratu", dio,



Eneko Mata, bizkarrez, jokalariei berbetan, martitzeneko lan-saioan. X.U.


baikortasunez, taldeko betaranoetako batek, Martin Buesak. Andoni Atxa ere ados dago, baina, multzoko onentsuenak batuko direla jakinda, garbi dauka aurrera egiteko onena eman beharko dutela.

Eneko Mata entrenatzailea ere ildo beretik mintzatu zen zapatuko partidua amaitu berritan: "Igoera fasea oraindik urrundu dago, Lauko finala dugu aurretik, eta posible da aurrera egitea, esperientziadun jokalaririk onak ditugu eta. Baina ez da erraza izango".

Getxon dute neskek lehia


Euskadiko Txapelketan diharduen MUKO nesken taldeak ere partidua garrantzitsua du domekan Getxon (11:30). Lauko finala Iturripera ekarri nahi dute, baina, horretarako, geratzen zaizkien hiru partidua irabazi behar dituzte.

Salouko esperientzia baliatzera




AITZOL LAGUNILLA
MUKO JOKALARIA

"Iaz ez nintzen taldeak Saloun jokatu zuen igoera fasean egon, eta esperientzia hori bizi nahi dut. Oso gogotsu goaz Galiziara, ea lauko finalean igoera faserako sailkatu eta Huelvara-edo bidaia egin dezakegun. Martin, Dani... Esperientziadun jokalaririk ditugu eta halako faseetan hori asko igartzen da".




TXOMIN AIASTUI
MUKO JOKALARIA

"Egia esan, asteburuak oso itxura polita du, ea domekako finalerako sailkatu eta igoera faserara joan gaitzkeen. Zalantza barik, iaz Saloun jokatutako igoera fasea ikasgai handia izan zen, eta baliagarria izango da, halako partidua garrantzitsuak ez dira eta egunero jokatzen. Ilusio handiz goaz Santiagora".



ANDONI ATXA
MUKO JOKALARIA

"Gauza ederra da umetatik etxeko taldean egon, horrenbeste urtez gaztetako lagunekin saskibaloian jokatu eta ostera ere halako faseetan murgilduta egotea. Jakitun gara ez dela erraza izango. Lehenengo egin behar duguna da zapatuko norgehiagokan kontzentratu, eta gero gerokoak".



MARTIN BUESA
MUKO JOKALARIA

"Taldea ondo ikusten dut, ilusioz gaude eta Galiziara goaz pentsatzen lauko finalean aurrera egiteko kapaz garela. Kontrarioekin itsutu barik, uste dut gure neurria ematen badugu eurak direla gutaz arduratu behar dutenak. Iazkoa eta hau ez dira fase berdinak, baina esperientzia badugu horrelakoetan".

ARTk Saran hasiko du ligako 'play-off'-a, zapatuan

Senior mailako taldeak Euskal Ligako txapelketa zein den erabakitzeko play-off-ak hasiko ditu bihar. Hala, joaneko partidua Saran izango dute (zapatua, 16:00). Sarako Izarrarekin batera talde zuri-morearekin lehian izango diren beste bi taldeak dira Elorrio eta Errioxa. Itzulikoa maiatzaren 7an jokatuko dute, Mojatagin (12:00).



Ligako partidu bat, etxean. GOIENA

Mondrate hirugarren dago; bihar, etxean jokatuko dute

Batzarre eta Santurtzi mendean hartu eta gero, Mondratek hirugarren posturaino egin du salto maila nazionalen. Kategorian egiten dabiltean lehen urtean ikusgarri dabilta arrasatearrak. Zapatuan, 17:30ean, Musakolan jokatuko dute hamalagarren postuan dagoen Elorrietakoren kontra. Ligari bost jardunaldi geratzen zaizkio.



Mazarredoren kontra, etxean. GOIENA

Desgaitasuna duten gaztetxoek zuzendutako saioa

Gipuzkoako Futbol Federazioak sustatuta, zapatuan, 12:00etan hasita, desgaitasuna duten gaztetxoek zuzendutako futbol topaketa egingo dute Mojatagin. Lan-saioa haurrei eta gaztetxoek bideratuta egongo da, eta adinaren arabera egokituko dituzte saioak, baita desgaitasunaren arabera ere. Parte hartzerari animatu dituzte herritarrik.

Antzinako doinuekin hasiko da Musikaldia

Iruñean eratutako Ensemble Tylman Susato izeneko laukotearen XVI. eta XVII. mendeetako musika errenazentista eta barrokoak irekiko du udaberrian egin ohi den herri mailako egitarau musikala. Bihar joko dute, 19:30ean, San Frantzisko elizan

Hasier Larrea ARRASATE

Zapatu honetatik maiatzaren 22ra arte iraungo du Arrasateko Udaleko Kultura Sailak antolatzen duen Musikaldiak. Guztira, sei taldek joko dute Kulturateko areto nagusian eta San Frantzisko elizan. Azken agertoki horretan hasiko da musika-zikloa, Ensemble Tylman Susatoren emanaldiarekin.

"Kantuko konsorte misto" bezala definitzen dute taldea Ane Olasok, Alfonso Zocok, Clara de Biurrunek eta Iñaki Amezketak. Iruñeko Ganbera Abesbatza eta ensemble estiloko talde ugari bildu dute esperientzia. Moko-txirulak, ganba-biela, klabea, organo positiboa eta perkusioa jotzen dituzte, eta guztiek egiten dute kantuan. Taldeari jarri dioten izenarekin XVI. mendeko "konpositore handiari" egiten diote erreferentzia: "Kaligrafoa eta Anberesen tronpeta jotzaile aktiboa ere izan zen Tulman Susato, eta musika garrantzitsuko lehen editoriala ezarri zuen haren herrialdean; besteak beste, garaiko hainbat dantzari egin zizkion konponketak".

400 urte atzera

Euren erreperitorioak XVI. eta XVII. mendeetara garraiatuko ditu ikus-entzuleak. Erdi Aroko antzinako musika, errenazentista eta barrokoa interpretatuko dituzte, Dante Alighieri poetaren *Jainkotiar Komedia*-ko *Inferno*, *Purgatorio* eta *Paradiso* atalen birsortze bat eginez: "Labur esanda, gure asmoa da XVI. eta XVII. mendeetako musikaren bidez infernuaren, zigorraren eta bekatuaren ideiak eta *Jainkotiar Komedia*-ko pertsonaia batzuk nola irudikatu ziren erakustea".

Hori horrela, *Inferno* zatiari dagozkien bost konposizio eskainiko dituzte, *Purgatorio*-ari dagozkien beste bost eta *Para-*



Laukotea, ganba-biolarekin, organo positiborekin eta moko-txirularekin. E.T.S.

DANTE ALIGHIERIREN 'JAINKOTIAR KOMEDIA' OBRAKO ATALAK BIRSORTUKO DITU LAUKOTEAK

diso-ri dagozkien sei. Aurreratu dutenez, entzungai egongo dira, besteak beste, *Cold song de King Arthur*, *Domine labia mea aperies* eta *Chacona del Paradiso e dell'Inferno* izeneko antzinako konposizioak.

Ikuskizun "didaktikoa"

Piezak jotzen hasi aurretik, azalpen laburrak emango dituzte, Abilio Echeverria Pagola nafarrak itzultitako Danteren bertso batzuk irakurriz. Era berean, kantu bakoitza dagokion tesuinguruarekin lotuko dute. Gainera, kontzertuan erabilitako musika-tresnak bertatik bertara ikusi ahal izango ditu publikoak bukaeran, baita musikariei galderak egin ere. Modu horretan, "zorroztasun historikoko musika interpretaziotik harago" iritsi nahi dute euren zuzenekoetan.

Hurrengo asteetan datozenak

Ensemble Soinuaren Bidaia (Alberto Urretxo)

- Maiatzaren 7an, 19:30ean, Kulturateko areto nagusian.

Andra Mari Abesbatza

- Maiatzaren 8an, 19:30ean, San Frantzisko elizan.

Arrasate Musikaleko Soka Orkestra

- Maiatzaren 13an, 19:30ean, San Frantzisko elizan.

Piacere dei Traversi

- Maiatzaren 14an, 19:30ean, Kulturateko areto nagusian.

Harribitxi

- Maiatzaren 22an, 19:30ean, Kulturateko areto nagusian.

Udal Bibliotekak rap tailerra antolatu du nerabeentzat

Maiatzaren 6an eta 13an izango dira hitzorduok; gaur, 'HitzArtea Km0' ekitaldia egingo dute Kulturaten

H.L. ARRASATE

Arrasateko Udal Bibliotekak 12 eta 18 urte arteko gazteei zuzendutako ikastaroa jarriko du martxan datorren egubakoitzean Kulturaten, 18:30etik 20:00etara, eta jarraipena emango diote maiatzaren 13an, ordu eta toki berean. Peru Magdalena eta Saroa Bikandi durangarrak izango dira tailerraren dinamizatzaileak. Euren eskutik, nerabeek hip-hop kultura "modu jostagarrian" ezagutuko dute. Ondoren, rap abestiei buruz jardungo dute; zer diren, nondik datozen, hitzak

eta errimak, poesia eta bat-batekotasuna, eta halakoak aztertuko dituzte. Bukatzeko, rap abesti bat idatzi eta grabatuko dute.

Horrez gain, gaur emango diote amaiera Liburuaren Egunaren bueltan ondutako egitarauari; Kulturaten, 19:00etan hasita, Arantza Otaduy, Iker Barandiaran, Eneko Barberena, Maria Osés, Marian Porcel eta Jokin Mitxelena sortzaileek hartuko dute protagonismoa, *HitzArtea Km0* ekimenaren baitan. Informazio gehiago, goiena.eus atarian.

'Bernarda Albaren etxea'-ren moldaketa domekan Amaian

Garcia Lorca dramaturgoaren obrako Adela eta Martirio ahizpetan oinarritu da Naita Produksioak konpainia

H.L. ARRASATE

1936an kokatutako antzezlaneko bi pertsonaia, Adela eta Martirio, hildakoen mundutik itzuli-ko dira Amaia antzokira maiatzaren 1ean, 19:30ean. Nerea Ariznabarretak eta Irene Hernandok gorpuztuko dituzte bi ahizpak, baita gainontzeko protagonistak ere, baina modu berezian. "Adelak eta Martiriok *Adams familia*-ren antzeko estetika daukate; ama Bernarda, amona eta beste ahizpak, oster, objektu sinbolikoekin ordezkatzen ditugu", dio Ariznabarretak.

Funtsean, "euren etxean gertatu zena berriz ez errepikatze-ko" eskatuko diete Amaia antzokira joango diren gazteei eta helduei: "Izan ere, gaur egun, emakumezkoen sexualitateak erreprimittuta jarraitzen du, eta gertatzen dena gertatzen dela, beti neskek daukate errua".

Dramatik alden du gabe, komediari ateak irekitzearen alde egingo dute, "oso esperpentikoak" direlako. Antzeztu ez ezik, zuzeneko musika joko dute bi aktoreek pianoaren bidez, kantu ezagunen bitartez.

Erakusketa artistikoak Kajoi eta Doke tabernetan

Atzo inauguratuta, maiatzaren 30era arte ikusi ahaliko dira Rikardo Azkargorta bergararraren koadroak Laubide plazan dagoen Doke tabernan. Margolariak dozena bat artelan jarri ditu, guztiak Arrasateko alde zaharreko kantoietan oinarritutakoak: "Akuarela teknika erabiliz, saiatu naiz ate historikoak hainbat ikuspuntutatik interpretatzen

eta argiekin eta argi-kontrekin jolasten", aipatu du Azkargortak.

Bestalde, gaur arratsaldean irekiko du Azpeitian bizi den Miren Artetxe artistak Herriko Plazako Kajoi tabernan *Burbuxan* izeneko erakusketa. Artetxek pandemia garaiko "isiltasun eta bakardade sentimenduak" irudikatu ditu galeria horretan; emozioen nahasmenak adierazteko, olio eta paper eta mihise gaineko lan abstraktuak erabili ditu. Artelanok ekainaren 5era arte bisita daitezke.

Kontsumo ohiturez hausnartzeko astea

Beste urte batez egingo dute Lorabari Astea Aramaion. Askotariko hitzaldiak, tailerrak eta ekintzak antolatu dituzte hurrengo egunetarako. Lorabari azoka maiatzaren 14an egingo dute: herriko eta gertuko produktuak egongo dira salgai

Arantzazu Ezkibel Galdos ARAMAIO
Kontsumo gaien eta ohituren inguruan gehiago sakontzeko asmoz, indarberrituta dator Lorabari Astea. Maiatzaren 4tik 14ra bitartean egingo dute. Datorren eguaztanean hasiko dute astea, Adrian Almazan Fisikan lizentziatuak eta Filosofian doktoreak egingo duen hitzaldiarekin. Araba Bizirik! plataformak antolatu duen hitzaldi zikloaren barruan egingo du solasaldia Amazanek, eta, hori aprobetxatuta, Aramaiora ere etorriko da.

Elikadura oinarri duen baina beste esparru batzuetara ere zabalik dagoen ekimena da Lorabari. "Kontsumoaz ari garenean, ez dugu elikaduraz bakarrik berba egiten. Energia ere kontsumitzen dugu, eta baliabide naturalak dira. Beste eremu horietan ere burujabe izateko baliabideak eman nahi ditugu", azaldu du Lorabari Asteko antolatzaile Irati Mujikak. Azken finean, kontsumo ohituren inguruan hausnartzeko astea izaten da Lorabari. "Autonomian eta burujabetzan aukerak eskaini nahi ditugu", gehitu du.

Turismoa aztergai

Kontsumo ohituren inguruan jarraituz, maiatzaren 7an, zapatua, Aimar Uribesalgo oñatiarrak



Herritar bat, iazko azokan, landareei begira. GOIENA

*Peregrino moderno*en oporrak dokumentala aurkeztuko du.

Egun berean, goizean, Andramariko eskailerak txukuntzera joango dira. Duela hiru urte egin zuten dinamikari jarraipena emango diote modu horretan. Familia guztiari zuzendutako ekintza izango da.

Domekan, maiatzaren 8an, basalandare jangarriak ezagutu eta bilduko dituzte Azkoagan egingo duten irteeran, Clara Gutierrezekin. Ondoren, nahi duenak kozinatu eta dastatzeko aukera izango du. Erreserba

egin daiteke aramailurkt@gmail.com helbidean.

Azoka: maiatzaren 14an

Lorabari azoka maiatzaren 14an egingo dute, eta baita Salaberriko agestoirra bisita ere. Horren aurretik, barikuan, maiatzaren 13an, karpa muntatuko dute plazan, 18:00etan. Gainera, ekonomatuko produktuen dastaketa egiteko aukera egongo da. Ekonomatua ezagutzen ez dutenendako aukera polita izango da han izaten dituzten produktuak ezagutzeko.

lles, Elisa Rueda, Loli G. Garcia eta Jose Laconcepcion izango dira poetak. Emanaldia doan izango da.

Hamar urte bete ditu aurten Nazioarteko Poesia Jaialdiak. Ondo errotuta dagoen ekimena da. Hala, errezitaldiez gain, bestelako ekintzak ere antolatu dituzte. *Kristalezko orrialdeak* jardueraren bitartez, ostalaritzako eta merkataritzako erakusleihoak poesiaz idatzi nahi dituzte. Gainera, lau lehiaketa jarri dituzte abian.

Astelehenean, maiatzaren 2an, egingo da poesiaz gozatzeko aukera. Lehenengo hitzordua eskolan izango da, 15:00etan; ondoren, aldiz, herritar guztiei zuzendutako errezitaldia egingo dute Bañera parkean. Rosi Pue-

Poesia jaialdiaz gozatzeko aukera egongo da astelehenean

Lau poetak egingo dute errezitaldia Bañera parkean, astelehenean, 18:00etan; doan izango da emanaldia

A.E.G. ARAMAIO

Poetak maiatzean Nazioarteko Poesia Jaialdia egingo dute maiatzean zehar Gasteizen, baina baita Araba osoan ere. Hainbat herritan egingo dituzte ekintzak; tartean, Aramaion.

"Krisi batean gaude; energia fosilak amaierara iristen ari dira"

ADRIAN ALMAZAN IRAKASLEA ETA IKERLARIA

Aramaion izango da Almazan eguaztanean, 18:30ean, Sastiñan.

Energia krisiaz jardungo duzu. Zein izango da zure hitzaldiaren oinarria?

Araba Bizirik! plataformak *Tapia legea*-ren aurka egingo duen hitzaldi zikloan parte hartuko dut. *Tapia legea* deritzonaren helburua da Araban azpiegitura energetikoak jartzea samurtzea. Batez ere, energia berriztagarri industrial pribatuak. Nire hitzaldia testuinguru horretan kokatu behar da. Krisi batean gaude: bukatu da orain arteko modeloa, energia fosilak amaierara iristen ari dira. Aurkezten diguten alternatibak ere mugak ditu materialari dagokionez. Ezin izango dute energia kontsumo bera bermatu. Nire ustez, oinarrian



KATAKRAK.NET

jarri behar dena transformazio politikoa da, berdintasunera eta justiziarantz bidean.

Kontsumo ereduak aldatu beharko litzateke?

Egungo kontsumo ereduak berriztagarriak ez diren materialak ditu oinarrian: petrolioa, minerala... Kontsumo ereduak aldatu egin behar ditugu. Adibidez, ez diogu jateari utzi behar, baina jan behar dugu gertuko eta eredu agroekologikoan hazitakoak, ez eredu industrialean lortutakoak.

Lorabari Asteko egitaraua

Antolatutako ekitaldiak.

- **Maiatzak 4.** 18:30ean, hitzaldia Sastiñan: *Crisis energetica y de materiales y falsas soluciones*.
- **Maiatzak 7.** 11:00etan, auzolana: Andramariko eskailerak txukundu.
- **Maiatzak 7.** 20:00etan, dokumentala, kultura etxean: *Peregrino moderno*en oporrak.
- **Maiatzak 8.** 10:30ean, Basalandare jangarriak ezagutu eta bildu; 13.30ean, kozinatu eta dastatu.
- **Maiatzak 10.** 18:30ean: *Sistema elektrikoaren oinarriak*.
- **Maiatzak 11.** 17:30ean: Xaboi tailerra, jubilatuen elkartearen.
- **Maiatzak 12.** 18:30ean: hazien ugalketa tailerra, Sastiñan.

Maiatzean egingo dute autodefentsa feminista ikastaroa

Berdintasun Sailak autodefentsa feminista ikastaroa antolatu du maiatzera begira. Bi saio egingo dituzte: maiatzaren 7an eta 14an, zapatuak biak.

Ikastaroan izena eman nahi duenak maiatzaren 5a baino lehen egin beharko du, eguena. Mezua idatzi beharko da berdintasuna@gorbeialdea.eus helbidera.

Ikastaroa 15 urtetik gorakoei zuzenduta dago. Bi saioak Aramaio osoko bilkuren aretoan izango dira, 10:00etatik 14:00etara bitartean. Ikastaroak irauten duen bitartean zaintza zerbitzua behar izanez gero, izena ematekoan adierazi beharko da hori, mezua idaztearekin batera zehaztua zaintza zerbitzuaren beharra.

Gorbeialdeko Kuadrillako Berdintasun Zerbitzuak hainbat ikastaro eta tailer antolatu ditu maiatzerako kuadrillako gaineko herrietan ere.



Oletako kontzejuko lehendakari Tzaitel Aldasoro, herriko tabernako atea zabaltzen. A.E.G.

Oletako tabernako atea zabaltzeko gogoz daude

Martxo amaiera ezkerok itxita dago herriko taberna. Auzoarendako daukan garrantzia kontuan izanda, Kontzejuak lehenbailehen egin nahi du esleipena. 400 euroko alokairua eskatuko dute; eta kontuan izango dute proiektua, esperientzia eta euskara

Arantzazu Ezkibel Galdos ARAMAIO

Oletako Herriko Tabernaren kudeaketaren esleipena egin nahi du Oletako Kontzejuak. Tzaitel Aldasoro, lehendakaria: "Pertsona bat edo batzuk behar ditugu taberna eramateko; izan ere, auzotarren bilgunea da". ALHAOn argitaratuko dute hurrengo egunetan albisteak; behin argitaratuta, 22 egun egongo dira proiektuak aurkezteko. Interesatuek deitu: 658 64 82 44.

Esleipeneko baldintzak izango dira: "Eskatzen duguna da alokairua, 400 eurokoa; horrez gain, baloratuko dugu taberna aurrera eramateko aurkeztutako proiektua, esperientzia eta euskara. Gai ekonomikoa ere badago: alokairua 400 eurotan hasten da, eta prezio horretatik hasita alokairua ze kantitatetara igoko duen izango da puntu hori. Herriak puntu hori ez du baloratuko; bai beste hirurak".

Martxo amaieran itxi zituen atea tabernak, eta ordutik topaleku barik geratu da auzoa.

Biltzeko gunea

"Ulertu behar dugu taberna dela herritarrendako bilgunea", dio Aldasorok. Hori horrela, bilgune barik egotearen eragina azaldu du: "Edozein momentutan jendea dago tabernan, bai oletarrak eta baita kanpotarrak ere. Horrek sorten du nolabaiteko animoa; ez baldin badago tabernarik, animo puntu hori ere ez dago".

Taberna itxita egotea gehitu behar zaio azkeneko bi urteetan bizi izandakoari: "Batez ere, jende nagusia geratu da etxean; azkenaldian, paseatzera eta yoga edo pintura egitera irten dira. Baina betidanik egin izan den karta-jokoa tabernan, adibidez, galdu egin dute azken urteetan.

400 EUROKO ALOKAIKURUA ESKATUKO DUTE, ETA BESTE ZENBAIT IRIZPIDE BALORATUKO DITUZTE

Zain gaude ea berriro ere hartzen dugun erritmo hori". Nabarmendu behar da Oleta Urkiolako parke naturalerako sarbideetako bat dela; horrek eragiten du mendizale eta bisitari asko izatea. Horrez gain, Aldasorok dio aramaioarren eta otxandiarren bilgunea ere badela.

Kontzejua izatea

Aramaioko gainerako auzoekin alderatuta, Oletak badu ezberdintasun bat: "Badugu independentzia puntu bat. Hala ere, ez gara kontzejua %100ean. Hauteskundeak izaten ditugu, eta hortik irtetzen dira kontzejua osatuko duten hiru kideak". 2021eko azaroan egindako hauteskundeetan, Tzaitel Aldasoro, Lander Olazabalaga eta Maitane Beristain izan ziren aukeratutak.

Oletan zenbat bizi diren galdetuta, Aldasorok dio 93 bizilagunek dutela boto eskubidea; eta azkenaldian ume asko jaio direla: "10 urtetik beherako hamabost bat ume ditugu".



2020ko eskolartekoa, Zabolán. GOIENA

Eskolarteko bertsolari txapelketako saio bi, Aramaion

14 eta 18 urte bitarteko hiru kanporaketako bat Aramaion izango da, maiatzaren 6an, udaletxean

A.E.G. ARAMAIO

Arabako haurren eta gaztetxoaren eskolarteko bertsolari txapelketa martxan da. Adinaren arabera, bi taldetan banatuta egingo dituzte saioak: 14 urtetik beherakoena, batetik, eta 14 eta 18 urte bitartekoena, bestetik.

Gaztetxoaren topaketa

14 eta 18 urte bitartekoek hiru kanporaketa izango dituzte, eta ondoren finala. Hiru horietako bat Aramaion izango da; hain zuzen, maiatzaren 6an, barikua. 18:30ean hasita jokatu dute kanporaketa, udaletxean. Iraide

Onaindia, Ane Arexolaleiba, Txomin Abarrategi, Gari Arexolaleiba eta Maddi Agirre izango dira parte hartuko duten bertsolariak. Finala maiatzaren 21ean izango da, Gasteizko Lakua gizarte etxean, 12:00etan.

14 urtetik beherakoak

Txikienean maiatzaren 12ra arte dute lau koplak edo bi bertso idazteko aukera. Eskualde bakoitzean topaketa bat egingo da, eta aukeratutakoek idatzitako abestu beharko dute. Gorbealdeko topaketa Aramaion izango da, maiatzaren 20an.



LOKATZA ZIKLISMO ESKOLA

Beñat Iñarra, gorenean

Aste bukaeran Nafarroako Arroniz herrian jokatu dute lasterketan podiumeko gorenera igo zen Beñat Iñarra Mateo aramaiarra. Kadete mailako lasterketa irabazi zuen, tropeletik ihes egindako talde txoari azken maldan aurre hartuta. Dagoeneko bi garaipen lortu ditu Iñarrak denboraldian: Beasaingoa eta Arronizkoa.

Metodo nordikoa, adinekoei laguntzeko

AtxabaltaMugi programaren barruan, Finlandiatik datorren metodo berritzaile baten bitartez, 70 urtetik gorako pertsonen indarra, mugikortasun gaitasuna, artikulazioen koordinazioa, oreka eta erresistentzia hobetzeko egitasmoa jarri dute martxan

Imanol Beloki ARETXABALETA

AtxabaltaMugi programak, Finlandiatik datorren teknologia berritzaile baten bitartez, 70 urtetik gorako herritarrekin jarduera fisiko eta kirolaren orientazio zerbitzuetan aitzindaria den ekimen bat abiarazi du. *David Health Solutions* metodo nordikoari esker, pertsonaren bizkarrezurraren funtzionaltasun muskulu-eskeletikoaren diagnostia egingo da, eta bertatik abiatuta banakako programak garatuko dira, norbanakoaren indarra, mugikortasuna, artikulazioen koordinazioa, oreka eta erresistentzia hobetzeko.

Bizkarrezurraren diagnostia

Teknologia berritzaile honen xehetasunak eman zituen, eguaztenean egindako saio praktikoko batean, AtxabaltaMugiko arduradunak, Athlon enpresako Maialen Alkortak: "Erabiltzaileen bizkarrezurraren diagnostiko funtzional bat egingo dugu; hau da, neurketa bat egiten da haien bizkarrezurrak nolako indar eta zein mugikortasun duen ezagutzeko, eta, hori oinarri, banakako programa bat planteatuko dugu, hamabi saiotan banatzen dena, hobekuntza horiek bilatzeko. Behin amaitzean, beste



Metodo berritzailearen saio praktikokoaren aurkezpenean. IMANOL BELOKI

neurketa bat egingo dugu, konparatzeko eta emaitzak ikusteko".

Aktibotasuna sustatzen

Saio praktikokoan eta metodo berritzailearen aurkezpenean, Koldo Zubillaga Aretxabaletako Kirol zinegotzia ere izan zen, eta, AtxabaltaMugiren egitasmo berriaz gain, programaren helburuak zeintzuk diren ere adierazi du: "Aretxabaleta dinamikoagoa izatea eta herritarrek osasuntsuagoak izatea edo bihurtzea da helburua, eta baita sedentarismoa geldiaraztea. Kasu

honetan, adineko pertsonetan zentratu gara, eta haien bizikaltate hoberrantz pauso bat ematea da asmoa".


Asier Mujika Aretxabaletako Kirol teknikariak, bestalde, gaineratu du AtxabaltaMugi proiektuan lan ildo ezberdinak jarraitu direla. "Kasu honetan, adineko jendeari bideratuta dago, eta esan beharra dago makineria hau guztiau ezarrita zegoela. Inbertsio hau Athlonekoekin egin dute, eta, makineria hau izanda, baliabide horiek aprobetxatu ditugu".

Zer moduz ari zara makina hauekin?



TXARO URIARTE
ATXABALTAMUGIKO KIDEA

"Astean behin etortzen naiz makina hauekin ariketak egitera. Oraingoan, hiru makinatan aritu naiz soilik, eta uste dut onuragarria izango dela. Batez ere, bizkarrean eragiten dute, eta nik bizkarra, behintzat, ondo dut; bestelakoak, aldiz...".



LURDES AJURIA
ATXABALTAMUGIKO KIDEA

"Nahiko ondo ari naiz hemengo makinetan, nahiz eta ez dudan oraindik hobekuntza handirik igarri. Denbora gutxi daramat, bost edo sei saio, eta goiz da zerbait esateko; ikusiko dugu, baina guk zer dakigu, ba, ia 80 urterekin!".

Loreen hilabetea alai hasteko ekintza asko maiatzaren 4an

Goiena komunitatea

Basotxo / ARETXABALETA

Basotxon elkartuko gara, 10:30ean, kafe bat hartzeko, kontu-kontari egoteko, eta nahi duenak abestu egingo du elkarreko kantu taldeko kideen laguntzarekin. Gero, Aretxabaletako Ikasbide garatzen ari den *Bizikletaz adinik ez* programak bere trizikloak erakutsiko dizkigu, eta gonbidatuko gaitu ibilaldira bat egitera bere *kalesen* gainean. Udaletik datorren jarduera bat da, gonbidapen bat guretzako, eta gure interesekin erabat bat datorrena.

Ikasbideko ikaslea pedalei eragiten joango da, atzean bi adineko daramatzala. Eroso bidaiatzeko prestatuta daude, pertsonaren egoera fisiko edozein izanda ere: erosotasuna eta segurtasuna bermatuta, lasai paseatzen, taximetrorik gabe, esfortzurik egin gabe, lehen bizikletei esaten genien bezala, *asto* baten gainean turistak bezala.

Etxebizitzaren alokairura zuzenduta, laguntzak eskatzeko epea irekita

Gazteen emantzipazioa errazteko helburuarekin etxebizitzaren alokairua ordaintzeko dirulaguntzen programa bat jarri du abian Aretxabaletako Udalak. 18 eta 35 urte bitarteko gazteei zuzendutako ekimena da, eta 2022ko aurrekontuan 30.000 euroko partida bideratuko dute; eskaerak egiteko azken eguna urriaren 30a da.



ANDRA MARI
ASESORIA / AHOLKULARITZA

*Etorri eta
lagunduko
dizugu*

2021eko errenta kanpaina

Aholku pertsonalizatua



Sareko hainbat kide eta Urkuluko birarekin bat egingo duten beste hainbat ekimena aurkezten. MIRARI ALTUBE

"Konponbidearen alde" Urkuluri bira ematera

Aretxabaleko Sareko kideek herritarrak gonbidatu dituzte urtegiari buelta ematera maiatzaren 7an; Izan Bidea ekimenari ekarpena egin gura diote, eta 1.000 kilometro egin norberak hautatzen duen moduan: oinez, lasterka, patinetean edo bizikletan

Mirari Altube ARETXABALETA

"Beste espesxe politika baten alde Aretxabalean dagoen adostasuna" irudikatze aldera, Urkulu urtegiari bira ematera gonbidatu dituzte herritarrak Sareko kideek. Maiatzaren 7an izango da, zapatua, 10:30ean abiatuta hegaztien begiratokitik. Ekimenarekin bat egiten dutenek taldeetan banatuta emango diote bira, eta hori egiteko hainbat modu aukeran izanik: oinez, patinetean edo bizikletan.

Lege arruntak aplikatzea

Aretxabaleko Sareko kide Txarli Garciak ekimenaren helburua azaldu du: "Euskal presoei oraindik aplikatzen zaien sal-

buespen legedia bertan behera uztea eskatuko dugu. Azken hilabeteetan eman dira aurre-rapauso batzuk, bereziki, urrun-tze politikari dagokionez, baina, zoritxarrez, oraindik graduen progresioaren kontua edo presoei dagozkien irteera baimen berezien gaia gelditi daude. Ildo horretatik, guk aldarrikatuko dugu euskal presoei lege arruntak aplikatzea gainerako presoei legez eta haien eskubideak bermatzea". Foro Sozialak jasotako datu batzuk eman gura izan ditu, esandakoa berretsiz: azken hilabeteetan 76 irteera baimen ukatu; bigarren gradutik hirugarrenera progresioa tantaka eta gutxi; eta hirugarren gra-

duaren erregresioa –kalean egon eta berriro espesxeratzea–.

Gari Garcia, bigarren graduan

Zaballan dagoen Gari Garcia Arrieta ere izango dute gogoan: "Picassentetik etorri zen orain dela hamasei hilabete. Ordutik, bigarren graduan dago, baina ez du aldaketarik izan haren egoerak, nahiz eta baldintza guztiak bete, irteera-baimen bereziak eskuratzeko, esaterako".

Hala, "konponbidearen alde" 1.000 kilometro egitea da erronka, Izan Bidea ekimenari ekarpena eginez. Horretarako, izena alde aurretik ematea eskatu dute honako helbidera idatzita: aretxabaletakosare@gmail.com.

Leixargarateko aterpetxea, 50. urteurrena ospatzeko gertu

Bihar, zapatua, izango da festa, eta txalapartariak, bertsolariak eta musikak bat egingo dute bertan

M.A. ARETXABALETA

Leixargarateko aterpetxea 1971ko irailaren 5ean zabaldu zuten UDAk eta Arrasateko Besaide Mendi Taldeak elkarrekin. Urteurrenako ospakizuna atzeratu beharrean izan baziren ere, iritsi da, eta bihar, zapatua, aterpetxean bertan elkartuko dira Lekaixoka bertso eskolako kideak, txalapartariak eta musikariak, besteak beste. Erakusketak txiki bat jarriko dute eta Besaideko presidente izandako Alvaro Arregi Otaduk sasoi hartako kontu batzuk ekarriko ditu gogora. 10:30etik 12:00etara bitartean izango da hori guztia eta mokadutxo ere eskainiko dute.

Ezagutzera ematea

Aterpetxea ezagutzera ematea ere bada ospakizunaren helburua. "Merezi du aterpetxeak,



Leixargarateko aterpetxea. UDA

zainduta eta egoera onean dagoelako. Aste bukaera batzuk dagoeneko beteta daude, baina ez guztiak; gainera, egun-pasak egiteko ere leku aproposa da", adierazi du Iñaki San Migelek, aterpetxearen ardura duen Murruxoko kideak.

UDaren futbol campusean izena emateko epea zabalik

Aurten ere ez du hutsik egingo futbolari eskainitako *Geroa sortuz* campusak; oraingoan, 2010 eta 2013 urte bitartean jaiotako neska-mutikoei bideratu diete UDAko kideek. Uztaileko hiru astetan, 4tik 22ra bitartean, eskainiko dute, Ibarra futbol zelaietan, eta egun osoko jarduna izango da, 09:00etatik 17:00etara, bazkariak barne. Elkartetik

adierazi dute futbola ardatz izan arren beste kirol eta aisialdi jarduerak batzuek ere izango dutela lekua, ohi legez, eta irteerak ere egingo dituztela.

Izena emateko epea dagoeneko zabaldu dute, eta horretarako, honako helbide honetan sartu eta galdetegi bat bete behar da: <https://labur.eus/udalekua-k2022UDA>; azken eguna ekainaren 23a izango da. Argibide gehiagorako, UDAko kudeatzailearengana jo daiteke: Ainara Muga: 659 79 44 65.



RPS: 83/19



ORTODONTZIA IKUSEZINA

DURANA HORTZ KLINIKAN BERRIKUNTZAREN ALDEKO APUSTUA EGITEN DUGU.

ZURE IRRIBARREA HOBETU AHAL IZANGO DUZU INORK IGARRI GABE.

DURANA KALEA 22 • ARETXABALETA • TEL.: 943 79 93 55

"Besteari on egitea da zoriontasunaren gakoa"

DABID AGIRRE UNZUETA IDAZLEA

'Guía del camino Ignaciano' saiakera liburua aurkeztu du aste honetan, eta zoriontasunaren bila norberak egin beharreko bidaiaren gaineko gakoa jaso ditu hor

Mirari Altube ARETXABALETA

Hirugarren liburua argitaratu berri du Dabid Agirrek (Aretxabaleta, 1964) Europa Ediciones argitaletxearekin: *Guía del camino Ignaciano. Un camino por la justicia social*. Eskuratu gura duenak Kioskoan izango du.

Ignaziotar bidea du oinarri liburua, ezta?

Bai, baina ez da ibilaldi turistiko bat proposatzen. Erromes gisa Ignazio Loiolakoak egindako bidearen lehenengo zatia jasotzen du Ignaziotar bideak: 27 etapa, hain zuzen ere. Eta, horiez gain, beste sei etapa ere gehitu ditut nik, atsedean hartzeko eta pentsatzeko. Hala, azken etapa horietan jasotako esperientzia ezberdinak proposatzen ditut zoriontasuna lortzeko.

Hortaz, oinezko ibilaldia eta barrura egin beharrekoa eskutik doaz?

Norbera barrura begira jarri eta egin beharreko bidea da nik proposatutakoa; barne hausnarketa oinarri hartuta beste pertsona bat izatera iristea helburu izanik, pertsona hobea.

Pandemia dela-eta autoikaskuntza liburua ugaritu egin dira.

Nik jasotako ibilbidea Ignaziok orain dela 500 urte egindakoan dago oinarrituta, eta haren pentsaeran; hortaz, ez da moda kontua. Pertsonak, bere osota-



Dabid Agirre, liburua esku artean duela. MIRARI ALTUBE

sunean, hobetzeko prozesuan egindako bidea da.

Zoriontasuna benetan lortzerik badago?

Ignaziok esandakoetan oinarrituz gero, zoriontasuna lortzeko bidea da umiltasuna eta besteei zerbitzu ematea. Beste aldean egongo lirake boterea, dirua eta besteak baino gehiago sentitzea. Hortaz, laburbilduz eta haren ikuspegitik, besteari on egitea da norberaren zoriontasuna lortzeko gakoa.

XVI. mendeko pentsaera horrek gaur egun ere balio du?

Gizartea asko aldatu da, baina pentsamoldea ez.

Zuk zeuk egin duzu Ignaziotar bidea?

Etapa guztiak jarraian ez ditut egin, baina leku guztietan egon naiz, eta bakoitzak dituen onurak eta gabeziak ezagutzen ditut; hori ere islatu gura izan dut.

Aurreko liburu biak eleberririk izan dira eta hau saiakera; gusturago zeinek?

Azken honekin, zalantza barik. Idazteko denbora gehiago izan dut oraingoan, lasaitasun handiagoa eta barnean dudana gehiago atera dut.



Oihu! taldea komentuan, Korrikaren bueltan egindako kontzertuan. OIHU!

Kurtzebarri institutuko oholtza gertu dago bertako taldeendako

Ikastetxearen 25. urteurrenaren baitan, herriko eta inguruetakoko sei taldek kontzertua eskainiko dute bihar

M.A. ARETXABALETA

25. urteurrena ospatzen dabil Kurtzebarri BHI 2021-2022ko ikasturtean, eta oraingoan, musikari egingo diote lekua. Aretxabaletako eta Arrasateko hainbat gaztek osatutako taldeek kontzertua emango dute bihar, zapatua, Herriko Plazan.

Sei kontzertu

Wood Strings, Korda Rota, Eten, Oihu eta Libertad Condicional taldeak izango dira oholtzan, bereziki rock doinuak eskaintzeko. Eta Peio Uribebarriak eta Irene Ruiz de Austriak doinu akustikoak ere eroango dituzte. Hain zuzen ere, horiek emango diete hasiera kontzertuei, 18:00etan, eta azkenek, Libertad Condicional arrasatearrek, 23:00etan ekingo diote emanaldiari. Talde horietako partaide asko ikastetxeko ikasleak eta ikasle ohiak dira.

Sariak lehiaketan irabazleei

Egun horretan, gainera, Tiktok eta orri markatzaile lehiaketan irabazleei sariak banatuko dizkiete Batera guraso elkarteak kideek. Tiktokeko irabazleak izan dira: Rap sailean, Nora Berezibar, Udane Unamuno eta June Arrate; Bertsoak sailean, Aratz Perez, Iradi Melgar, Izaro Urkia eta Nahia Pasamar; eta Dantzak sailean, June Fernandez eta Naia Gonzalez. Orri markatzailei dagokionez, hemen txapeldunak: Eider Cabero, Amairu Isasmendi eta Izar Zuazo.

Bazkaria, hilaren 21ean

Bestalde, maiatzaren 21ean bazkaria egingo dute pilotalekuan; 25. urteotan institutuaren komunitatea osatu duten ikasleak, gurasoak eta irakasleak elkartuko dira. Txartelak aurrez erosi behar dira, ikastetxean; azken eguna maiatzaren 16a da.

Liburuen berri emateko azoka

Herriko idazleek Herriko Plazara atera zituzten liburuak eguaztenean, Liburuaren Nazioarteko Egunaren harira. Orain arte idatzitakoak erakutsi eta saldu zituzten, eta, bereziki, azken hilabeteotan argitaratutakoak. Luis Jose Errasti, Dabid Agirre, Judit Ruiz de Munain, Gema Iñiguez, Josune Murgoitio eta Xabier Oianguren elkartu ziren.



Oianguren, Errasti, Agirre, Ruiz de Munain, Iñiguez eta Murgoitio liburuekin. M.A.

Argazkigintza ikastaroan oraindik eman daiteke izena

Argazkigintza digitalean oinarrituko ezagutzak jasotzeko ikastaroa antolatu du Udalak, eta Ivan Valle Carrasco argazkilariak eskainiko du. Guztira, 30 ordu teoriko-praktiko emango ditu, martitzen eta eguenetan, eta lehen saioa maiatzaren 10ean izango da. Oraindik badago lekua; hortaz, interesatuek Arkupera jo dezatela izena ematera.

OHARRAK

Bilera, jaiei begira

Atxabaltako Gazte Mugimenduak *Andramaixak birsortzen* bilera deitu du gaurko, egubakoitza; 18:00etan da, udaletxe zaharrean.

Antzerkia

Lehendakari gaia antzezlanaren eskainiko dute Iker Galartza eta Zuhaitz Gurrutxaga aktore ezagunek Arkupen, zapatuan (19:00); sarrera, 10 euro.



Atxorrotzeko Egun baten ospakizunean ateratako erretratuan, jendetza. GOIENA

Domekan ospatuko da Atxorrotzeko Eguna

Urtero moduan, Atxorrotzeko Eguna maiatzeko lehenengo domekan ospatuko da; izan ere, azkenengo bi urteetan pandemiagatik ospatu barik egon ondoren, mendiko botak jantzi eta Eskoriatzako mendira igotzeko tartea hartuko dute herritarrek

Imanol Beloki Unamuno **ESKORIATZA** Atxorrotzeko Eguneko jaiak 09:00etan hasiko da, eta, hain zuzen ere, Eskoriatzako txistulariek diana joko dute herrian zehar, eskoriatzarrak doinu alaiekin esnatzeko. Ondoren, norberak ikusiko du zein ordutan abiatu Atxorrotzerantz, eta horretarako bide ezberdinak erabiliko dituzte eskoriatzarrek. Batzuek herrigunetik Bolibar elizatera igo eta Atxorrospek gora egingo dute eta beste batzuk leku berera iritsiko dira; handik gora, baina, kasu honetan, zementuzko bidea hartuta. Zapatei baserri albotik gora ere igotzeko aukera dago, eta baita, Leintz Gatzagatik abiatuta, Uxar zeharkatuz. Horrekin batera, mendi buelta ederra eman ostean Atxorrotxera iritsiko direnak ere egongo dira, seguru.

11:00etan, meza izango da, urtero moduan, Atxorrotzeko haitzaren gainean dagoen XVI. mendeko Gurutze Santuaren ermitan. Hori horrela, kanpai

hotsik ere ez da faltako goiz osoan; ohiturak dioen moduan, bertako kanpaiak joz gero, ekaitzak uxatzen baitira.

Karpan jana eta edana

Herrigunetik tontorrera igotzen direnentzat, goiz osoan zehar taberna ere egongo da Atxorrotxetan; izan ere, urtero moduan, karpa jarriko dute bertan, eta nahi duenak aukera izango du mokadutxo bat jateko eta zerbeit edateko. Bertan batutako dirua, beti bezala, Eskoriatzako Atxorrotx gobernuz kanpoko erakundeak dituen proiektuetarako bideratuko da.

Bertaraten direnek, gainera, Atxorrotzeko eremuan urteetan egindako indusketa arkeologi-

GAUARGI TALDEAREN EMANALDIA IZANGO DA, 18:00ETAN, FERNANDO ESKORIATZA PLAZAN

koen emaitzak ikusi ahal izango dituzte; hau da, Atxorrotzeko gazteluaren arrastoak. Haurrek hain gustuko duten kobazulotik alde batetik bestera pasatzeko tartea ere hartu ahaliko dute txikienean, eta Gurutze Santuaren ermitako haitz gainera zein paretora igotzeko aprobetxatu ahal izango dute herritarrek, Eskoriatzako paisaia ederraz disfrutatzen.

Gauargiren erromeria

Arratsaldean, herrigunetan, Fernando Eskoriatza plazan jarraituko du jai giroak, eta 18:00etan, Gauargi taldearen musikarekin dantzarako tartea egongo da.

Amaia Txintxurreta, Laura Cantarino eta Asier Castro musikariak igoko dira oholtza gainera. Txikiak nahiz nagusiagoek dantzan ondo pasatzeko aukera izango dute; betiko euskal kantuak, euskaratutako bestelako kantu dantzagarri batzuk eta askotariko koreografiak eskainiko dizkiete bertaraten direnei.

Soriara joango dira Olazar erretiratuen elkarteko kideak

Maiatzaren 13tik 15era egingo duten txangorako izena emateko aukera dagoela jakinarazi dute

I.B. ESKORIATZA

Barrualde gehienetan maskara derrigorrezkoa ez dela kontuan hartuta, Olazar erretiratuen elkarteko kideek asteburu-pasa antolatuko dute Soriara, eta maiatzeko bigarren asteburuan joango dira. Erretiratuek antolatutako hitzorduetatik gustukoena artean dago bidaiatzea, eta, pandemiak oztopatuta zenbait irteera bertan behera geratu ostean, bidaia antolatzea animatu dira.

Duero ibaia sortzen den eremua, Vinuesa herria eta abar

bisitatuko dituzte, besteak beste; hori guztiori, gidari batek lagunduta. "Maiatzaren 13an aterako gara, egubakoitzean, eta domekan bueltatu. Autobusaren gehienezko plaza kopurua 50 lagunekoa da, eta hamabost edo hogeit hamar lagunentzat lekua dago oraindik. Ea elkartekideak animatzen diren eta plaza guztiak betetzen ditugun", jakinarazi du Jasone Orbegozok, Olazar erretiratuen elkarteko kideak. Informazio gehiago nahi duenak Olazar erretiratuen elkarteko lokalean galdetu dezake.

Emozioen garrantziaz jardungo du Donna Apellanizek

Arauk eta mugak familian, nola ezarri era asertibo batean hitzaldia eskaini zuen Donna Apellanizek, terapeuta emozional sistematikoaren eta adimen emozionalaren hezitzaileak, eguaztenean, kultur etxean. Lehenengo saioa gaztelaraz izan zen, eta bigarren saioa ekainaren 8an izango da, ordu eta leku berean. Kasu honetan, emozioen

garrantziaren inguruan hitz egingo du, euskarazko saioan.

Gipuzkoako Foru Aldundiak sustatutako Treba Gurasoak programaren barruan antolatutako hitzaldiak haurren eta nerabeen bizi-kalitatea eta aukerak hobetzea eta gurasoak hezkuntza gaitasunetan prestatzea izan zuen helburu. Harreman afektibo osasuntsu, babesle eta errotarrek sustatzeaz gain, errutinetan eta ohituretan egituratutako hezkuntza-ingurunea sortzeko asmoarekin.



NIRE USTEZ

ITSASO ERRARTE

Haizea

Kalean dantzan plastikozko poltsa hutsak, tabernetako serbilleta karratutxo txikitxoekin, firin-faran. Txoritxoak txioka, auto bat, egoiliarak pasian, lasaitasuna, bakea. Lartxo aukeran? Ez aspertzeko, zer egunotan? Kukuak "ku-ku". Txanponik ez, baina, patrikan! Zer ekarri etorkizunak? Inflazioak gora, gasolina zerutik, goi-goian... Lainoak ere goian. Denborek aldaketak denbora gutxian! Asperdurak, isiltasun pittin batek kalterik ez, agian. Bat-batean, agudo demonio, hots marrantatuan, land-roverra, deskapotable eran! Lau lagun, arimak haizean, zoriontasuna begi barrean. Kukuak "ku-ku". Gogora, *txorro-morro* zein 10 zentimoko flashak. Paseatzea, bizikletaz, gauez gorde-gordeka ibiltzea, kontzertu, antzezlan, magia doinuez gozatzea... Sormena? Jentilen eran "gureak egin jok"? Ez, aukeran. Ideia-zaparradak. Hara, badoa land-roverra hegan! Ui, ttantakatxoa sudurrean irrist. Euritan, zorionsu, dantzan, zulo zein haize non-nahi izan. Umorea, alaitasuna, sorpresa lagun, jaiegunak, bizitza, egunez egun atseginez aurrerantz gozatuz. Gure ortzadar orainak gris, orlegi ala ilun, irriz, bizi-bizirik, alai, "ku-ku"-ka, kantuka, *dis-dis!*

Literatura Juntaixen, proposamen ugari

Liburuaren Nazioarteko Egunaren bueltan antolatutako ekitaldia gaur, egubakoitza, 18:30ean izango da Zaldibar antzokian. Oholtza gainera igotzera animatuko diren lau herritarrek zenbait libururen pasarteak irakurriko dituzte, musikaz lagundutako saioan

Imanol Beloki Unamuno ESKORIATZA Aurreko edizioetako formatuak funtzionatu duela ikusita, modu berean egingo dute Literatura Juntaixeren aurtengo edizioa, Arantxa Unzueta Eskoriatzako Kultura teknikariak adierazi duenez: "Literatura Juntaixe ekitaldi bat da, literaturazaleak liburuen eta musikaren artean elkartzeko, eta jendaurrean haiek irakurritakoa elkarbanatzen dute".

Euskaraz idatzitako liburuak zein gazteleraz idatzitakoak proposatuko dizkiete oholtza gainera igotzen diren irakurleek Zaldibar antzokian batzen diren herritarrei. Hala, liburu ederren artean bildurik, irakurketak partekatuzeko ekitaldia Dorleta Kortazarrek gidatuko du, eta irakurleak, berriz, Miren Diaz de Gereñu, Esther Kortazar, Loli Muñoz eta Dorleta Lezeta izango dira. Sarrera doan izango da, antzokiaren edukiera bete arte.



Literatura Juntaixeren aurreko edizio batean, Zaldibar antzokia beteta. GOIENA

Diaz de Gereñuren aukeraketa Miren Diaz de Gereñu eskoriatzarrak, esaterako, bi liburu eramango ditu Zaldibar antzokira, eta horien nondik norakoak eskainiko dizkie herritarrei: "Bi liburu eramango ditut,

eta horiek proposatu. Batetik, David Seifer idazlearen lan bat aukeratu dut. Modu barregarrian idazten du, jatorra da, adeitsua, gaitasun asko ditu...; etxerako moduko gizona da idazteko moduagatik. Nik, nor-

malean, gazteleraz irakurtzen ditut liburuak, eta horregatik aukeratu dut gazteleraz idatzitako liburu bat. Horrez gain, nire irakurtzeko erritmoekin bat etortzen da poesia, eta Joan Mari Irigoienen poesia bat nuen aukeratuta, baina aldatzea erabaki dut azken unean. Izan ere, Aste Santuko oporraldiaren aurretik Mikel Etxaburu izan zen Eskoriatzan liburuak aurkezten, eta haren azken laneko zati batzuk irakurriko ditut sarrera moduan Literatura Juntaixen".

Horrekin batera, gainontzeko partaideen proposamenak entzuteko gogoz dagoela gaineratu du Diaz de Gereñuk. Aurreko edizioetan gertatu zaion moduan, entzundako proposamenek beti pizten diotela irakurtzeko gogoak adierazi du: "Ez dakit zein irakurketa proposamen egingo dituzten gainontzeko irakurleek, baina ni erakarri egiten naute besteen proposamenek".

Literatura eta musika

Irakurketak girotzen eta, bide batez, ekitaldi berezia osatzen ariko diren musikariak Beñat Arrieta eta Gari Barandiaran eskoriatzarrak izango dira. Besteak beste, Katamalo, Ken7 eta Ibil Bedi taldeen kantuak eskainiko dituzte, biek gitarra erabilita. "Bigarren urtez hartuko dute parte Arrietak eta Barandiaranek ekitaldi honetan. Aukeratu dituzten kantuek litera-

turarekin zerikusia izango dute, gainera; olerki baten oinarrituta daudelako edo liburu bati erreferentzia egiten diotelako zenbait kasutan", dio Unzuetak.

Gaineratu du ekitaldi berezia izaten dela, eta literaturazale guztiei egin die gonbita bertaratzeko: "Sekula irakurriko ez zenukeen liburuen berri izan dezakezu, eta zer irakurri ez dakiten horientzat hitzordu paregabea dela esango nuke".

Dinamikoa eta goxoa

Joan den urtean egindako ekitaldiaren bide beretik antolatu dutela hitzordua adierazi du saioa gidatzen ariko den Dorleta Kortazarrek: "Lau pertsonak aukeratu dituzten liburuez ariko gara berbetan. Haien literatura zaletasunari buruz galderaren bat egingo diet sarrera moduan, tertulia formatuan. Ondoren, zergatik aukeratu duten liburu hori azaltzeko eskatuko diet, eta amaitzeko, gonbidatu bakoitzak liburuaren pasarte bat irakurriko du. Hau guztia musikarekin tartekatuta izango da, eta oso giro goxoa, atsegina eta gertukoa sortzen saiatuko gara denon artean".

LITERATURAZALEEK EUREN GOMENDIOAK ESKAINIKO DIZKIETE HERRITARREI ZALDIBAR ANTZOKIAN

Larrain dantza ikastaroa maiatzean, Ferixa egunerako

Astelehenero, ekainera arte, eskainiko dira saioak, doan, eta ikasi gura duten herritar guztiei irekita

I.B. ESKORIATZA

Eskoriatzan euskal dantzen aldeko ekimen indartsua jarri gura dute martxan zenbait herritarrek. Zehazki, larrain dantza berreskuratu nahi dute. "Izan ere, Eskoriatzako lehenengo Euskal Jai Egunean eta bailarako dantzari egun batean egin zen dantza hau herritarren aurrean, eta, orduan izandako arrakastaz gogoratuta, herriko plaza dantzan jarri nahi dugu berriz", adierazi dute Eskoriatzako euskal dantzazaleak. Interesa pizten bada, ekaineko

lehenengo zapatuan izango den Ferixa eguneko programazioan tokia egingo diete, eta ikusizuna prestatzeko ikastaroa maiatzeko astelehen guztietan izango da.

Nafarroa hegoaldeko dantza herrikoia da larrain dantza eta plazaren bueltan zapi erabiliz dantzatzen da, bikoteka. Dultzainaren eta atabalaren doinuekin egiten da dantza, eta iraupen nahiko luzea du, ordu laurden inguru. Bi zati ditu: plazaren bueltan bueltaka egiten den kalejira itxurakoa, lehenbizi, eta

amaieran, bikoteka elkarri begira bi lerrotan egiten den zatia.

Saioak astelehenero

Larrain dantza ikasteko lau saioko ikastaroa Oihane Vicente dantza irakasleak eskainiko du, eta 20:00etatik 21:00etara bitartean egingo da, pilotalekuan. Egitasmoa bultzatu dutenek eta dantza egin gura dutenek azpimarratu dute doako ikastaroa izango dela eta lehenengo hiru saioak praktikoak izango direla, eta laugarrena, berriz, entsegu orokorra; hala, dantza dakitenak azken saiora bakarrik joan daitezke. Hala ere, ondo antolatuko, 636 78 59 71 telefono zenbakira idatzi edo deitu beharko da. Ferixa egunean ondo irtenez gero, herriko jaietako Euskal Jai Egunean ere dantza egiteko asmoa agertu dute.

Azokak: loreena eta landareena eta bigarren eskuko gauzena

Zapatu goizean jarriko dituzte bi azokak Fernando Eskoriatza plazan; goizetik eguerdira bitartean

I.B. ESKORIATZA

Zapatu honetan bi azoka izango dira Eskoriatzan ikusgai: bate-tik, *Loratu* loreen eta landareen azoka izango da; eta, bestetik, bigarren eskuko azoka jarriko du nahi duenak.

Lore eta landare azoka iaz ere egin zen, Ibarraundi museoko eraikin aurrean, eta aurten, berriz, Fernando Eskoriatza plazan jartzea erabaki dute, herrigunera gerturatuzko. Usurbilgo Urtineak Loreek jarriko dituzte postuak, eta, besteak beste, geranioak, surfiniak, liliak

eta begoniak ikusi eta erosteko aukera izango dute herritarrek. 10:00etatik 14:00etara bitartean izango da lore eta landare azoka irekita, eta, gainera, Axtroki merkataritza elkartearen dendetan erosita, txartelak lortu daitezke landareak doan hartzeko.

Bigarren eskuko azokari dagokionez, berriz, liburuak, diskoak, arropa, altzariak, jostailuak, kirol materiala... mugarik gabeko azoka izango da. Helburua berrerrabiltzea da, eta egoera onean dauden gauza horiei guztiei irteera ematea.

Ligako azken txanpan, derbi erabakigarria

Areto futboleko erregionaleko bigarren mailako Ingou Coinbroker Aloña talde oñatiarra sailkapeneko bigarren postuan dago eta Eskoriatza, berriz, hamabigarren postuan. Liga amaitzeko bi partiduren faltan, bi taldeak daude garaipen beharrean

Imanol Beloki Unamuno ESKORIATZA Gipuzkoako lehiaketan, areto futboleko erregionaleko bigarren mailan denboraldi amaiera zaila dute aurretik bailarako Ingou Coinbroker Aloña eta Eskoriatza taldeek. Derbia jokatu dute gaur, egubakoitza, 22:30ean, Manuel Muñoz kiroldegian, eta, denboraldia amaitzeko bi jardunaldiren faltan, garaipen beharrean daude bi taldeak. Oñatiarrak, sailkapeneko bigarren postuan mantentzeko eta mailaz igotzeko; eta Eskoriatzak, berriz, mailari eusteko eta hirugarren maila probintzialera ez jaisteko.

Elvis Callauak eta Oier Gamboak gidatzen dute Eskoriatzako taldea, eta esperantzaz daude Ingou Coinbroker Aloña taldearen aurkako derbia irabazteko. Hala adierazi du Gamboak: "Gaurko partidua bigarren postuan dagoen taldearen aurka dugu, etxean, eta hurrengo eta denboraldiko azkenengo partidua Lazkao liderraren aurka, etxetik kanpo. Ondo prestatu gara bietan garaipena lortzeko, eta ez dugu esperantzarik galtzen. Joaneko partiduan galdu egin genuen oñatiarren aurka, baina lan oso ona eginda; beraz, oraingo irabazi dezakegula uste dut; izan ere, astean zehar lan-saio



Eskoriatzak aste honetako entrenamenduan ateratako talde argazkia. ESKORIATZA KE

politza egin dugu eta derbia ondo prestatu dugu".

Talde berria, errotzen

Eskoriatzako taldea osatzen duten jokalarien erdiak gazte mailakoak dira eta beste erdiak, iaz senior mailan aritutakoak. Hala, talde berria da, batetik, eta, horrekin batera, denboraldi gorabeheratsua izan dutela azpimarratu du Gamboak, bestetik: "Taldea errotzeko bidean gaude oraindik, eta urrats sendoak egin ditugu, baina oraindik lan asko dugu egiteko. Lesio asko

izan ditugu denboraldi honetan, eta kontuan hartu behar da gure jokalaria nagusienak 23 urte dituela; ligako gainontzeko jokalaririk gehienak nagusiagoak dira. Maila gogorra da, duda barik".

Liderra aurkari, haien etxean

Denboraldiko azken partidua liderraren kontra, Lazkaoaren aurka, jokatu du Eskoriatzak. Etxetik kanpo jokatu dute, eta, hori lagungarria ez den arren, lazkaotarrek igoera lortu dutenez ez dute ezer galtzeko ezta irabaztekorik ere.

Aresko saskibaloia campusa, aurreikusi baino hobeto

'Aresko non stop' campuseko bi txandak arrakastatsua izan direla adierazi dute antolatzaileek

I.B. ESKORIATZA

Aste Santuan bi txanda izan ditu Eskoriatzako Kirol Elkarrekin antolatutako Aresko saskibaloia campusa: lehenengo txanda apirilaren 11tik 13ra izan da eta bigarrena, berriz,

apirilaren 19tik 22ra. Antolatzaileek balorazio positiboa jaso dute bi txandetan aritu diren parte hartzaileen partetik, eta hasiera batean ezarritako helburuak bete dituztela azpimarratu dute: gaztetxoek sas-

kibaloira gerturatzea eta kirola eginez ondo pasatzea.

"28 neskatila aritu dira campuseko bi txandetan, eta oso pozik gaude, ikasteko gogo handiz etorri direlako. Gainera, June Guenetxea Araski taldean debuta egin berri duen eta gaztetxoaren erreferentziatzko jokalaria denaren laguntza izan dut, besteak beste; beraz, ederto. Hala, balorazio bikaina egin dugu", adierazi du Zuhaitz Gonzalezek, Aresko campuseko koordinatzaileak.



Gatz Museoa egindako bisita batean. GOIENA

Hirukoiztu egin da turista kopurua museoan, oporraldian

EAEko eta Espainia mailako bisitariek gain, atzeritarren bisita ere izan dute Leintz Gatzagako Gatz Museoa

Imanol Beloki Unamuno GATZAGA

Leintz Gatzagako Gatz Museoko bisita gidatuek gora egiten dute urtero Aste Santuko eta Pazko asteko oporraldian. Aurten ere horrela izan da, eta ohiko aste-buru batean izaten duten bisita kopurua hirukoiztu egin da azken asteburuan. Batez ere, Euskal Autonomia Erkidegoko hiriburu-tako bisitariak izan dituzte, kataluniarrak eta madrildarrak, eta baita Herbehereetatik etorritako turista taldea.

Aitor Larrañaga Leintz Gatzagako Gatz Museoko arduraduna "pozik" agertu da Gatz Museoa

bertan eta herrian izan duten turista kopuruarekin. "Ez ditugu bisitari guztiak kontabilizatu, baina harrera oso ona izan dugu. Izan ditugun bisitak, gainera, ez dira izan museo bisitatu eta listo, gatzaren salmenta ere ona izan da".

Aurrera begirakoak finkatzen

Oporraldiko bisiten balorazioa egiten dihardute Gatz Museoa, eta horrekin batera aurrera begirakoak antolatzen hasi nahi dutela adierazi du Larrañagak: "Uda parterakoak prestatzen hasiko gara orain".



SARA SALTERAIN

Salteraindarrak, herria ezagutzen

Montevideoko eta Bizkaiko salteraindarrak Leintz Gatzagan batu ziren, haien arbasoen jaioterria ezagutzeko. Juanito Bengoa eta Eugenio Otsoa udal ordezkariak herriko txokoak erakutsi zizkieten eta egun-pasa ederra egin zuten. Argazkian, Dorletako Santutegia ikusi ostean sarreran ateratako erretratua.

Larramendiko Arnasa, azken nobedadeek itota

Paper-fabriketako hondakinak kudeatzeko plantari Jaurlaritzak ingurumen baimena eman izanak "kezka, haserre eta mina" eragin du proiektuaren kontrako taldearengan, eta "errautegiaren ondorio larriez" kontzientziatzeko hainbat ekintza iragarri dituzte

Jokin Bereziartua BERGARA

Nobedade esanguratsuak izan dira azken asteotan paper-fabriketako hondakinak tratatzeko Larramendiko plantaren bueltan. Apirilaren 19an bidalitako prentsa oharrean, Elxeko (Alacant) Greene Waste to Energy enpresak –Larramendiko planta eraiki nahi duen Valogreene Paper BC enpresaren atzean dagoena– adierazi zuen Bergaran planta berria eraikitzeke Eusko Jaurlaritzaren "baimenak" eta proiektuaren "bideragarritasun tekniko-ekonomikoa" jaso dituela. 20 milioi euroko inbertsioa dute aurreikusita Larramendi industrialdeko H partzelarako, eta lanak "datozen hilabeteetan" hasiko dituztela azaldu dute.

Larramendiko Arnasa, haserre Azken nobedade horien aurrean, "urduri, haserre eta minduta" daude Larramendiko Arnasa taldeko kideak. Bilera irekia deitu zuten martitzenerako San Juan auzoko ermitan, euren ustez "ondorio larriak" ekarriko dituen "errautestia" eraiki ez dadin ahalik eta indar gehien batzeko. "Urduri gaude, ikusten dugulako hau aurrera doala. Gure eskuetan dagoen guztia egingo dugu proiektua geratzeko, baina ez diogu irtenbide onik



Larramendiko Arnasa taldeak deitutako bilera, San Juango ermitan. J. BEREZIARTUA

ikusten. Eusko Jaurlaritzak oso argi dauka aurrera egin nahi duela, eurek dute zartagina kiritenetik helduta. Jaurlaritzarekin minduta gaude, ez digute kasurik egin". Diotenez, bergararrak eta inguruko herritarrek ez dira kontziente etorriko denaz: "Gaia irten zenean kezka bazegoen, baina sentsazioa daukagu jendeak uste duela ez dela egingo, eta ez da horrela. Proiektua aurrera doa, eta laguntza behar dugu ahalik eta indar gehien metatzeko. Bailarako eragileez harago, gazteengana ere heldu nahi

dugu; alegazioak eta prestatzerakoan ohartu gara gazteak ez direla etorri, guk gerturatu behar izan dugula haiengana".

Bergaraz harago eragin nahi

Askotariko ekintzak egingo dituzte. Eguen arratsaldetan mahai informatiboak jarriko dituzte Irala kalean, pankartak jarriko dituzte Bergaran eta inguruko herrietan –plantak eragingo zituena isurketak eta bestelako datuak iragarri nahi dituzte–, sare sozialetan zabaltzeko bideo bat ere egingo dute eta ekaina-

ren 19rako manifestazio bat dute aurreikusita. Martitzenerako bilera azpimarratzen zuten, besteak beste, Bergaraz kanpo ere eragin beharra dagoela, isurketek eragingo dituzten usteko kalteek Bergara gaudituko dutelako. Adierazi dute, aldi berean, martitzenero San Juango ermitan elkartuko direla proiektuari jarraipena egiteko eta herritar oro dagoela gonbidatuta bilera horietan parte hartzera.

Enpresak dio baimenak badituela

Planta eraikitzeke beharrezkoak zituen baimenak lortu dituztela ulertuta, joan den astean iragarri zuen Valogreene Paper BC enpresak plantarako obrak "datozen hilabeteotan" hasi nahi dituztela. Diotenez, "ekonomia zirkularrean oinarritutako proiektu aitzindaria" izango da eta inbertsioa 20 milioi eurokoa litzateke, guztira zuzeneko eta zeharkako 45 lanpostu sortuz. Era berean, gaineratu dute proiektuak ahalbideratuko duela urtean 122.000 tona material zabortegira ez botatzea.

Udalak, errekurtsioa jarrita

Hain zuzen, obra lizentzia eskatuta du enpresak Udalean, baina Udala ez dago ados Jaurlaritzak ingurumen baimen bateratua eman izanarekin, eta errekurtsioa jarrita dauka. Alegazioetan, Udalak zioen Plan Orokorrek ez duela jasotzen hondakinaren kudeaketarako azpiegitura erabilera, eta, beraz, ez dago Larramendiko H partzelarako onartuta.

Bestetik, Udalak dio hondakinaren kudeaketaren erabilera ere ez dela bateragarria, erabilera osagarri bezala onartuta dagoelako, baina ez erabilera nagusi bezala. Udaletik salatu

dute, era berean, Valogreenek erantzun orokorrak eman zizkiela eurek egindako galdera zehatzei eta gaineratu dute arlo juridikotik ere gertuko jarraipena egingo dietela etorriko diren urratsei.

Ingurumena zaintzeko plana

Eusko Jaurlaritzaren arabera, ingurumen administrazioari buruzko legean ezarritako "autosufizientzia eta hurbiltasun-printzipioak" aplikatuko dira Larramendin. Ohar bidez zehaztu du Valogreene enpresak "ingurumena zaintzeko plan bat" aurkeztu beharko duela, eta bertan, kontrolatu beharrek parametroak, parametro bakoitzerako erreferentzia-mailak, analisisien edo neurketen maiztasuna edota laginketa- eta analisi-teknikak –eta laginketa-puntuak kokapen zehatza– azaldu beharko dituztela. Horrez gain, Jaurlaritzaren arabera, analisi gehiago ere egin beharko dira jarduna neurtzeko.

Enpresak hori guztia aurkeztuko balu, Jaurlaritzak dio instalazioa legediaren esparruan egongo litzatekeela, ur isurketa, airera egindako emisio, zarata eta hondakinaren inguruko baldintzei dagokienez. Ingurumen Sailetik gaineratu dutenez, baimen bateratua emanda ere, instalazioa eraikitzen hasteko beharrezkoak diren lanak hasi baino lehen Udalaren obra baimena lortzea beharrezkoa izango da.

BAIMENAK BADITUELA ULERTUTA, ENPRESAK DATOZEN HILABETEOTAN HASI NAHI DITU OBRAK

Asteburua ekitaldiz beteta Elorregiko San Prudentzio jaietan

Umeendako jolasak, kontzertua, bertso bazkaria, mendi ibilaldia eta pilota partiduak izango dituzte, besteak beste

J.B. BERGARA

Bailarako elkargune garrantzitsuenetako bat da Elorregi, herritar gehienendako San Prudentzio edo *Sanpru* izenez ezaguna den auzoa. Ofizialki Bergarako auzoa bada ere, arrasa-

tearren eta oñatiarren topaleku ere bada (Ikus 2. orria). Hala, bi urteren osteko etenaldiaren ostean, bueltan datoz Elorregiko San Prudentzio jaiak. Egitarauari eguaztenean ekin zioten, garbiketa lanetarako auzolan bate-

kin, makalaren jasotzearekin eta jaiari hasiera emateko afariarekin. Atzo, meza eta auzo afaria izan zuten. Gaur, Txatxilipurdiren eskutik umeendako jolasak izango dituzte Sanprubusaren inguruan (16:30) eta kontzertua ere egongo da Alkartasuna elkartean (19:00).

Bertso bazkaria, mendi buelta...

Bihar, hilak 30, bertsolariak lagundutako auzo bazkaria egingo dute Alkartasuna elkartean (14:30), eta, bazkaldu ostean,

herri kirolak egingo dituzte: kaskarak batzea, sokatira, zinta lasterketa... Ondoren, bazkaritik sobratzen denarekin afaria egingo dute, 20:30 bueltan.

Domekan, jaietako azken egunean, auzoa eta inguruak ezaugutzeko mendi ibilaldia egingo dute (10:00); meza ere egongo da, elizan (10:30); ondoren, pilota partiduak ere izango dira auzoko frontoi estalian (11:30); eta amaitzeko, eguerdi aldera salda eta txorizo egosia dastatzeko aukera egongo da.

Erroten Eguna maiatzaren 8an, hainbat ekintzarekin

Gipuzkoako Erroten Eguna ospatuko da maiatzaren 8an Bergaran, eta badira astean zehar egingo diren beste ekitaldi batzuk: maiatzaren 3an, *Bergarako errota* hitzaldia egingo du Patxi Larrañagak Seminarixoan (19:00); eta hilaren 7an, bisita gidatua egingo dute San Juango Narbaizabolua eta Elortzabolua erroretara, 11:00etan eta 12:00etan.



Talde argazkia, Jokin Oregi Sor2 eta Mikel Larrañaga Remak ilustratzaileek Khady Ndong-en omenez egindako muralaren aurrean.



Oso ezaguna den borroka senegaldarra ere probatu zuten, bertako borrokalariekin.

"Bihotza beteta" itzuli dira etxera

Ndank Ndank elkartearen ekimenari eta Diputazioaren finantzaketari esker, Bergarako eta Beasaingo lagun talde batek hamabi egun igaro ditu Dionewarren (Senegal); arrastoa utzi du bidaiak, diotenez: "Aberasgarria izan da, oso une politikak eta hunkigarriak egon dira"

Jokin Bereziartua BERGARA

Ndank Ndank elkartearen ekimenez eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren finantzaketari esker, nekez ahaztuko duten esperientzia bizi izan du Bergarako eta Beasaingo lagun talde batek Senegalen. Udaberriko edozein oporraldi baino askoz emankorragoa izan den hamabi eguneko egonaldia egin dute Dionewarren, Sine Saloum deltako herri arrantzalean. Elkarbizitza eta kulturartekotasun programaren barruan, Senegalgo gazte batzuk Bergara eta Debagoiena ezagu-

tzera etorri ziren iazko azaroan, eta udaberriko oporraldia baliatu dute Ndank Ndank elkartearekin alderantzizko bidea egiteko.

Oso egun emankorrak

Denetarik egin dute Dionewarren igarotako hamabi egunetan. "Elkarbizitzako partaideek komunitatearen eskutik ezagutu ahal izan dituzte uhartearen ezaugarri naturalak, sozialak eta kulturalak. Zaldiz eta piraguetan txangoak egin dituzte; eskuz arrantzatuta dute; emakumeen kooperatiba, eskolak eta

klinika ezagutu dituzte; herriko borrokalariekin ezagutu dute bertan oso ezaguna den borroka modalitatea; joan den abenduan inauguratu zen kultura eremuan auzolanean aritu dira, pneumatikoekin bankuak eta loreontziak eginez, zuhaitzak landatuz eta umeendako jolasak eginez kristalezko botilekin eta maskorrek. Horrez gain, migrazioaren gaiaren inguruan hausnartzeko zine-foruma ere izan dugu. Horrez gain, Ndank Ndank elkarteak hamar urtetan han burutu dituen proiektuak ezagutu di-

tuze. Partaideak harrিতuta geratu dira uhartearen elkarteak egindako guztiarekin eta jendeak haiekiko sentitzen duen esker onarekin", adierazi du elkartearen Eli Dominguezek.

Ndong-en omenezko murala

Espedizio bereziko kide izan dira Mikel Larrañaga Remak eta Jokin Oregi Sor2 muralista bergararrak. "Euren proiektua bizikidetzaren proiektuarekin independentea izan arren, taldeko beste bi izan dira. Artearen bitartez Bergararen eta Dionewarren arteko senidetetasuna bilatzen duen proiektuaren barruan, mural eder bat egin dute, eta martxoaren 15ean hil zen Khady Ndong elkartearen kolaboratzaileari omenez egiteko balio izan du. Ndongi martxoaren 1ean ebakuntza egin zioten, euskal herritarren laguntza ekonomikoari esker, ebakuntzaren zenbatekoa egun gutxitan lortuta, baina, tamalez, bi aste geroago hil zen".

Ekimen berrietarako "ilusioz"

Ndank Ndank elkartearen asmoa da halako ekimen gehiago antolatzea, uharterako hainbat proiektu dituzte eta: "Bizikidetzaren proiektuak sortzen duen aberastasuna ikusita, elkarteak Dionewarrera bidaiak antolatzen jarraitu nahi du. Uda honetan beste bidai bat posible egiteko lanak egiten ari gara. Bestalde, elkarteak aurreikusita dituen askotariko lanetarako bazkide berrien bila ere ari gara; bazkide izateko interesa dutenak elkartearen webgunearen bidez jar daitezke gurekin harremanetan".

Azken bidaiak honek arrasto berezia utzi duela ere gaineratu du Dominguezek: "Garrantzitsua iruditzen zaigu euskal herritarrek ere hango errealitatea ezagutzea eta elkarteak han egiten duen lana erakustea. Elkarte moduan eta arlo pertsonalean bihotza beteta itzuli gara. Oso une politikak eta hunkigarriak bizi izan ditugu eta horrek arrasto berezia utzi du gugan. Ilusioz eta gogotsu gaude jende gehiago erakartzeko gure familiara".

"GOGOTSU GAUDE GURE FAMILIARA JENDE GEHIAGO ERAKARTZEKO"

ELI DOMINGUEZ, NDANK NDANK



lazio abenduan inauguratutako kultura eremurako auzolanean ere aritu dira. ARGAZKIAK: NDANK NDANK ELKARTEA

UGARTE
AROTEGIA - ALTZARIAK

Proiektuak · Koltxoak
 Horma-armairuak
 Altzariak neurri
 Ateak · Eskailerak ·
 Leihoak · Tarimak ·
 Egur lanak

ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 034630

AROTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 765491

BERGARA
aroztegia@ugarte-aroztegia.com





Aho batez onartu ziren osoko bilkurako gai gehienak; tartean, *Arin* eguneko zentrorako araudia. JOKIN BEREZIARTUA

Konpromisoak betetzeko eskatu du oposizioak

Asteleheneko osoko bilkuran gai gehienak aho batez onartu arren, EAJk eta PSE-EEK aurrekontuetako akordioak bete behar dituela gogorarazi zioten EH Bilduri; gerakina zehazki zenbatekoa den orain jakin dutela esanda, konpromisoak beteko dituela dio Gobernuak

Jokin Bereziartua BERGARA

Apirileko osoko bilkuran lantutako gai gehienak aho batez onartu zituen udalbatzak; esaterako, San Joxepe erretiratuen elkartearen egoitzan egokituko duten *Arin* eguneko zentro berriko araudia. Intentsitate txikiko laguntza behar duten pertsona nagusiei zuzendutako

zerbitzua izango da, eta askotariko zerbitzuak eskainiko dira; besteak beste, estimulazioa eta errehabilitazioa lantzekoak; hezkuntzari, kulturari eta aisiarri lotutako jarduerak; edo gizarte-harremanak edota harreman pertsonalak izateko edo ezartzeko trebetasunak eskuratzeko eta harremanak ezartzeko au-

kerak sortzeko laguntza. Udalak aurreikusten du zerbitzu berria irailetik aurrera martxan izatea.

EAJ konpromisoen zain dago

Bilkuran udal idazkariak kreditu txertaketa baten berri eman izana baliatu zuen EAJko Maite Agirrek aurrekontuen negoziatzioko konpromisoen aurrean

euren kezka azaltzeko: "Konpromiso asko 2019an adostutakoak dira, 2020ko aurrekontuetarako; hileta zibiletarako zerbitzua, adibidez. Gobernuak ontzat eman zuten baina 2020an ez zen ezertxo ere egin. Iaz lortu genuen konpromiso hori beteko zutela idatziz jasotzea, baina kezkatuta gaude maiatzean gaudelako eta ez dugulako mugimendurik ikusten".

EH Bilduko Nagore Inurrategik erantzun zion esanez konpromiso horiek betetzeko "borondate osoa" dutela: "Gerakina zenbatekoa izango den orain jakin dugu eta orain gaude lanean hasteko moduan; gure borondatea da hartutako konpromisoak betetzea. Aurreko osoko bilkuran ere esan genuenez, egin beharreko bidea egingo dugu konpromisook betetzeko".

Olaso Dorrearekin hitzarmena

Bestetik, Olaso Dorrea Fundazioarekin iazko martxoan sinatutako hitzarmenaren barruan bisita gidatuetarako ordutegi aldaketa bat onartu zuten, EH Bilduren aldeko botoekin, EAJren kontrakoekin eta alderdi sozialistaren abstentzioarekin. Jeltzaleek Olaso Dorrea jardura lizentziarik gabe ireki izana salatu zuten: "Dirulaguntza esanguratsua bat eman zitzaion, eta ez zuten jardura lizentziarik. Badakigu hainbat eraikin ez daudela erregularizatuta, baina, kasu honetan, bazegoen denbora gauzak ondo egiteko". EH

Bilduk bisita gidatuek izan duten arrakastan jarri du arreta: "Egoera hobetu daiteke, eta horretan gabiltza. Gorkako kantina, esaterako, lizentziarik gabe egon da 30 urtean, eta azken urteotan jarri diogu lizentzia. Berdina egin dugu Olaso Dorrearekin; inportanteena da urtebetean ondare garrantzitsu hori herri-tarren eskura dugula eta bisita gidatuak oso arrakastatsua izaten ari direla".

PSE-EE, amiantoaz kezkatuta

PSE-EEko bozeramaile Alberto Alonsok kezka agertu zuen amiantoaren inguruan: "Udalak badi-tu eskumenak eta inplikaturak dago amiantoaren gaian; nagusiki, azpiegiturretan. Adibidez, ur kanalizazioetan eta hustubi-deetan. Udal eraikin askok adin bat dute dagoeneko eta posible da amiantoa izatea; horregatik, ondo legoke Udalak planifikazioa bat izatea. Etsigarria da EH Bilduk herrian amiantoa kentzeko 10.000 euroko partida bideratu ez izana, duela urtebete adostu genuen eta". Gorka Artola alkatetik bilkuran erantzun zion Alonsori, eta akordioa betetzeko borondatea dutela esan.

AHO BATEZ ONARTU ZEN 'ARIN' EGUNeko ZENTRORAKO ARAUDIA; IRAILEAN IREKIKO DUTE

Oroimenaren Bulegoa ireki dute, herritarren testigantzei begira

Udal artxiboan dago kokatuta eta maiatzeko eguazten guztietan Aranzadiko ikertzaile bat egongo da bertan

J.B. BERGARA

Aranzadi Zientzia Elkartek *Oroimena eta Giza eskubideak Bergaran* proiektua garatuko du Bergaran, 36ko gerrako, diktadura frankistako eta azken hamarkadetakoa giza eskubideen urraketan memoria berreskuratzeko eta aldi horretan urratu diren giza eskubideak ezagutzera emateko. Lan horretarako gune garrantzitsu bat izango da Oroimenaren Bulegoa, udal artxiboan kokatuta dagoena eta eguaztenean, apirilak 27, ireki zutena. Bulegoan herritarren



Aranzadi elkarteko lone Zuloaga. B.U.

testigantzak eta dokumentazioa jasoko dira –unean bertan digitalizatzen dute eta jabeak unean eroan dezake bueltan–, eta herritarrek informazioa eskatzeko aukera ere izango dute.

Telefonoz eta postaz ere bai

Oroimenaren Bulegoa maiatzeko eguazten guztietan egongo da zabalik, 10:00etatik 14:00etara eta 16:30etik 18:30era; Aranzadi elkarteko ikertzaile bat egongo da bertan, halako lanetan esperientzia duena. Aranzadik dei egin die herritarrei proiektuan lagun dezaten: "Herritarren testigantzak garrantzitsuak izango dira, gertatutakoaren zati bat ez baitago artxiboetan jasota". Telefono zerbaki eta helbide elektronikoko bat ere jarri dute harremanetarako: 943 46 61 42 eta memoria@aranzadi.eus.

OHARRAK

Auzuak Ala Hil Eguna: bazkarirako txartelak

Maiatzaren 14an ospatuko dute, Osintxun. Egun osoko egitaraua antolatuko dute; tartean, auzoen arteko bazkaria. Bazkarirako komeni da izena ematea, domekarako. Txartelak eta kamisetak egunean bertan banatuko dira eta autobus zerbitzua egongo da.

Jardun: jaietako zapirako marrazkia eta leloa

Pentekosteetarako lehiaketan parte hartu daiteke maiatzaren 18ra arte, Jardunen bulegoan edo jardun@topagunea.eus helbide elektronikokoan. Guztira, 200 euro banatuko dira saritan.

1942an jaietako ospakizuna

Maiatzaren 21ean elkartuko dira Zumelaga jatetxean bazkaltzeko. Izena eman behar da maiatzaren 18rako, honako kontu korrante zenbaki honetan 30 euroko ordainketa eginda: ES50 3035 0009 1700 9116 0485 (Laboral Kutxa).

1949an jaietako ospakizuna

Maiatzaren 22an, Tartufo jatetxean bazkalduko dute. Izena eman behar da maiatzaren 17rako, kontu korrante zenbaki honetan 60 euroko ordainketa eginda: ES19 3035 0009 1300 9116 0463 (Laboral Kutxa). Autobusa frontoian hartuko dute, 13:30ean.

Hasi berri duten Soraluze torneoa, Mendizabal barik

Martitzenean hasi zuten, Bergaran, lau eta erdiko Soraluze txapelketa, eta Aitor Mendizabal antzuolarrak ezin izan zuen lehen kanporaketa gainditu (22-13). Hala, Debagoiena ordezkari bakarrarekin geratu da, Ander Muruarekin

Xabier Urtzelai BERGARA

Iazko etenaren ostean, martitzenean itzuli ziren Bergarako Udal Pilotalekura promesen eta nagusien mailetako pilotariak, Soraluze lau eta erdiko txapelketan esku hartzeko gertu. Torneoak hamasei pilotari batuko ditu, eta lehenengo zazpi jardunaldiak kanporaketa bidez erabakiko dituzte; horrenbestez, formatu azkarra izango du txapelketak.

Finalak ekainaren 6an egingo dituzte, eta dagoeneko Debagoieneko ordezkari bakarra geratzen da, Ander Murua: "Pena dugu bergararrik ez dagoelako. Ander Etxanizek badu txapelketan esku hartzeko moduko maila, baina ikasketak tarteko kanpora joan behar du, eta beste batean izan beharko du. Hala ere, antolatzaileok pozik gaude, etenaren ostean txapelketa berreskuratu dugulako, ea dena ondo joaten den", adierazi dio GOIENARI Iker Muruamendiarezek, Bergarako pilota saileko kideak.



Mendizabal, Aitor Alduntzinen pilotakada jarraitzen. MIREIA BIKUÑA

Mendizabalek, galdu

Hain zuzen, Aitor Mendizabali egokitu zitzaion txapelketako atariko jardunaldian esku hartzea, eta antzuolarrak 22-13 galdu zuen Aitor Alduntzinen kontra, senior mailako partiduan. Promes mai-

lako partiduan, Aitor Lara izan zen onena, Oñatz Arrillaga mendean hartuta (22-9).

Datorren martitzenean jokatuko dituzte bigarren jardunaldiko kanporaketak, 19:30ean hasita.

"Beldur apur batekin etorri naiz, baina txukun jardun dut gero"

AITOR MENDIZABAL PILOTARIA

Duela hiru urte, profesional izateari utzi zionean, Aitor Mendizabalek aitortu zuen ez zuela pilota erabat baztertzeko asmorik, eta ordutik Soraluzeko klubean dabil, amateur, gozatzen. Hala, 2011n Soraluze lau eta erdiko irabazi eta hamaika urtera, joan den martitzenean, antzuolarrak Bergarako torneoa jokatu zuen ostera ere. Ezin izan zuen lehen kanporaketa gainditu, baina ondo ibili zen kantxan.


Zer moduz joan da partidua?

Bada, zailena egin dut, Aitor Alduntzinek hasieran ihes egin dit-eta markagailuan. Hala ere, aldea txikitu eta 11-11ko berdinketa egin dugu. Egia da, baina, sakearekin min egin didala partidu osoan,

eta bi huts tonto samar egin ditudanean aurre hartu du ostera ere.

Antolatzaileen gonbidapenari, baina, ezin ezetz esan...

Beldur apur batekin etorri naiz, aspaldi halako partidu bat jokatzeke nengoen, baina ez dut neure burua txarto ikusi. Egia da



MIREIA BIKUÑA

momentu batzuetan presaz jokatu dudala, eta, esan moduan, haren sakearekin sufritu egin dut.

Pilotari profesional izateari utzi zenionetik arrastoa galdu dizugu. Zertan dabil Aitor Mendizabal?

Irakasle lanetan nabil, batetik, eta, horrekin batera, pilotan jokatzen ere jarraitzen dut. Esaterako, Mexikotik itzuli berria naiz, Aste Santuko oporraldia aprobetxatuta han egin ditugu hainbat egun pilota jaialdiren batean esku hartzen. Hala, pena apur bat badut Bergarako txapelketa ezin izan dudalako nahi moduan prestatu.

Pilotaren bueltan oraindik, baina beste martxa batean.


Bai. Urteak egin ditugu maila gorenean, dedikazio handia eskaintzen, eta orain, beste exijentzia maila batekin dihardugu, lasaiago gabiltza. Lehen, pilota ogibidea zen, eta orain, zaletasun bilakatu da.

Frantzian, Munduko txakur kros txapelketan da Fernando Cobos

Atzo hasi zuten domekara bitartean iraungo duen lasterketa; aurrean ibiltzeko asmoz joan da Cobos

Jone Olabarria, BERGARA

Atzo, eguena, hasi eta domekara bitartean Munduko Txakur Kros txapelketa jokatzen dabilta Frantziako Pledran herrian. Eta Fernando Cobos bergararra (Beasain, 1959) eta haren txakur *Luko* lehiakideen artean daude. Nazioarteko probetan ez da hasiberria, aurretik ere bi aldiz lehiatu da Europako txakur kros txapelketetan, baina txakurraren eta Cobosen beraren lesioengatik ezin izan zituzten nahi bezalako emaitzak ekarri: "Italian lehiatu ginenean, txakurrak



Luko eta Fernando Cobos. LEIRE ZIARRETA

hanka bat apurtu zuen, eta, ondorioz, ezin izan genuen txapelketa bukatu. 2019an, Belgikan, niri tokatu zitzaidan eta zuntz-etadura bat izan nuen. Nahiko esperientzia txarrak izan ziren".

Bost onenen artean egotera

Frantziara bidaia egin aurretik, Cobosek GOIENARI aitortu dio lehen bosten artean sailkatzeko asmoarekin doala: "Estatu mailan zazpigarren postuan sailkatzea lortu dugu. Horri esker eskuratu dugu munduko txapelketarako txartela. Uste dut ondo prestatuta goazela, bai txakurra, baita ni ere". Egunero ibili dira entrenatzen, normalean, Gorlako inguruetan, eta astean behin, gutxienez, *Luko* ingurura ere joan izan dira, prestaketa saio zehatzagoak egiteko.

Bergara KEk futbol campusa antolatu du uztaileko

2008 eta 2013 urte bitarteko gazteendako udako futbol campusa antolatu du Bergara KEk. "Berritasun askorekin dator edizio hau. Futbola ardatz izango duen arren, beste kirol jarduera batzuek ere tartea izango dute. Mendira eta hondartzara joango gara, eta lehenengo mailako futbol zelai batera bisita ere egingo dugu. Kirola, balioak eta euskara oinarri izango dituen aisialdi ekintza izango da", adierazi dute klubetik. Bereziki kirola egin nahi duten neskei egin diete deialdia. Izena emateko agiria goiena.eus atarian eskura daiteke, eta kanpusbke@gmail.com-era bidali behar da, transferentzia-agiriarekin batera.

Zabalik dago udako futbol txapelketako izen-emate epea

Ipintzako berdegunean egongo da zer ikusi aurtengo ekainean eta uztailean, udako futbol txapelketa antolatuko dute eta. Hainbat modalitate egongo dira, 11ko futboleko kategoria mistoa-gazteenek 2005ean jaiotakoak izan beharko dute eta talde bakoitzean gehienez federatutako sei jokalaririk eman dezakete izena-gehienez lau egon ahal izango dira berdegunean-. Emakumezkoen eta beterranoen kategorietan, 8ko futboleko jokatuko dute.

Txapelketa ekainean hasiko dute, eta uztailean amaitu. Izena eman daiteke Instagramen, [@udakotxapelketa](https://www.instagram.com/udakotxapelketa) kontuan, edo udakotxapelketa@gmail.com-era idatzita.

Zientzia, kirola eta aisia nagusi udako eskaintzan

Haurrei eta gaztetxoei zuzendutako aisialdirako eskaintza aurkeztu du Bergarako Udalak. Askotarikoak dira proposamenak, guztiak herrian egiteko, eta euskaraz. Dagoeneko eman daiteke izena Internet bidez, udaletxean eta liburutegian

Jone Olabarria BERGARA

Haurrek eta gaztetxoek elkarrekin egoteko, elkar ezagutzeko, elkarrekin jolasteko eta gozatzeko eskaintza prestatu gura izan dutela azaldu du herritarren batzordeko lehendakari Ekaitz Aranberrik: "Kalitatezko eskaintza osatzen ahalegindu gara. Elkarlanean osatutakoa da, hainbat eragileren ekarpenekin. Esaterako, herriko ikastetxe guztiek, iaz hasitako bideari jarraituz, haien azpiegiturak jarriko dituzte eskura".

Udaleku irekiak

2010 eta 2017 urte artean jaiotako haurrei zuzenduta antolatu dituzte, beste behin ere, udaleku irekiak, "Bergarako ume guztiek elkartu eta euskaraz aisialdi hezitzaileaz gozatu dezaten". Herriko ikastetxeen partetik prestatasuna handia izan dela azaldu dute, eta elkarlanean prestatu dutela eskaintza.

Bi eskaintza daude udaleku irekien baitan: ekainaren 27tik uztailaren 15era –hiru aste aukeratuz gero– eta ekainaren 27tik uztailaren 22ra –lau aste aukeratuz gero–. 10:00etatik 13:00etara. Jakinarazi dute ez dagoela kopuru mugaturik, eta izena ematen duten haur kopuruaren arabera antolatuko dituzte.

Kirol arloan, hiru aukera

Kirolari lotuta hainbat proposamen daude aurten. Udako oporretan, kanpoko kirol ekintzetan oinarritutako campusa da horietako bat, 2009 eta 2013 urteen artean jaiotakoei zuzendua. Hasiera batean, Agorrosin gunean zentratuko da, nagusiki, baina eguraldiaren arabera beste gune batzuetara mugituz.

Tenisa, beisbola, hockeya, badminton, boleibola, natur jarduerak, ur jolasak eta abar eskainiko dituzte, eta bi aukera daude: ekainaren 27tik uz-



Iñaki Ugarteburu, Rosa Errazkin, Ekaitz Aranberri eta Nagore Narbaiza.

"BERGARAKO HAUR GUZTIAK BATU ETA EUSKARAZ AISIALDI HEZITZAILEA IZATEA DA HELBURUA"

Izen ematea: nola eta noiz?

Izena emateko epea apirilaren 27tik maiatzaren 12ra bitartekoa da kirol ekintzetan eta udaleku irekietan. Zientzia jardueretan ekainaren 1etik aurrera eman daiteke izena, robotika ikastaroan salbu –dagoeneko izena eman daiteke bertan–. Internet bidez, udaletxean eta liburutegian egin daiteke izen ematea. Zientzia ikastaroetarako, webgunean eta Laboratoriumen eman daiteke izena, eta kirol jardueretarako, Agorrosinen ere bai.

tailaren 15era –hiru aste aukeratuz gero– eta ekainaren 27tik uztailaren 22ra.

Dagoeneko klasiko bat den udako igeriketa kanpaina 2010 eta 2018 urteen artean jaiotakoei zuzenduta dago. Bi txanda egongo dira: ekainaren 27tik uztailaren 8ra, lehena; uztailaren 11tik 22ra, bigarrena.

Nerabeei zuzenduta

Gazteentzako uda kirol kanpainak, bestalde, nerabeak ditu oinarri; 2004 eta 2010 urteen artean jaiotakoentzat. Ekainaren 27tik uztailaren 22ra, eskalada, zumba, *multi-training*-a, areto txirriindua eta padela egiteko aukera izango dute gaztetxoek.

Zientzialari gaztetxoentzat

Laboratorium museoak, berriz, zientzialari gaztetxoentzako eskaintza prest du. Rosa Errazkin arduradunak azaldu duenez, zazpi jarduerak eskainiko dira.

Izen-ematea ekainaren 1etik aurrera webgunean eta Laboratoriumen izango da. Hala ere, aurreko aldietan oso arrakastatsua izan den robotika ikastaroan astelehenetik aurrera eman daiteke izena.



Bergarako Bandak pandemia sasoian Boluan eskaintako kontzertua. I.S.

Bergarako Musika Bandaren kontzertua Boluko frontoian

Hilero eskaintzen duten kontzertua kalera atera eta Boluko frontoira itzuliko dira domeka eguerdian

J.O. BERGARA

Boluko frontoian izango da domekan Bergarako Musika Bandaren agertokia. 12:30ean hasita, eta egin ohi duten moduan, egitarau zabala prestatu dute, "gustu guztiendako aukerekin".

Herritarren gustukoa

Hala, *Cántame un pasodoble, La princesse jaune, Katuska, Ballata della tromba, Toward the bright future* eta *Song and samba* interpretatuko dituzte bandako kideek domekan.

Boluko pilotalekuko kontzertuek harrera "itzela" izaten du-

tela azaldu du Enrike Txurruka zuzendariak: "Pandemia sasoian egin genuen han lehen aldiz, eta, orduan izandako erantzun ona ikusita, berriz ere han egitea eskatu digute herritarrek aurtengora begira ere".

Auzoetara zabaltzeko asmoz

Bandako zuzendariak azaldu duenez, haien jarduna herriko beste gune batzuetara ere zabaldu nahi dute hemendik aurrera: "Gure asmoen barruan badago herriko beste auzo batzuetan ere leku aproposak bilatzea, eta banda guztien eskura jartzea".

Kontzertuz beteriko asteburua kartzela zaharrean

Miazkatu diskoa aurkezteko baliatuko du Saia Goait talde mutrikuarrak gaur gauean kartzela zaharrean eskainiko duen kontzertua, 22:30ean hasita. Martxo amaieran kaleratutako *Miazkatu* diskoko kantuak izango dira entzungai taula gainean.

Mutrikuarren ostean iritsiko da Letagin talde oñatiarreko musikarien txanda. Zapatuan ere egongo da musikaz gozatzeko aukera kartzela zaharrean. Antolatzaileek azaldu dutenez, ez dira bi kontzertu huts izango, baizik eta sei kideren arteko hainbat kolaborazio eta konbinazio. Doppelganger eta Omorru-mu Mabat izango dira entzungai bihar, 22:00etan hasita.

Skate parkea inauguratzeko, egun osoko egitaraua

Bihar inauguratuko dute ofizialki Labegarietako skate parkea, eta egun osoarako ekintzak antolatu dituzte, 11:30ean hasita. Ekitaldiak girotzeko, egun osoan egongo da musika. 11:30etik 13:00etara, skate hastapenak eskainiko dituzte, adin askotariko herritarrei zuzenduta. Ostean, parrillada egingo dute, 14:00etan hasita.

Bazkalostean, skatean libre ibiltzeko aukera egongo da Labegarietako, 17:00etan txapelketa hasi arte. Kontzertuek hartuko dute protagonismoa arratsaldeak aurrera egiten duen heinean: 19:00etan hasita, Klineks eta Golden Blend entzuteko aukera egongo da.



Telebista



Profesionalekin

Euskaraz

Komunikazio Campusa 2022

Sare sozialak



Podcastak

Kamera aurrekoak

Fotokazetaritza



Noiz: 1. txanda, uztailaren 4tik 8ra. 2. txanda, uztailaren 11tik 15era. **Taldeak:** gehienez ere, 15 lagun.

Non: Mondragon Unibertsitateko Komunikazio Campusean, Aretxabaletan, eta Goienan, Arrasaten.

Ordutegia: 09:00-13:30 (ordu erdiko atsedendialdiarekin).

Norendako: DBH-4ko eta batxilergoko 1. mailako gazteak. **Izen ematea:** Martxoaren 18tik ekainaren 17ra. **Prezioa:** 125 euro.

IZEN EMATEA ZABALIK: www.labur.eus/komunikaziocampusa



Master-eskolak adituen eskutik:

Alex Padilla Sare sozialetan aditua. **Ainhoa Vitoria** Komunikatzailea eta Gazteko irrati esataria.

Xabier Urzelai Goienako kazetaritza-argazkigintza aditua.

Informazio gehiago:    600 02 27 20  komunikaziocampusa@mondragon.edu

ANTOLATZAILEAK:

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA



Mondragon
Unibertsitatea

Humanitate eta Hezkuntza
Zientzien Fakultatea



Anima zaitetz eta eman izena!



Olaran etxea erakusteko bisita gidatua Beñardo Kortabarría alkatearen gidaritzapean. LARRAITZ ZEBERIO



Kolorea eta egurra

Egurra, leiho handiak, argiztapena eta zenbait eremutan ipinitako kolore biziak nabarmendu dituzte Arira Arkitekturako kide Uxue Arregik eta Iraitz Gastiainek. Izan ere, historikoa den eraikinari ukitu modernoa ere eman nahi izan diotela gaineratu dute.

Zabalik da Olarango kultura etxe berritua

Aste Santu bezperan izan zuten herritarrek Olarango kultura etxe berritua bisitatzeko aukera, eta jada herriko talde eragileek erabilgarri dute. Hiru solairuko eraikina irisgarria da eta igogailua da berrikuntzetako bat. 200.000 euro inguruko kostua du

Maidar Arregi ANTZUOLA

Zabalik da, atzera ere, Antzuolako Olarango kultura etxea. Irisgarritasun eta berritze lanak egin ditu Udalak eta herriko elkarteek erabiltzeko prest dute berri ere eraikina.

Hiru solairuko etxea da orain Olaran, eta irisgarritasun lanei dagokienez, aurrerantzean igogailua izango du, horixe da hain

justu ere, berrikuntza nagusietako bat. Horrekin batera, sarreran zein erakusketa gelan ate automatikoak ditu, eta solairu guztietan komun eta ate egokituak jarri dituzte.

Arira Arkitektura enpresak egin ditu irisgarritasun lanak. Gainera, egokitzapen lanekin batera, kolore biziagoak ere jarri dituzte hainbat eremutan,

eta lehen baino erabilgarriago dago orain eraikina. Arira Arkitekturako kide Uxue Arregik eta Iraitz Gastiainek nabarmendu dute historikoa den eraikinari ukitu modernoa eman nahi izan diotela. Egurra, leiho handiak, argiztapena eta zenbait eremutan ipinitako kolore biziak nabarmendu dituzte. "Material noblea erabili dugu eta bi kris-

talera handi jarri ditugu barrukoa ondo ikusteko eta argitasunaz barrura sartzeko", dio Uxue Arregi arkitektoak.

Sarrerako atea eta erakusketa gelarako atea, aipatu moduan, automatikoak dira. Antzuolako Matz-Erreka enpresak egindako ekarpena dira: "Matz-Errekaren aldetik plazera da gure ekarpena egitea Antzuolako herriari".

Talde eragile askoren topalekua

Hamar bat taldek dute lekua Olaran etxean. Bertan egiten dira, esate baterako, luzaketa eta yoga saioak, eta Olaranen dute egoitza musika eskolak, bake epaitegiak, Antzuola Kiroel Elkarteak, Idolaz elkarteak eta herriko dantzariak eta txistulariak.

Beñardo Kortabarría alkateak egin zituen apirilaren 13ko inaugurazioan gidari lanak, eta iris-

garritasun lanek emandakoa erakutsi zuen bisitaldian. Udal ordezkariak eta langileak, erabiltzaileak eta Udalarekin elkarlanean aritzen diren hainbat enpresatako ordezkariak izan ziren bertan. Hala nola Matz-Erreka, Elay, Oerlikon eta Goizper enpresetako ordezkariak. Alkateak herriarekiko duten konpromisoa eskertu zien, eta esan zuen Olaran etxea erabiltzeko prest dagoela. "Gelen banaketa eginda dago. Auzolan saio bat ere egin dugu, taldeei materiala ekartzeko laguntzeko; oso gustura gaude".

HIRU SOLAIRUKO ERAIKIN IRISGARRIA ETA MODERNOA DA; ATE AUTOMATIKOAK ERE BADITU

Zahartzaro eredu berriaz jardun dute Javier Yanguas adituarekin

Zahartzaro berri baterako urratsez eta adinak ematen dituen aukerez jardun dute Olaranen erretiratuek

M.A. ANTZUOLA

Landatxopek antolatuta, adineko pertsonen erretiroa hartzen dutenean zein erronka eta aukera dituzten aztertu du Jabi Yanguas psikologo eta gerontologo donostiarrak. Bakardadeak

asko kezkatzen duen erronka dela aitortu du Yanguasek solasaldian: "Liburuan jaso ditut aspaldian nire barruan nituen zalantzak. Pandemiak lagundu dit martxan jartzen eta zahartzarora nola ikusi behar dugun

lantzen. Zahartzaroaren ikuspuntu berriak, zaintzaren arloa eta asko kezkatzen nauen bakardadearen erronka jaso ditut".

Belaunaldi berriek duten erronka ere aztertu dute: "Azken kapituluaren beste ikuspuntu bat ere aztertu dut: belaunaldi berria zaharren belaunaldia baino okerrago biziko dela, alegia. Erronka bat daukagu kohesio soziala lortzeko, eta gizarte indibidualista honetan, belaunaldien artean akordioa lortzea ezinbestekoa dela uste dut".



Yanguas psikologoa hitzaldia ematen Olaranen, eguazten arratsaldean. AITOR AGIRIANO

17.000 euroko laguntza herriko eragileendako

Udalbatzak aho batez onartu du Antzuolako kultura eta kirol elkarteendako aurtengo dirulaguntza proposamena. Ohiko osoko bilkuran, besteak beste, mugikortasunaren gaineko mozioa eta Antzuola Lagunkoia izan dute eztabaidagai

Maidar Arregi ANTZUOLA

Martitzeneko apiriliko ohiko osoko bilkuran aho batez onartu zituzten Antzuolako kultura eta kirol taldeendako dirulaguntzak.

Guztira, 17.000 euro bideratuko ditu aurtengo Udal Gobernuak, eta, hurrenez hurren, Aiaztui taldeak 1.400 euro jasoko ditu; AKEk, 4.000 euro; Alardearen Elkarteak eta Alborada txistulari taldeak, bakoitzak 1.900 euro; Ariznoa taldeak, 550 euro; eta Arrolak, 2.000. Lokatzari 350 euroko laguntza bideratuko zaio, eta Oinarini 2.200 eurokoa. Azkenik, kopuru altuena herriko pilota elkarteendako izango da, eta Olalde 2.700 euro jasoko ditu.

Beñardo Kortabarría alkateak borondate onari aitortza egiteko modua ere badela adierazi du: "Herriaren alde lan egiten duten horiendako da. Diruz kopuru handia ez izan arren, bada, nolabait, onarpen modu bat elkarre eta eragile horien borondateari. Zerbait egiteko diru beha-

rra izan ez dezatela nahi dugu, hain zuzen ere".

Mugikortasuna hizpide

EH Bilduk eta alderdi sozialistak adostutako mugikortasunaren gaineko mozioa ere onartu zuten. EAJ, ordea, abstenitu egin zen; izan ere, Basilio Ormazabal bozeramaile jeltzaleak esan zuen ez dela posible Errepideen Foru Sareko bidesari lotutako tartee-tan bildutakoaren zati bat legez itzultzea.

Alkateak gaineratu zuen mozio honen bitartez garraio publikoaren erabilera bultzatzea dutela helburu. "Mozioan eskatzen duguna da tarifak merkatzea erabiltzaileei. Nolabait, garraio

GARRAIO PUBLIKOA INDARTZEKO MOZIO BATERATUA ONARTU DUTE EH BILDUK ETA ALDERDI SOZIALISTAK

publikoaren erabilera bultzatu nahi dugu", dio alkateak.

Herri Lagunkoia

Alderdi sozialistak aurkeztutako adineko pertsonetikiko laguntzuna oinarri duen mozioak, aldiz, ez zuen aurrera egin. EH Bilduk aurkako botoa eman zuen eta alkateak nabarmendu zuen Udalak lagunkoitasuna ez duela mozio bezala ulertzen, baizik eta lan lerro gisa. Eta zailtasunak izan ditzaketan pertsona orori berdintasunean laguntzea dutela xede: "Bozketan emandako ezezkia ez da ados ez gaudelako alderdi sozialistak mozioan jasotakoarekin. Etorritako proposamenari emandako ezezkia da, jada Udalak egina duelako bertan jasotakoa. Lagunkoitasuna, gainera, bestelako egoera eta beharretara ere zabaldu eta bultzatzen gabiltza. Hirugarren adineko pertsonen herri batean bizitzeko izan ditzaketan zailtasunak berdintzeko lana, esaterako".

Askotariko adinetako 64 pilotari izango dira txapelketan

Olalde, giroa berotze aldera, antzuolarrei pilotalekura joateko dei egin die maiatzaren 6rako eta 7rako

M.A. ANTZUOLA

Parte hartze zabala izango du maiatzean jokatu den herriko pilota txapelketak, 8 eta 46 urte arteko herritarrek eman dute-eta izena. Guztira, 46 antzuolarrek. Maiatzaren 6an hasiko da txapelketa eta izena eman dutenen artean txikienak direnekin emango zaio hasiera, arratsaldeko seietan.

Maiatzaren 7an, zapatua, berriro ekingo zaio eta partidak 09:30etik 20:00etara bitartean jokatu dira -finala, 19:30 aldera-; modu horretan, sailkatze

ligaxkak izango dira finalerdietara iritsi arte.

Hain zuzen ere, hiru pilotariko multzoak antolatuko dituzte eta partiduak zortzi tantora jokatu dira.

Finalerdiei eta finalari dago kienez, sei tantora jokatu diren bi joko irabazi beharko dituzte pilotariek. Ondoren, partaide guzien artean afari-merienda egingo dute Olalde elkartearen. "Herritarrek frontoia- ren buletan ibiltzea nahiko genuke, eta ikusle gisa parte hartzera gonbidatu".

Etxebizitzaren beharra aztertze galdetegia kaleratu du Udalak

Plan Orokorren lanketaren baitan, etxebizitza beharren inguruko galdeketa osatu nahi du Udalak. Antzuolarrek inkesta helbide honetan bete dezakete, maiatzaren 7ra arte: labur.eus/antzuolanbizi. Helburua da, etxe hutsen kopurua jakinik eta egingo etxebizitzaren gabeziak eta arazoak jasota, HAPO definitzea.

Nerbioi ibaiaren iturburuak gertutik ezagutzeko irteera

Apirilaren 30ean, bihar, Nerbioi ibaiaren iturburuak ezagutzera joango dira Arrolako kideak. "Iturburuak, haitzuloak eta otsoak harrapatzeko inguruak ere ezagutuko ditugu bost bat orduko ibilbidean zehar". Egun osorako irteera da eta izena ematea derri gorra da. 08:30ean Olarandik abiatuko dira. Izena emateko, idatzi: arrolamt@gmail.com.

OHARRAK

Zinema: 'Bost teilatu'

Geuretik Sortuak egitasmoaren barruan sortutako filma da. Euskal Herriko bost herritako zinemagileek egindako bost film laburren bilduma da. Sarrerak eskuragarri online eta liburutegian, 3 eurotan.

Antzuola Ezagutzen: 'Lizarra auzoko errota'

Maiatzaren 5ean, Jose Mari Iturberen gidaritzapean *Lizarra auzoko errota* ikusteko bisita egingo dute. 09:30ean irteera plazatik eta Akinabei errota hamarretakoa.

Kukumarru lehiaketa

San Isidroko kukumarru lehiaketa parte hartzeko izena udaletxean edo liburutegian eman daiteke, maiatzaren 10era arte. Taldearen izena, telefonoa eta partaideen izen-abizenak eman beharko dituzte.

Ipuin musikatua

Perlik eta Koxkolok *Bidaia liluragarria* izeneko ipuin musikatu saioa eskainiko dute Torresorua aretoan. 3 eta 8 urte arteko haurrendako emanaldia izango da eta maiatzaren 1ean, domekan, 18:00etan izango da.



Udalbatza, martitzeneko ohiko osoko bilkuran. M.A.



Elgetako biktimen senideak lore eskaintza egiten domekako ekitaldian. IMANOL SORIANO

Oroimenaren transmisioa

85 urte bete dira aurtien tropa frankistak herrian sartu zirenetik. Elgetako egunik beltzenetakoak etorri ziren ondoren. Urteurrena ez da oharkabeen pasa; biktimen senitartekoek egia, justizia eta erreparazioa eskatzen jarraitzen dute

Txomin Madina-L.Z. ELGETA

Egun bereziak izan dira Elgetan, eta hainbat izan dira Intxorta 1937 Kultur Elkarteak eta Elgetako Udalak antolatutako ekitaldiak. Domekan egin zuten ekitaldi nagusia, Espaloia kafe antzokian, eta bertan bereziki gogoan izan zituzten 1936an eta 1937an faxismoak hildako 33 elgetarrak zein frankismoaren aurkako kereiletan lanean diharduten eta horretarako testigantza eman duten herritarrak.

Biktimen senitartekoez gainera, Elgetako udalbatzako bi alderdietako ordezkariak izan ziren ekitaldian, eta baita ere Gipuzkoako Foru Aldundiko Giza eta Kultura Demokratikoaren zuzendari Ion Gamba eta Frankismoaren Krimenen Kontrako Plataformako bozeramaile Josu Ibagutxi. Bete egin zen antzokia.

Joseba Tapiak eta Ekiñe Casadok musikaz girotutako ekitaldian, hunkigarriak izan ziren aureskua eta lore eskaintza. Adierazgarriak izan ziren, baita ere, Jose Mari Zubierremeneriaren eta Jesus Mari Txurrukaren hitzak. Zubierremeneriak kontatu zuen nola 1937ko gau batean babesleku bila joandako 47 elgetar elkartu ziren aitaren etxean. Txurrukak, berriz, Andresa Iriondo birramamaren heriotza kontatu zuen, eta nola izan duten haren seme Tomas Askasibarren berri. Nazien kon-

"INDIBIDUALA GAINDITZEKO, MEMORIA KOLEKTIBOA ERAIKI BEHAR DUGU"

tzentrazio esparru batean hil zuten, 1945ean.

Gertatutakoak gogoratzearen, idatziz jasotzearen eta informazioa partekatzearen alde hitz egin zuten biek. "Indibiduala gainditzeko, memoria kolektiboa eraiki behar dugu. Mesedez, zer edo zer dakizuenok, kontatu!", esan zuen Txurrukak.

Frankismoaren kontrako kereila

Elgetakoa izan zen lehen udala frankismoaren krimenak ikeritzeko kereila jartzen. Ibagutxi azaldu zuen pandemiak eragina izan duela honetan ere. "Duela pare bat urte kereilek izandako boom hori moteldu egin da. Berriz altxatu beharra izango dugu". Iraitz Lazkano alkateak, berriz, ikusten du badagoela bidea Espainiako sistema judiziala urratzeko. Erakunde gehiagoren inplikazioa eskatzen du.

Egunotako ekitaldiak Elgetan



Amuriza, Etxabe eta Lizartza, eguaztenean, Elgetan. L.Z.L.

'**Apaiz kartzela**' Ikus-entzunezkoa ikusi ostean Zamorako espetxean preso egondako Xabier Amurizak eta Jon Etxabek garaiko makina bat pasadizo kontatu zituzten eguaztenean antzokian. Ritxi Lizartza zuzendaria lagun izan zuten Elgetan.



Aitor Miñambres, Juan Beistegiri buruzko liburua aurkezten. E. AZURMENDI

Juan Beistegi 366 egun borrokan Euzkadiren alde liburua oinarri hartuta, Loyola batailoiko komandante izandakoa izan zuten gogoan hilaren 21ean. Aitor Miñambres idazleak ekarri zituen hainbat pasarte udaletxeko areto nagusian egindako ekitaldian.



Bisitari talde bat apirilaren 15ean egindako bisita gidatuan. NEREA VILLA

Bisita gidatuak Hilaren 15ean egindako bisita gidatuan hamaika lagunek hartu zuten parte; tartean, historiako irakasleek eta memoria taldeetako kideek. Domeka honetan ere bisita izango da, baldin eta jendeak izena ematen badu.

Feminismoari buruzko solasaldiak abiatzear da

Carlota Alfaro, Markel Ojanguren eta Naia Merino dira bultzatzaileak, eta udal liburutegiarekin elkarlanean atzo aurkeztu zuten irakurketa talde feministaren dinamika. Bost saioko hausnarketa zikloa izango da; iritzi trukaketa bultzatu nahi dute

Larraitz Zeberio Lekuona ELGETA

Proiektuaren nondik norakoak eta irakurketa taldearen funtzionamendua, egutegia eta gai-egia aurkeztu zituzten atzo. "Parekidetasunari buruzko formatuak saio bat egiten ari gara hirurok, eta ikasketa amaierako proiektua izango da hausnarketa zikloa", azaldu dute Ojanguren eta Alfaro. Deberria den Naia Merinorekin batera gidatuko dute egitasmoa. "Udal liburutegian egindako aurkezpen batean konturatu nintzen jendea solasaldi gogoz geratu zela. Hala, hausnarketarako espazio bat zabaldu gura dugu. Bost gai aukeratu ditugu eta nahi duguna da eztabaida edo iritzi trukaketa sustatzea", azaldu du Alfaro. "Aberasgarria izango delakoan gaude. Feminismoaren barruan iritzi eta korronte ugari daude; elkar entzutea eta errespetuzko iritzi trukaketa egitea oso eraikitzailea izan daitekeela uste dugu", gaineratu du Ojanguren.

Aurkezpena eta solasaldia

Antzerako egitura izango dute saio guztiek. Aukeratutako gaiaren inguruko materiala jasoko dute parte-hartzaileek aurretik irakurgaiak, bideoak, pelikula...-, eta saioen hasiera aur-



Markel Ojanguren eta Carlota Alfaro. L.Z.L.

EZ DA GENERO BEREIZKETARIK EGINGO; EKIMENA HERRITAR GUZTIEI DAGO ZABALIK

kezpen txiki bat izango da. "Sarrerara moduko bat izango da; izan ere, dinamikaren muina bertaratutako arteko solasaldia izango da. Telegram taldea sortuko dugu eta tresna baliagarria izango da materiala el-

karbanatzeko. Ez dago guztia ikusi edo irakurri beharrik izango. Norberaren erabakia izango da hori", azaldu dute.

Errespetua oinarri

Iritzi trukaketa bultzatzea dute helburu. "Hiru gara eta gure artean ere iritzi kontrajarriak ditugu gai askoren inguruan. Beti da aberasgarria aldamenekoaren iritzia entzutea, elkar ezagutzea, eztabaida bultzatzea... Errespetutik egindakoa bada oso interesgarria izan daitekeela uste dugu".

Elizako kanpandorreko erlojua berri egingo du Udalak

Frontoiko teilatua, bizikleta gunean eta udaletxeko galdaran ere egingo dira hobekuntzak

L.Z.L. ELGETA

Espainiako Gobernuak Foru Aldundiari emandako dirulaguntzetatik 38.000 euro dira Elgetarako. Udaltzako onartu du zertara bideratu: frontoiko teilatua lan bertikalak egiteko segurtasun linea jartzeko 16.000 euro, elizan erloju berria jartzeko 10.000 euro, udaletxean galdara berria jartzeko 6.000 euro, bizikleten gunea hobetzeko 3.000 euro eta Gureak taldearekin Udalak duen kontraturako 2.848 euro. Oposizioa abstenitu egin da. "Kezkagarria da kontu-har-

tzaileak egin duen txostena. 82.000 euroko zuloa dugu, eta hemen badaude gastu batzuk aurrekontuan aurreikusita egon beharko luketenak. Kontra gaude, baina, Gureak Taldeari dagokion gehikuntza babesten dugunez, abstenitu egingo gara", esan zuen EAJko Aintzane Oiarbidek.

Alkateak jakinarazi du, bestalde, Udalak berriki egin duela udal aparejadorearen auziko bigarren kalte-ordainaren azken ordainketa. Zortzi urtean 1.110.716,15 euro ordaindu ditu Udalak.



IMANOL SORIANO

130 bat lagun enduro martxan

Giro polita sortu zuen herrian zapatuko enduro martxak. Parte-hartzaile kopuruarekin pozik agertu dira Piñu-koku taldeko kideak, eta hirugarren enduro martxa bat ere izango dela iritzi diote. "Oso pozik gaude martxak eman duenarekin. Parte-hartzaileak oso pozik ikusi ditugu", azaldu du Etor Garatek. Laguntzen ibilitako guztiei eskerrak eman dizkiete.

OHARRAK

Nekazaritza ibilgailuen azterketa teknikoa

Interesatuak Pagatza industrialdera eraman behar dute ibilgailua, gaur, 13:30ean.

Liburuak plazara eta kaleko ikuskizuna gaur

Udal liburutegian mahaia ipiniko du plazan, 16:00etan, eta ipuin kontaketa musikatua egingo dute Kontukabiko lagunek, 17:30ean.

Erretiratuen irteera Ordiziara: izen-ematea

Xalbadorpek antolatuta, maiatzaren 11n egingo dute egun osoko irteera erretiratuek. Interesatuak domekan eman behar dute izena, 11:00etatik 12:30era, Ozkarbi elkartean.

Maiatzetik irailera bitartean, bost saio

Saio guztiak udal liburutegian izango dira, 18:30ean. Publiko guztiari irekiak dira. Ez dute elkarren artean lotura zuzenik izango.

Maiatzak 12

• Gaia: *Zer da zuretzat feminismoa?* Feminismoaren historiari buruzko sarrera laburra, eta gaur egun dauden korronteei buruzko dinamika.

Ondoren, iritzi trukaketa eta solasaldia.

Maiatzak 26

• Gaia: *Haurrak jaio edo egin egiten dira?* Genero-teoriari buruzko solasaldia eta iritzi trukaketa.

Ekainak 9

• Gaia: *Emakume basatia patriarkatuan.* Matristikaren

teoria eta emakume basatia gaur egungo patriarkatuan.

Irailak 14

• Gaia: *Berdintasuna LGTBI+ mugimenduan.* Iritzi trukaketa eta solasaldia.

Irailak 28

• Gaia: *Emakumearen mugak lan-merkatuan.* Iritzi trukaketa eta solasaldia.



Poltsikoko telefonoa ondoan, giza hezuraren tamainaren erreferentzia izateko. AMET

3.000 urteko burezurra aurkitu du AMETek

Inguruko kobazulo batean egin du aurkikuntza, Brontze Aroan ehorzketa gunea izandako galeria batean. Gipuzkoako Aldundiko Ondare zerbitzuko arkeologoak izan dira bertan eta eurak gorde dituzte aztarnak, dagokion dokumentazio txostenarekin

Oihana Elortza Gorostiza OÑATI

Inguruko kobazulo batean topatu dute Brontze Aroko giza burezurra Aloña Mendiko espeleologia taldekoek. Ondare arkeologikoa izanik, protokoloa jarraitu eta Aldundiko Kultur Ondareko Sailera deitu zuten, aurkitutakoaren inguruko datuak eta argazkiak bidalita. "Azken urteetan margolan asko agertu dira Gipuzkoako kobazuloetan eta Aldundiko arkeologoeekin ikastaro batzuk egin ditugu gure begiak horretara ere entrenatzeko. Harreman zuzena dugu eurekin eta gure abisua jaso eta gutxira etorri ziren", dio Santi Ugartek.

Tamainarengatik, ume batena da burezurra, duela 3.000 bat urtekoa, Brontze Arokoa. Orduko ehorzketa bateko aztarna izan daitekeela baieztatu du probak jasotzera joan zen Aldundiko arkeologo Mertxe Urteagak. Eskuko hezur txiki bat eta bi zeramika zati ere jaso dituzte gune horretan, baita animalien hezur batzuk ere. Ikatz puskak ere ikusi dituzte, garai batean han sua egiten zuten seinale.



Gipuzkoako Aldundiko arkeologoak, aurkitutako ondarea jasotzen. AMET

Irungo gordailura eraman dute

Aurkikuntza jaso, dokumentatu eta txostenarekin batera gorde dituzte aztarnak Aldundiak Irunen duen gordailuan. Galeria Brontze Aroko ehorzketa-gunea dela deritzo Urteaga arkeologoak: "Orduko beste aztarna batzuk ere agertu izan dira inguruan".

Musika Eskola lehenestea eskatu du EAJ alderdiak

Datorren ikasturtean Musika Eskolaren eraikin berriaren obra egiten hasteko nahia erakutsi du alderdi jeltzaleak, baina, horretarako, proiektura bideratutako diru-partida zehaztu beharra dagoela nabarmendu du.

Udal Gobernuak hiru milioi euro hiru proiektu nagusitarako bideratzea proposatu du: Emakumeen Etxera, Musika Eskolara eta Urrutxuko zabortegea zigilatzea. Proiektu horiek Oñatirentzat "beharrezkoak" direla onartu du EAJk, baina adierazi du "Gobernuaren kudeaketa faltaren ondorioz" oraindik ez dakitela proiektu horietako bakoitzera zenbat bideratuko den, "ezta gutxi gorabehera ere". Musika Eskola aipatuta, jeltzaleek diote oraindik ez dutela diagnostikoa egiten amaitu eta atzeratzen ari dela. Proiektu horri lehenestea ematea eskatzen dute, "2022-2023 ikasturtean Musika Eskola berriaren obrekin hasi nahi bada".

Topagune feministarako sarrerak salgai daude

Oñatin egingo da Bilgune Feministaren aurtengo topagunea ekainaren 11n eta 12an, 20 urtez paradisuak erretzen... ezlandak dardara gaitzala lelopean. "Ospatzeko, elkartzeko, ikasteko, dastatzeko, dantzatzeko, jaso eta emateko", egitarau zabala presatatu dute, eta sarrerak salgai daude dagoeneko. Oñatin, Arrano tabernan eros daitezke. 40 euroren truke eskuratu liteke sarrera arrunta, baina badago prezio merkeagoa ere: 35 euro; baita bost euroren truke "furgoparkinean" plaza gordetzeko bonua ere.

Euskal Herriko Bilgune Feministak 20 urte bete ditu aurten eta urteurrena ospatuko dute Oñatin. Egitarau zabala antolatu dute: tailerrak, hitzaldiak, mahai-inguruak eta kontzertuak dira oinarri, baina egongo da beste hainbat ekitaldi ere. Plazako frontoian izango da gune nagusia, eta han egingo dira, adibidez, zapatuko ekitaldia eta osteko kontzertuak.

Emantzipazioarako dirulaguntza eska dezakete gazteek

Emantzipatu eta pisuko alokairua ordaintzen laguntzeko dirulaguntzak emango ditu Oñatiko Udalak aurten ere; 65.000 euro pasa. 18 eta 35 urte bitarteko gazteek eskatu ditzakete, udal bulegoetan, eta onuradunek, gutxienez, urtebeteko alokairu kontratua izan behar dute. Hileko alokairuaren erdia ordaintzeko laguntza emango da: 250

euro hilean, gehienez. Bizikidetzaren unitateko kide batek, gutxienez, Oñatin erroldatuta egon beharko du azken urtean, edo aurrez, gutxienez, 10 urtetan. Eskatzailearen urteko sarrera gordinaren muga 28.000 euro dira. Emantzipazioan lagundu eta alokairu merkatua dinamizatu eta, ahal den neurrian, errenta prezioen merkatzean eragitea da helburua. Hala, hilean 550 eurotik gorako errenta duten etxebizitzaren alokairuak laguntza hauetatik kanpo daude.

Autlan-eko langileen osasun eskubidea eskatu du LABek

Autlan EMD enpresan manganesoaren eta azido sulfurikoaren kontzentrazioen aurrean langileen osasun eskubidea bermatzen ez dela iritzita, elkarretaratzea egin du LAB sindikatuak enpresa horren aurrean egunean, Lan Osasunaren Nazioarteko Egunean. Neurri prebentiboan, osasun zaintzaren eta "gaixodauden" langileen inguruko sei

eskaera egin dizkiote enpresako zuzendaritzari.

LABek adierazi duenez, "bi substantzia toxiko horiek nabarmen" gaintzen dituzte "baimendutako gehieneko estandarrrak". Hala, eta neurri prebentibo gisa kimikoen aurkako maskarak ezarri zituzten arren, 2017az geroztik 34 pertsona aritu dira lanean "substantzia toxiko hauen eraginpean", eta azken urtean bost langileri arnasbideetako patologien lan-jatorria "aitortu" zaie.

Erretiratuaren saria emango du Pake Lekuk

Sariaz gain, Euskal Herria eta Oñati ezagutzeko martxan dagoen egitasmoarekin jarraitu eta turismoa eta termalismoa egiteko lmsersok eskaintzen dituen aukeren inguruko informazioa ere eskainiko dute; Pake Lekuk 2022rako dituen hiru asmo dira

Oihana Elortza Gorostiza OÑATI

Aurtengo urterako dituen asmoen berri eman du Pake Leku erretiratuaren elkartearen zuzendaritza berriak, eta horietako bat da Pake Leku Saria Urteko Jubilatuari izeneko saria. Herri-gintzan eta gizarte gaietan, arlo batean zein bestean, nabarmendu den jubilatutako saritzea du helburu, "haren eguneroko lana, ibilbidea eta balio pertsonalak aitortzeko, aktiboki lagundu diolako Oñatiko komunitateari". Hautagaia Pake Lekuko edozein bazkidek aurkeztu ahal izango du urtean zehar, haren herri-gintzako merituak azalduz, eta abenduaren hirugarren astean, elkarteko zuzendaritza taldeak aukeratuko du egokien deritzona hautagai guztien artean. Generoaren ikuspegia errespetatuz, tartekatuz egingo dira, urtetik urtera, emakumezko eta gizonezko saridunak.



Pake Leku erretiratuaren elkarteko zuzendaritza talde berria. PAKE LEKU

"Pake Lekuko taberna herritar guztiendako izatea gura dugu"

YULA KREKOTEN OSTALARIA

Yula Krekoten (Horenka, Ukraina, 2001) izango da Pake Lekuko tabernako arduradun berria; zuzendaritzak aukeratu du deialdira aurkeztu diren artean. Hil honen amaieran utziko dute taberna egungo arduradunek, eta maiatzaren 1ean, domeka, sartuko dira berriak. Amarekin batera arituko da tabernan.

Zer moduz?

Oso-osozko pozik. Ama eta biok egongo gara tabernan, eta harendako ere sekulako aukera da hau: burua okupatuta, batetik, eta herrian sartzeko aukera, bestetik.

Ukrainan jaio zinen, baina Oñatikoa ere bazara honezkerok, ezta?

Bai, bai. 6 urte nituenetik etorri naiz Oñatira udan eta 14 urterekin hemen gelditu nintzen ikasketak egiteko; ostalaritza ikasketak egin



Y.K.

nituen. Gerratik ihesi, Oñatin bizi gara orain ama, anaia eta hirurok.

Zein asmo dituzu Pake Lekuko tabernarako?

Idea asko dituz; gosararako bizkotxoak egitea eta pintxo berriak eskaintzea, adibidez. Etxera eramateko tortillak eta ogitartekoak ere egingo ditugu. Baina azpimarratu gurako nuke tabernara gazteak ere etor daitezkeela, guztiendako taberna izango dela, eta herritar guztiak gonbidatu gura dituz.



AITOR AGIRIANO

Selma Huxley Barkham aretoa

Aurten, 50 bete dira Selma Huxley Barkham (1927-2020) Euskal Herrira etorri eta Ternuako euskal baleontziak ikertzen hasi zenetik. Haren lana aitortzeko, beraren izena jarri diote Gipuzkoako Probintziako Artxibo Historikoko ikerketa aretoari. Huxleyren hiru seme-alaba izan ziren ekitaldian –Serena, Oriana eta Michael–, Udaleko eta Aldundiko ordezkariekin.

NIRE USTEZ

XABIER GESALAGA

Irribarrea ezkutuko ezpainetan

Azkenean iritsi da.

Bi urte igaro eta gero, gehienok desira genuen hori gertatuko da... Idazten ari naizen honetan, musukoaren derrigorrezko erabilera jaustear dago. *Irribarrea atzematen da, ezkutuko ezpainetan*. Hori dio Edurnek ikastolarako idatzi zuen kantu zatitxo baten letrak.

Musukoak gaixotasunetik babestu gaitu, birusari gure organismotik kanpo eutsi dio. Baina, era berean, irribarreak estali ditu, aurpegi erdiak estali, hitzak isildu, ezpainak lehortu; lehendik gure artean zaila zen hori, komunikazioa zikiratu, alegia. Maskara "maitatu/madarikatuaren" azpian bizi izan garen honetan zerbait ikasi badugu, praktikan jartzeko ordua da.

Orain, partekatuz ditzagun gure irribarrerik onenak, irriñorik goxoenak, aurpegirik zinezkoenak, irten daitezela ahoetatik maitasun hitzik hunkigarrienak eta aldarrikapen beroenak. Topa egin, ezpain *libreak* busti, pertsonen arteko lokarriak, ondo hertsu.

Olabarrietakoekin, auzoetako jaiak hasiko dira gaur

Gaurtik, egubakoitza, domekara ospatuko dira Olabarrieta auzoko jaiak, eta ohiko ekitaldiak egongo dira. *Altxorren bila* arituko dira arratsaldean eta kontzertuak egongo dira gauean: Onlifty, Tzar eta Lizartxo. Auzo bazkaria eta pilota partiduak egongo dira bihar; eta dantzak, mus txapelketa eta jolasak domekan. Pandemia aurretik be-

zala, aurten ere autobus zerbitzua egongo da kaletik Olabarrieta-raino.

Eta Olabarrietakoekin ondoren etorriko dira beste batzuk. Egogara egokitutako hainbat jai egin izan dira, baina ez landa eremuan eta ohiko moduan. Aurten, ohiko formatuetara bueltatzeko bidean dira denak. Datorren astean, esaterako, San Migel Txikixak izango dira eta araoztarrek ekainaren 11n eta 12an dute dute auzoko jaiak ospatzeko asmoa.

Torreauzoko kroserako izen-ematea zabalik da

Pandemiagatik bi urtez egin gabe egon ostean, bueltan da herri lasterketa. Uztailearen 3an izango da eta 'Herrikrosa.eus' webgunearen bitartez eman behar da izena; mugikortasun arazoak dituztenek ere parte hartzeko aukera izango dute

Amaia Txinturreta Guridi OÑATI

Pandemiak eragindako azken bi urteetako etenaren ostean, badator Torreauzoko krosaren 23. aldia. Uztailearen 3an egingo da, 10:30ean hasita.

Balio integratzailea

2016an ekin zion Abixaran taldeak Torreauzoko krosa antolatzeari, Antxintxiketan Kirol Elkartearen lekukoa hartuta. Lasterketaren bi helburu zehaztu zituzten orduan: hasieratik izan duen izaera herrikoari eustea eta bereziki emakumeen partaidetza sustatzea. Horrez gain, kirolaren "balio integratzailea" ere aldarrikatzen dute. "2018an, aniztasun funtzionala duen herriko Urdin Mendiolaen partaidetza izan genuen, Arabako Montes Solidarios taldearen laguntzarekin, eta 2019an, orain arteko azken lasterketan, aulki elektrikoaren laguntza baliatzen den Joseba Azkarate gonbidatu genuen. Bestalde, lan istripu batean hanka galdu zuen

beste herritar batek patin baten laguntzaz lasterka egiten hasi dela eta gurean parte hartzeko aukerarik izango ote lukeen galdetu digu; noski, baiezkoa eman diogu. Zailtasunen gainetik kirola guztiontzat onuragarria dela bistartzeko ahaleginean jarraitu nahi dugu", azaldu du Abixaraneko Miren Urkiolak. Gaineratu du mugikortasun arazoak dituen beste norbaitek parte hartu nahi badu, jasone_elorza@yahoo.es helbidera idatzi behar duela. Hala, arautegia haiei ere moldatzeko.

Boluntarioak eta babesleak

Lasterketa antolatzen abendu-urtarril inguruan hasi ziren eta alboan duten boluntario taldea,

'HERRIKROSA.EUS' BITARTEZ EMAN BEHAR DA IZENA, ETA ARIN DABILTZANAK SARITU NAHI DITUZTE

babesleak eta laguntzaileak eskertu nahi izan dituzte. Herriko ostalarien eta merkatarien bitartez lortutako sariak ere zozketatu izan dituzte: "Osasun pandemiak merkataritza eta ostalaritza bereziki kolpatu dituela jakinik, aurten ez dugu sari eske joateko asmorik, nahiz eta zenbaitek babesla adierazi diguten eta eskainitako opari horiek eta antolakuntzak bere aldetik erosiko dituen beste batzuk banatuko diren lasterketa amaieran".

Izen-ematea, Internetez

Aurten, *Herrikrosa.eus* webgunearen bitartez eman beharko da izena, eta "arin" dabiltzanak saritu nahi dituzte. Izan ere, uztailearen 1eko 22:00ak arte izena ematen dutenek 8 euro ordaindu beharko dituzte. Eta ordutik uztailearen 3ko goizeko bederatziak arte apuntatzen direnek, berriz, 15. Aurten, lasterketa hasi aurretik, bertan ezin izango da izenik eman.



Iturritxo taldeko kideak, pozik, sari banaketaren ostean. IMANOL SORIANO

Iturritxo taldeak irabazi du Herriko Futbol Txapelketa

Ligako irabazlea penaltietan erabaki zen eta kopako garaileak, berriz, Albok taldekoak izan ziren

A.T.G. OÑATI

Aurreko zapatuan jokatu zituzten Herriko Futbol Txapelketa finalak, Azkoagainen. Lehenik, Albok eta Tutelatruko aritu ziren aurrez aurre, koparengatik borrokan, eta talde zuri-berdea nagusitu zen (2-0). Julen Aranburu eta Mikel Aginagalde izan ziren golegileak. Ligako finalean, berriz, Mazedonia eta Iturritxo aritu ziren zein baino zein gehiago, eta, partidua lehiatua goli gabe berdindu ostean, penaltietan erabaki zen irabazlea (4-5). Txapelketa irabazteaz gain, fase erre-

gularreko txapeldunak ere Iturritxokoak izan ziren.

Bestelako sariak

Sari horiez gain, beste hainbat ere banatu zituzten. Jokalari beteranoenaren saria Mikel Biainek (Txuskos) jaso zuen; golegile nagusiaren *Bere* saria Chafiy Redak (Iturritxo); kopako finaleko jokalaririk onenarena, Julen Aranburuk (Albok); eta ligako finaleko jokalaririk onenarena, Juan Pablo Pinedak (Iturritxo). Joseba Molinero *Moli*-k ere aitortza jaso zuen, epaile egindako lanagatik.



Hainbat lasterkari, azkenengoz 2019an lehiatu zen Torreauzoko krosean, hasieran. GOIENA

Igeriketako hogeitazetxo Saloun izan dira entrenatzen

DBH-2 eta batxilergoko bigarren maila arteko hogeitazetxo Saloun izan dira Pazkoa astean, entrenatzen. Pandemia hasi baino lehen egin zuten horrelako lehenengo irteera, eta aurten errepikatu egin dute. Goizetan Salouko udal igerilekuan egin dituzte entrenamendu saioak eta arratsaldeetan arlo fisikoa landu dute. Ezagutza jolasak ere egin dituzte, elkarren artean hobeto ezagutzeko, eta Josune Odriozola entrenatzaileak guztiz positibotzat jo du esperientzia: "Ikusten da garapena izan dutela igerilariak, eta euren arteko taldea sendotzeko ere balio izan du irteerak". Aisialdian, Port Aventura ere izan ziren.

Izen-ematea zabalik maiatzaren 8ko orientazio probarako

Oñatin egingo da Gipuzkoako Orientazio Liga herrikoiko bosgarren proba, maiatzaren 8an, domeka. 10:00etan egingo dira lehen irteerak eta 12:00etan azkenak. Mapa Asier Osinagak egin du, eta hura izango da tratatzailea. Proba 1: 4.000 eskalan egingo dute.

Izena Gotorientazioa.org webgunean eman daiteke dagoeneko, maiatzaren 5era bitartean; egun horretan 22:00etan itxiko dute izena emateko epea. Dena den, antolatzaileek adierazi dute inskripzioa aldeztu aurretik itxeko eskubidea izango dutela, aurreikusita duten jende kopuruak baino gehiagok izena ematen baldin badu.



Hots Abesbatza osatzen duten kideak, Ejea de los Caballerosko lehiaketan. HOTS ABESBATZA

Bi sari Hots abesbatzak Ejea de los Caballerosen

Lehen aldiz hartu dute parte lehiaketa batean eta hirugarren saria eta entzuleena eskuratu ditu Hots abesbatzak Zaragozako 49. lehiaketan. Lau pieza abestu zituen Aitor Biain Bidartek zuzendutako taldeak: hiru 'a cappella' eta bat pianoaz lagunduta

Amara Txintxurreta Guridi OÑATI

Hamabi abesbatzak parte hartu zuten Ejea de los Caballerosko lehiaketan, bi kategoriatan banatuta: haurren abesbatzak eta helduenak. Azken horretakoak dira Hots abesbatzaren sariak: hirugarrena –trofeoa eta 1.000 euro– eta entzuleena – trofeoa eta 1.000 euro–. Oñatiko taldea izan zen aretoan egondako entzuleen partetik boto gehien jaso zituen abesbatza.

Aitor Biain Bidarte zuzendaria oso pozik dago lortutakoarekin: "Taldearendako lehen lehiaketa izan da, mimo handiz prestatutakoa. Helduen sailean hartu dugu parte eta koro mistoek eta ahots zurikoek elkarren artean lehiatu behar izan dugu, horrek zailtasun handia dakar. Emozio handiko aktuazioa izan zen, izugarriko potentziala eta indarra erakutsi genituen, eta oso pozik gaude bi sariengatik; izan ere, biendako abesten dugu – epaimahaiarendako eta entzuleendako– eta bien partetik

errekonozimendua egotea oso handia da guretako".

Hori guztia lortzeko, "erreperitorio ikusgarria, esijentzia maila handikoa eta kalitatezkoa" prestatu zuten: David Azurzaren *Alpargatas blancas*; Josu Elberdinen *Introducción y jota*; Jackson Berkeyren *Ascendit deus, a capella*; eta Zane Randall Strooperen *Dies irae*, pianoarekin.

Epaimahaiari, sei kide

Lehiaketako epaimahaia sei kidek osatu zuten. Horien artean zegoen lehiaketan derrigorrezkoa zen obraren egilea, David Azurza tolosarra.

Horien hitzetan, abesbatza guztiek "sariak lortzeko moduko puntuazioak" lortu zituzten, eta

NAGUSIEN SAILEAN KORU MISTOEN ETA AHOTS ZURIKOEK ELKARREN ARTEAN LEHIATU BEHAR ZUTEN

Zaragozako lehiaketaren maila nolako den erakutsi dute.

Abeslariak ere oso pozik daude

Aurreko asteburuan izan ziren Zaragozako lehiaketan parte hartzen. Hotsekoek domeka arratsaldean abestu zuten, eta taldekideak oso gustura gelditu dira egindako lanarekin. Hauxe adierazi du bertako lehendakari eta abeslari Edurne Usandizagak: "Esperientzia oso polita izan da. Kontuan izan behar dugu 2016an sortutako abesbatza gara, tartean pandemia izan dugu, eta entseatzeko hilean behin elkartzeko gara. Baina oholta ganean atera genuen energia oso berezia izan zen, oso lan polita egin genuen eta hori dagoeneko bazen guretzako garaikurra. Horrez gain, bi sari irabaztea izugarriko aitortza eta bultzada izan da abesbatzarendako lanean jarraitzeko". Zuzendariak dio taldea "bide onetik" doala eta etorkizunerako hainbat proiektu dituztela.

Oñati Abesbatzak Aita Madinaren kantu bat estreinatuko du

Domekan, maiatzaren 1ean, kontzertu sakroa eskainiko du Oñati Abesbatzak, Eibarko Sostoa abesbatzarekin batera, Bidaurretako elizan, 19:00etan.

2022a Aita Madinaren heriotzaren 50. urteurrena da, eta testuinguru horretan, gainera, bi abesbatzek Aita Madinaren *Tantum ergo* kantuaren estreinaldia egingo dute –Europa

mailako estreinaldia izango dela aurreratu dute. Kantu horrez gain, emanaldi sakroan beste hamaika ere eskainiko dituzte bi abesbatzek, Mirengu Plazazolaren zuzendaritzapean.

Oñatiarrak apirilean izan ziren Eibarren kontzertua eskaintzen, eta orain, herrian egingo dute. "Eibarkoa polito irten zen eta gogoz gaude ziklo hau Oñatin bukatzeko. Izan ere, pandemia hasi zenetik herrian emango dugun lehen kontzertua izango da domekakoa".

'Viva la ópera' saioa eskainiko du musika bandak domekan

Denboraldiko bosgarren kontzertua emango du Oñatiko Musika Bandak domekan, Zubikoako pilotalekuan, 13:00etan: *Viva la ópera*. Monteverdiren musikatik hasita, Bizet, Puccini eta Donizettirainoko kantuak entzun ahal izango dira. Aria ezagunetako melodiak joko dituzte, askotariko estiloetan.

Aipagarrietako bat da *Carmen suite* klasikoa, eta amaieran, nahiz eta opera ez izan, opera hizpide duen *Le Fantome de l'Opera* musikal ezaguna ere entzun ahal izango da. Gonbidapenak Txokolateixan eskura daitezke dagoeneko.

Kalejirarekin, beti bezala, 11:00etan hasiko dira.

Euskara eta natura hizpide izango dira zinema aretoan

Eñaut Agirre Goia filologoak eta Iñaki Sanz-Azkue biologoak euskarak naturatik jaso duena ikertu eta *Gure faunari eta florari begira: ornodunak* liburua argitaratu dute. Bi hernaniarrek 300 orrialdeko liburua idatzi dute, eta bertan, 150 espezie deskribatzen dira, fitxaz fitxa, bost taldetan: arrainak, anfibioak, narrastiak, txoriak eta ugaztunak. Horren aurkezpena egingo dute, eta euskal gizarteak naturarekin izan duen harremanak utzitako ahoko ondareari buruz ere jardungo dute maiatzaren 4an, eguaztena, 19:00etan, zinema aretoan. Sarrerak doan eskuratu ahal dira *Oñati.eus*-en edo Txokolateixan.



JESUS MARI PERMAN

Juan Carlos Irizarri omenaldia

Musikari oñatiarra zendu zela urtebete pasa ostean, haren omenez egindako *Amigos para siempre* dokumentala aurkeztu zuten Donostian, Aquariumean. Irizarren lagun eta familiakoek testigantzak jaso dituzte bertan. Ekitaldian izan ziren haren alargun Itziar Aizpurua, musikariaren lau seme-alabak eta bestelako senide, lagun eta inguruak.



Ainara Urribarri –ezkerrean– eta Ainara Urrutia –eskuman–, aste barruan Arrasaten. GOIENA

"Selekzioan egoteak presioa dakar; neurritz hartu behar..."

AINARA URIBARRI ETA AINARA URRUTIA MENDI KORRIKALARIAK

MENDI LASTERKETAK Ibilbide ezberdina eginda iritsi dira euskal selekziara; bereziki distantzia motzetan nabarmendu diren bi atleta hauek ez dute aukera galtzen utzi

Xabier Urtzelai ARRASATE

Ainara Urrutia aretxabaletarrak eta Ainara Urribarri oñatiarrak egutegi betea dute datozen astotan. Azken urtean egindako lan onak euskal selekzioko ateari ireki dizkie eta gozatu ederra hartzen dabilta.

Modu erabat ezberdinean pasatuzue Pazko astea...

Ainara Urribarri: Bai; ni Galizian izan naiz, Espainiako txapelketa zegoen jokoan eta euskal selekzioa ordezkatzeko maratoiko distantzian debuta

egin dut. Orain arte, distantzia laburragoetan jardun dut, baina maratoia beste kontu bat da. Egia esan, gorputz osoan dut giharretako mina; ja, ja... Baina oso esperientzia ona izan da, oso giro onean

MAIATZAREN 7AN BERGARAN ESPAINIAKO TXAPELKETA IZANGO DU URIBARRIK

ibili gara selekzioko kide guztiak.

Ainara Urrutia: Ni lasaiago ibili naiz, datozen hitzorduetarako entrenatzeko aprobetxatu dut. Asteburuan Caceresera goaz, Espainiako klubetako kilometro bertikaleko txapelketara, eta hurrengo asteburuan ere oso hitzordu berezia daukat, euskal selekzioarekin Munduko Kopako lasterketa izango dut-eta Frantzian. Nire debuta izango da nazioarteko lasterketa batean, eta erronka handia da ibilbide



Malen Osa, helmuga zeharkatzen, asteburuan Lugon. GOIENA

Malen Osa, Espainiako txapeldun

Asteburuan jokatu dute, Lugon, Espainiako lineako mendi txapelketa, eta junior mailan, 14 kilometroko lasterketan Malen Osa oñatiarra lehenengo helmugaratu zen (1.12). Ibai Larrea antzuolarra bigarren izan zen gizonetakoan (58 minutu).

teknikoa delako, ia 3.000 metroa ibiliko garelako... Ilusio handiarekin noa.

Horrenbestez, asteburuan ez zaituztegu Aloñako Igoeran ikusiko...

A.Uri.: Ez, ni Aloñara igoko naiz eta han lasterkariak animatuko ditut. Gertuko batzuek lasterketa egin behar dute eta jatekoak eta edatekoak ematen saiatuko naiz.

Urtean zehar lasterketa konkretu bat gorriz markatzekoak zarete?

A.Uri.: Ni ez naiz helburu konkretuak jartzearen zale, eta, normalean, epe motzerako planifikazioa egiten dut, gogoaren arabera. Hilabete batzuk behar izaten dira lasterketak prestatzeko, baina egunerokoan jartzen dut fokua.

A.Uri.: Nik, ordea, bai. Denboraldi hasieran hiru sasoi puntu zehazten ditut eta puntu horietan hiru lasterketa garrantzitsu aukeratzen ditugu, eta bakoitza ahalik eta ondoen prestatzen saiatzen naiz.

Lortu dituzuen emaitzei esker babesleak dituzue, euskal selekzioa ere ordezkatzeko duzue... Hori motibazio iturri da, ala presioa?

A.Uri.: Presio puntua hori egoten da; azkenean, marka batek zure aldeko hautua egin du,

FRANTZIAN JOKATUKO DUTEN MUNDUKO KOPAKO PROBAN IZANGO DA URRUTIA, LEHENENGOZ

selekzioan egonda begi asko daude egiten duzuna jarraitzen...

Bai egoten da presio handiagoa, baina garbi dugu gu ez garela honetatik bizi. Gauzak ahalik eta ondoen egiten saiatzen gara.

A.Urr.: Ni oso kontziente naiz nire lehentasunak zeintzuk diren, eta hau zaletasuna da. Egia da denbora eskaintzen diodan zaletasuna dela, etxean ere ondo antolatuta behar izaten dugula eta emaitzei begira nagoela, baina neurrian, zoratu barik.

Izan ere, Debagoienean kirolari gehienak amateurak zarete. Eta neurria hartzea ezinbestekoa izango da.

A.Urr.: Zalantza barik. Etxean sekulako *tetris*-ak egiten ditugu entrenamenduak eta egunerokoa bateratzeko, baina, nire kasuan, babes handia dut eta denera iristen gara.

A.Uri.: Nik ez dut seme-alabarik; hortaz, horren harira, Ainarak baino errazago dut; ja, ja... Baina kanpoan egiten dut lan, goiz jaiki behar izaten dut entrenatu nahi badut, eta ostiralera leher eginda iristen naiz.

Baduzue lasterketa konkreturen bat begiz jota?

A.Uri.: Nik bai, nire ametsa da Zegama-Aizkorri egitea, eta lasterketara ondo prestatuta joatea.

A.Urr.: Nik ez nuke jakingo esaten. Esaterako, datorren astean dudak Munduko Kopako lasterketa hori oparia da niretako, munduko mailako korrikalariak izango ditut ondoan, gauza berria da niretako.

lazko irabazleak irteera puntuan izango dira

MENDI LASTERKETAK Domekan egingo dute (09:00) Aloñako Igoeraren 17. edizioa, iazko data moldaketaren ondoren normaltasunera bueltatuta. Hala, urrian azkarrenak izan ziren Aitor Ajuria eta Malen Osa txapela defendatzeko moduan egongo dira

Xabier Urtzelai OÑATI

2020koa bertan behera utzi eta 2021eko edizioa urrian egin ostean, Aloñako Igoerak ohiko data berreskuratu, eta oraingo domekan egingo dute lasterketa. Nabarmenezkoa da iazko onenak irteera puntuan izango direla; hain zuzen, duela aste gutxi Arrasate-Udalatz proban ere aurrealdekoen borrokan ibili ziren Aitor Ajuria gatzagara eta Malen Osa oñatiarra—Osa Espainiako txapeldun izan berri da junior mailan—.

Eurekin batera, baina, maila oso oneko atletak batuko dira irteera puntuan: Nerea Amilibia, Beñat eta Jokin Etxabe anaia bergararrak, Axier Alonso, Xabi Lete eta Saioa Arkonada oñatiarrak, Iñigo Alzola eta Ane zabala arrasatearrak, Aitor Ugarte aramaiarra... Horiek guztiak ere ibiliko dira nor baino nor gehiago domekan. Azkarrenak hirurehun euroko saria eskuratuko dute, baina, urtero bezala, bestelako hainbat sari ere egongo dira.

300 lasterkari, guztira

Urtero moduan, izen-ematea bete egin dute lasterkariak; hala, 300 lagunek hartuko dute esku lasterketan. "Datuei errepasoa eginda, 275 gizonetako eta 25



Aitor Ajuria eta Malen Osa, iazko irabazleak. GOIENA

BUETRAITZEN EGONGO DIREN SUHILTZAILIEN ESANAK BETE BEHARKO DITUZTE LASTERKARIEK

emakumezko egongo dira lasterketan. Oñatiarrak 63 izango dira —tartean, hamaika izango dira emakumezkoak—, eta, Debagoieneko herrien errepasoa egiten badugu, 27 lagun etorriko dira Arrasatetik, Bergaratik 20

etorriko dira, Aretxabaletatik 13, Aramaiotik hiru lagun etorriko dira eta Eskoriatzatik eta Antzuolatik bana", adierazi zuten antolatzaileek martitzeneko aurkezpen ekitaldian.

Lasterketan 100 boluntario inguru ibiliko dira lanean. Gurutze Gorriak ibilbide osoan izango du presentzia, eta suhiltzaile boluntarioen talde bat ere egongo da Buetraitz inguruko tontorretan; hain zuzen, azken horiek emandako aginduak bai ala bai bete beharko dituzte parte-hartzaileek.

Aldaketa txikiak ibilbidean

Lasterketak azken urteotako formatuari eutsiko dio, 22,6 kilometro eta 1.868 metroko desnibel positiboa izango du. Baina jaitserian aldaketa txiki bat egongo dela adierazi zuen aurkezpenean Mikel Madinagoitiak: "Lursail pribatu bat ezin dugu zapaldu eta asfalto zati bat gehituko dugu, baina ez du inongo eraginik izango lasterketan".



Lasterketako antolatzaileak, aste barruan. T.MADINA

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA

O.ERREGION. GIZ.

Zarautz-Bergara

Zap. 16:30. Asti.

Aloña-Urola

Dom. 16:30. Azkoagain.

Mondra-Aretxabaleta

Dom. 16:30. Mojategi.

O. ERREGION. EMAK.

Leintz Ariz.-Zumaiaiko

Egub. 20:30. Mojategi.

Eibar-Bergara

Egub. 19:45. Unbe.

BIG. ERREG. EMAKUM.

Leintz Aloña-Euskald.

Zap. 12:00. Azkoagain.

GAZTEAK, EUSKAL LIGA

Aretxabaleta-Amore.

Zap. 16:00. Ibarra.

LEHEN ERREG. IGOERA F.

Bergara-Segara

Zap. 16:30. Ipintza.

ARETO FUTBOLA

MAILA NAZIONALA

Mondrate-Elorrietako

Zap. 17:30. Musakola.

Lagun Onak-Eskoriatza

Dom. 18:00. Urreta.

EUSKADIKO TXAP. GIZ.

Aretxabaleta-Goierri

Zap. 17:00. Ibarra.

GIPUZKOAKO MAILA. GIZ.

Egintza-Mondrate

Zap. 16:00. Olaederra.

GIPUZKOAKO BIG. MAILA

Eskoriatza-I.C.Aloña

Egub. 22:30. M.Muñoz.

SASKIBALOA

EBA

Lauko finala:

MU-Leclerc

Zap. 17:30. Santiago.

Finala. Domeka. 12:30.

EUSK. TXAPELKETA. GIZ.

Tabirako-MU

Zap. 19:00. Durango.

GIZON. BIG. MAILA

Erroibide-Mekalki Al.

Dom. 12:00. Irun.

EMAK. BIG. MAILA

Getxo-MU

Dom. 11:30. Fadura.

GIPUZKOAKO LEHEN. M

Bergara Sora.-Añorga

Zap. 20:00. Labegarai.

GIPUZKOAKO BIG. MA.

Internacion.-Bergara

Zap. 18:00. Donostia.

JUNIOR MAILA. GIZ.

Diarso-Aloña Mendi

Zap. 17:30. Don Bosco.

Bergara Sora.-Ordizia

Dom. 12:30. Labegarai.

ERRUGBIA

Sarako Izarra-ART

Zap. 16:00. Sara.

PILOTA

Maila federatua:

Bergaran, gaur (18:45)

bost partidu. Zapatuan

(10:30) hiru partidu.

Aretxabaleta, gaur

(19:00) lau partidu.

Oñatin, gaur (19:00) hiru

partidu. Zapatuan (16:30)

hiru partidu.

Antzuola, gaur (20:00)

partidu bat.

Soraluce Lau eta erdiko

Txapelketa: Martitzena,

19:30, Bergara.

MENDI LASTERKETAK

Aloñako Igoera.

Domeka. 09:00. Oñatiko

plazatik abiatuta.

FUTBOL EGOKITUA

Zapatua. 12:00.

Mojategiko zelaietan.

Aurrealdekoen borroka argituko duen derbia jokatuko dute etzi

FUTBOLA Puntu kopuru berbera (53) duten Mondrak eta Aretxabaletak domekan dute hitzordua, Mojategin

X.U. ARRASATE

Urteak egin behar dira atzera domekan Mondrak eta Aretxabaletak jokatuko duten moduko derbi bat azkeneko noiz jokatuko zuten ikusteko. Alegia, ez da final bat, baina oso partidu erakargarria da, sailkapenean laugarren eta bosgarren postuan dauden bi talde izango dira-eta aurrez aurre. Gainera, bi talde horiek dabilta, nahiz eta horretarako Elgoibarrek kale egin behar duen, *play-off*-erako esku-bidea ematen duten postuengatik amesten.

Normalean, Mondrak zapatuetan jokatzen du etxean, baina partidua domekan izango da (16:30, Mojategi). Eta aurreikusitakoa da bi taldeek zaleen babesa izango dutela harmailetan.

Egun eta ordu berean jokatuko du Aloña Mendik sailkapenean ondoan duen Urolaren kontra



Sanchez baloiaz, 2018ko derbian. GOIENA

(16:30, Azkoagain), eta Bergarak Zarautzen izango du hitzordua zapatuan (16:30). Emakumezkoetan, Leintz Arizmendik Mojategin jokatuko du gaur, egubakoitz, Zumaia kontra (20:30), eta Bergarako neskek ere gaur jokatuko dute, 19:45ean, Eibarren.

"Gozatzeko plaza ona, baina sufritzeko ere bai"

ANE ZUAZUBISKAR IÑARRA BERTSOLARIA

50 urte bete dituen Osinalde sariketa "estimatu" garaikur nagusia irabazi zuen zapatuan Arrasatekoak; Gabiriako Osinalde elkarte gastronomikoan jokatu zuten

Aitziber Aranburuzabala ARRASATE
Gazteendako sariketa da Osinalde, eta, han kantatzeko, aurretik bi kanporaketa egiten dituzte. Ordizian lortu zuen txartela Ane Zuazubiskarrekin. Hirugarrenen aldia zuen Gabirian, aurrekoetan bigarren geratu zen, eta etxean du orain urteurren borobileko garaikurra. **Saria eskuetan, pozik?**

Elegantea da; pisua du, gainera, eta ez sinbolikoa bakarrik. Gabiriako zeramika taldekoek egiten dituzte urtero garaikurrak. Laiaren itxura hartzen diot nik honi, ederra da!

Hirugarrenean bai!

Final oso ona joan zen, bertsoetan oso ondo egiten duten bertso-kideak nituen alboan; saioaren erdialdera, denok komentatzen genuen ez zegoela irabazle garbirik. Egia da, baina, aurreko astean asko kostatu zitzaidala nik banuela irabazteko gogoakudeatzea, genero ardatza sartzen dela hor uste dut; izan ere, banuen irabazteko gogoak, baina uste dut oraindik zaila dela hasierako agurrean emakume batek *haginka egitera nator, irabaztera nator* eta halako esaldiak kantatzen entzutea.

Zer dauka Gabiriako sariketako bertsolariendako eta zaleentzako hain gozoa izateko?



Ane Zuazubiskar, Osinalde sariketako garaikurrekin. LEIRE IRIA

50 urtean egitea lortu badute, gauzak ondo egiten dituztelako da. Belaunaldiz belaunaldi pasatu da antolatze ardua; zapatuan, esaterako, gazte asko zeuden askotariko lanetan. Auzolanean egindako sariketa bat dela igartzen da. Giro oso ona egoten da. Mikro barik kantatzen da, garai baten moduan, eta horrek publikoari adi-adi egoteko eskatzen dio. Bertsoa asko errespetatzen den plaza da, nire ustez, eta, beti esaten dugun moduan, gozatzeko plaza ona da, baina sufritzeko ere bai, ez

da-eta plaza erraza. Publikoan dauden gehienak goierritarrak dira, eta ez da broma lehenengo ilaran dauden Imanol Lazkanoren, Laxaro Azkunereren eta Iñaki Muruaren aurrean kantatzea, errespetua ematen du.

Giro tradizionala; ze pisu du horrek emakume bertsolari batendako?

Niretzako plaza oso atsegina da, elkarte eta baserri giro hori ez da espazio arrotza niretzako, baina ulertzen dut beste batzuentzako izan daitekeela. Publikoan emakumeen eta gizonen arteko oreka hori ikustera ohitu gara

saioretan, eta, ezer esanik ez, txapelketatan, baina Osinalden ez da oraindik horrela, eta lehenengo urtean inpresioa egin zidan. **Kasualitatea da sei bertsolari hiru Debagoienekoak izatea?**

Ezin da ukatu eskoletan egiten den lana, baina Oñati eta Aramaio aparteko kasuak dira, herri oso bertsozaleak dira Debagoieneko beste herrieekin alderatuz. Eskualdeko bertso gintza txanpinoien moduan gertatzen den zerbait dela diogu askotan, eta gure adin bueltan bagaude batzuk; besteak beste, finalean alboan izan nituen Oihana Arana eskoriatzarra eta Aitor Tatiegi oñatiarra.

Gustatu zitzaizkizun gaiak?

Oso gustura kantatu nuen gutietan. Zortziko handian, Aitorrekin, ama-alaba paperetik kantatu genuen; alaba parrandan doanean amak zelako beldurra pasatzen duen askotan eta halakoak kontatzen. Oso gozo ibili ginen eta oso ondo kantatu genuela esango nuke. Zortziko txikian, familia bazkari batean elkartu diren bi senideren paperen. Hamarreko txikian, 40 urtez ezkondua egon eta bikote truke batera doan bikote bilakatuta, ederto pasatu nuen Unai Izagirrearekin kantatzen. Eta bakarkako saioan, *bidea* hitzaren bueltan izan zen ariketa bat eta 50. urteurrenarekin lotuta beste bat, 1971ko sariketako irabazle Patxi Iraolaren paperean.

Zaila da ulertzea, gaiak jakin barik, zenbateraino ahal duzuen saioa aurretik prestatu.

Saioan kokatzeko unerik onena tokira heltzen zarenean da, eserita non egongo garen eta ze jende dagoen ikustean. Eta gainontzeko lanketarako, bada, beti esaten den moduan, irakurri, albisteak jarraitu, lagunekin

berba egin... Euskadi Irratian egiten dut lan eta beti esaten dut zorte handia dudala albistegietan lan egiten dudalako, burua martxan izateko eta biltegia betetzeko aukera ematen dit eta. Bakoitzaren maniak ere hor daude gero; esaterako, nik ohitura dut saioa den herriko edo eskualdeko tokiko komunikabideetan begiratzeko. Saiatzen gara tokiko albisteen berri izaten, plazari eta publikoari zor diogun errespetuagatik.

Iaz abiatutako Señora sariketaren bigarren aldiaren aurkezpena izango da bihar. Gogotsu?

Bai, horixe! Bertso bazkaria egingo da Arrazolan (Bizkaian) bihar, eta maiatzaren 14an eta 21ean eta ekainaren 4an izango dira saioak. Debagoienean ez da egingo saiorik, iaz heldu ez ginen lekuetara heltzeko asmoz.

Kazetaria zarenetik, hedabideok bertso kontuei nahikoa toki egiten diegula uste duzu?

Sariketen eta txapelketa nagusien jarraipen oso txukuna egiten dela uste dut, baina, orokorrean, bertso gintzak kultura gaietan merezi duen tokia nola egin asmatzea da dugun erronka. Hausnarketa oso interesgarriak egiten ari den jende asko dago, eta badago oraindik esploratu beharreko lur bat.

Hezkuntza arloan, zer diozu?

Orokorrean, ez gara konturatzen nolako lana egiten den hezkuntza arautuko proiektuan, Bertsozale Elkartearen irismen handiena duen proiektua da eta.

"KULTURA GAIETAN BERTSOEK MEREZI DUTEN TOKIA EGITEA DA HEDABIDEOK DUGUN ERRONKA"

MIKEL LASKURAIN

AKTOREA

GOIENA TELEBISTA, 'GALDEGAZTE' SAIOA

MAIATZAREN 4AN, EGUAZTENEAN, 21:30EAN ETA 23:30EAN

ARRASATEKO INSTITUTUKO IKASLEAK ELKARRIZKETATZAILE



DESKARGATU
GOIENA
APP BERRIA!

goiena
Zu hemen zaude.




'Naturaren oihartzuna' kontzertua Arantzazun
